goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2015-09-18
EGUBAKOITZA
652. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

# Kimuberriko proiektuak ikusgai


Proiektu bateko kideak. | JAGOBA DOMINGO

MUko ikasleen artean ekintzailetasuna bultzatzea du helburu erakusketak. | 3

Bosniako gerratik ihesi etorritako Melita Imamovitxekin berriketan | 4



Argia eguna ospatuko dute asteburuan Oñatin | 2



Debagoieneko autozaleen hitzordua bihar: Aramaioko rallysprinta | 28




Asier Altuna zinema zuzendari bergararra, Donostian, martitzenean, *Amama* filmaren kartelaren aurrean.

## Asier Altuna nazioarteko filmekin lehian Donostian

"Irabazteko aukera" baduela baina "faboritoak beste batzuk" direla dio zinemagileak | 30

ARITZ DENDATEGI

# Elkartasun Egunak hamar urte beteko ditu Arrasaten

"Desagertzeko sortu zen" ekimenean musika da nagusi | 10

## SINADURAK


Heziketa madarikatua! | 6
RESU ABASOLO

6 | Emakumeak protagonista
MONIKA BELASTEGI



Jacques Cousteau | 12
GAIZKA ERAÑA

16 | Galderak besterik ez
AITZIBER PLAZAOLA



Egutegiko argazkia | 18
AITOR UGALDE

22 | Etorkinen drama
MAIDER OTAMENDI



Irudi baten indarra | 40
AINTZANE OIARBIDE




ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Elkarrizketa Irati Zubizarreta neurologo arrasatearrari
- Laboratorium, barrutik

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05




DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6 | HERRIAK 9 | KIROLA 26 | KULTURA 30 | ZURE IRAGARKIAK 34 | ZORION AGURRAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38



Iñigo Urkullu lehendakaria irekiera ekitaldian atzo, eguena. | T. MADINA

# MUk Euskadi eraikitzeko "eragile aktibo" izan gura du

## Ikasturte irekiera Oñatiko Enpresagintza Fakultatean izan da

**TXOMIN MADINA** | OÑATI

Lehiakortasuna, enplegua, enpresagintza eta etorkizuna hizpide izan ziren, besteak beste, Mondragon Unibertsitatearen ikasturtearen irekiera ekitaldian atzo, eguena.

Eta bertan izan ziren, besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakaria, Cristina Uriarte Hezkuntza sailburua, Markel Olano diputatu nagusia, Bakartxo Tejeria Legebiltzarreko lehendakaria, Oñatiko, Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako alkateak, Bixente Atxa Mondragon Unibertsitateko errektorea, Idoia Peñakoba unibertsitateko idazkari nagusia eta Saioa Arando doktorea.

Hain zuzen ere, Atxak azpimarratu zuen unibertsitateak etorkizuneko Euskadi eraikitzeko "eragile aktiboa izaten" jarraitu nahi duela, eta erronka horretan publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlanak duen garrantzia nabarmendu zuen.

Iñigo Urkullu lehendakariak, berriz, Mondragon Unibertsitatearen izaera irekia eta globala azpimarratu zituen. Eta gaurkotasuneko gaiekin lotuta, gerrako errefuxiatuekiko elkartasuna eskatu zuen, Jose Maria Arizmendiarrietaren garaikide izan zen Jose Antonio Agirre lehendakariak ere atzerrira ihes egin behar izan zuela gogora ekarrita.

**4.000 ikasle baino gehiago**

Bestalde, 2014-2015 ikasturteko balantzea egin zuten atzoko ekitaldian: 4.286 ikasle izan zituen Mondragon Unibertsitateak, eta graduko hamabost titulu, ingeniaritzen alorreko diploma bikoitza eta hamahiru unibertsitate master eman zituen.

# 'Txikitik eragiten' segitzeko, Argia eguna ospatuko dute asteburuan, Oñatin

## Debagoieneko Argia komunitatearekiko harremana estutu gura dute ospakizunaren bidez

**UBANE MADERA** | OÑATI

"Txikiak dira, sarritan, krisia eta eredu injustuak gainditzen lagundu dezaketen ekimenak. Txikiak, halaber, euskaraz dihardugun hedabideak. Inurriak bezala, gu baino askoz handiagoak diruditen gauzak mugitzeko saiakeran gabiltza etengabe. Bidea asmatzen".

Hain justu, "bidea asmatzen" segi ahal izateko, indartzeko… oro har, txikitik eragiten segitzeko "ezinbestekoa" delako komunitatearen babesa, hori berori izango delako "aurrerantzean ere" euren "independentziaren giltzarria"; bada, komunitate horrekiko harremana estutu guran antolatu dute Argia eguna Oñatin asteburuan.

**Ordorika, bazkaria...**

Ekitaldirik gehien etzi, domeka, egingo dituzten arren, biharko ere badira hitzorduak: 10:00etan Elorregitik Oñatira bizikleta martxa, 12:30ean *Trantsizioak* izenburuko argazki erakusketa zabalduko dute Gaztelekuan, eta 16:30ean, Arrikrutzeko kobetara bisita mitologikoa egingo dute. Eguna borobiltzeko, Ruper Ordorikak kontzertua eskainiko du Gaztelekuan, 22:30ean.

Domekan, berriz, Gerardo Elortza historiagileak gidatutako kultura ibilaldiarekin hasiko dute eguna, 10:00etan. 11:15ean, berriz, herri eragileen azoka zabalduko dute Foruen plazan, 17:30ak arte (hogei talde inguru, euskaran, feminismoan, ingurumenaren defentsan, ekonomia sozialean… dihardutenak) eta ordu berean jolas hezitzaileak izango dira; batukada eta beste, berriz, 12:30ean, eta 14:00etan herri bazkaria (15 euro), bertako eta garaiko produktuekin. Arratsaldeari dagokionez, 17:00etan Euskal Herriko II. NAN arrotzen jaurtiketa iragarri dute eta 18:00etan, Perlak taldearen eta gertuko musikarien saioak, txosna inguruan.



Agerraldi jendetsua eta anitza egin dute asteon Bergarako Udaletxearen arkupeetan. | TXOMIN MADINA

# Emakumeen Mundu Martxari ongietorria egiteko gertu

**T. M.** | DEBAGOIENA

Euskal Herriko 23 herritatik pasatuko den Emakumeen Mundu Martxa urriaren 2an (egubakoitza) egingo du geldialdia Debagoienean. Bergaratik sartuko da, 13:00etan, eta 16:30ak arte geratuko da. Eta, ekimenaren aitzakian, besteak beste, herri bazkaria egingo dute bertan, eta baita *Women in black* izeneko *performance*-a ere.

Edozein modutan, Bergaran ez ezik, eskualdeko beste udalerri batzuetan ere izango du isla Emakumeen Mundu Martxak, oraingo asteko martitzenean egindako agerraldi jendetsuan jakinarazi dutenez (ondoan egitaraua).

**Bilborako autobusak**

Bilbon, urriaren 4an egingo du azken eguna *karabana moreak*, eta iragarri dute Debagoienetik autobusak izango direla bertaratzeko.

## DEBAGOIENEKO EKIMENAK*

**ELGETA**

IRAILAK 20

**10:30** Plazatik Intxortako *La Belga*-ra igo eta landarea landatu.

**12:30** Triki-poteoa.

**OÑATI**

IRAILAK 20

**12:00** Argia egunaren baitan materiala saltzen plazan.

**ARETXABALETA**

IRAILAK 23

**19:00** Urrats moreak margotzea, Lau Bankuko Plazatik Ilargi plazara.

**20:30** Landaketa Ilargi plazan, Emakume Txokoa aldarrikatzeko.

**21:00** Afari-merienda.

**ARAMAIO**

IRAILAK25

20:00 Ekintza sinbolikoa Santa Anan.

**ARRASATE**

IRAILAK 26

**11:00** Kalejira Seber Altubetik.

**12:30** Meatzerrekako urmaelean ihi landatzea.

* Oraingoak eta datorren asteko hitzorduak dira, gehiago ere badira.



# MUko ikasleen 52 proiektu berritzaile ikusgai Kimuberrin

- Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletan ikusgai izango dira hiru astez
- Ikasleen artean ekintzaile izateko grina bultzatzea da helburua

**ENEKO AZKARATE** | ARRASATE

Ikasle gazteen ekintzailetasuna bultzatzea da Kimuberri proiektu berritzaileen erakusketaren helburua. Seigarren urtea du aurten eta Mondragon Unibertsitateko hainbat fakultatetako ikasleek aurreko ikasturtean landutako 52 proiektu berritzaile daude ikusgai. Panelez, prototipoz eta ikus-entzunezko erreportajez apainduta dago erakusketa.

Eguaztena ezkero ikus daiteke Arrasateko Kulturateko klaustroan, datorren martitzenera arte. Ondoren, Oñatiko MUko Enpresagintza fakultatera (irailaren 23tik urriaren 5era) eta Aretxabaletako Arkupe kultura etxera (urriaren 6tik 16ra) eroango dute.



Ikusmen arazoak dituztenendako irakurgailua sortu duen taldea. | JAGOBA DOMINGO

### Askotariko proiektuak

Informatika, elektronika, telekomunikazio, industria eta ikus-entzunezko arloetan landu dituzte ikasleek euren ideiak. Besteak beste, hauek: haize-erroten hegalen mantenurako sentsore bat, kalteak urrunetik neurtu eta aurreikusteko aukera emango lukeena; erabiltzaileak bere gustu edo interesen arabera aukeratutako aldizkari elektronikoa; ikusteko zailtasunak dutenek jantz dezaketen kamera bat testuak irakur ditzakeena; sistema elektroniko berezia duen eta urrunetik gida daitekeen autoa...

### Bizitza erraztu

"Eguneroko bizitza errazten duten produktu edo zerbitzu berritzaileak". Erronka horri erantzun diote. Injinerutza industrialekoek, esaterako, 2020an gizarteak izango dituen ezaugarriak identifikatu eta haien beharrak asetzeko produktuak proposatu dituzte.

### Ideiak negozio bihurtu

Unibertsitatetik atera berri diren gazteei euren negozioa, denda edo enpresa sortzera animatzea da, horrenbestez, Kimuberriren helburu nagusia.

Alde horretatik, Mikel Orobengoak, Isea Enpresako Zerbitzu Aurreratuetan Berrikuntza kooperatibako zuzendari nagusiak, zera zioen erakusketaren aurkezpenean: "Gazte langabeen kopurua oso handia da gaur egun eta, horren irtenbide modura, Europar Batasunetik, hainbat gobernutako agintarien ahotik, entzun dugu gazteak kanpora formatzera joatea ona dela. Guk uste dugu beste aukera batzuk ere badaudela; esaterako, gazteen artean ekintzailetza sustatzea".

Hala, unibertsitatetik laguntzen zaie ikasleei finantzazioa lortzen eskolan landutako proiektuak gauzatu ahal izateko; edo unibertsitatetik ateratzen direnean, baita Saiolanen bidez ere.

Zentzu honetan, eguaztenean Arrasateko Kulturaten egindako irekiera ekitaldian hitza hartu zuen Joseba Nogalesek, Naian Software enpresako kideak, duela lau urte ekimenean parte hartu zuen gazteak. Azaldu zuen, besteak beste, zela 2011n abiatu zuten proiektuak oraindik bizirik dirauen: ideia hartatik enpresa bat sortu zuten eta oraindik bertan jarraitzen dute lanean hark eta jatorrizko taldeko beste kide batek.

# Brasildik etorri dira hemengo garapen bideak ezagutzeko

**E.A.** | ARRASATE

Bertako garapen agentziek egiten duten lana gertutik ezagutzeko aukera izan du Brasildik etorritako ordezkaritza batek. Hain justu ere, Cantuquiriguaçuko eskualdeko erakunde publiko eta pribatuak batzen dituen elkarteko ordezkariek. Hamasei lagun, guztira. Cantuquiriguaçuko eskualdearen hazkunde jasangarriaren sustapenerako elkarteko kideak. Nekazaritza ekoizpena, abere zainketa, zuraren industria eta natura-turismoa dira eskualde horretako ekonomiaren arlo nagusiak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Bazkundeak eta Garapenek –eskualdez eskualdekako garapen agentzia– duten akordioaren parte da bisita hori. Gipuzkoako enpresei nazioarteko prozesuan laguntza eskaintzeko sinatu duten hitzarmenaren testuinguruan kokatzen da.

Helburua da "Euskal Herriko tokiko garapen eredua ezagutaraztea", baita agentzien papera ere. Horrela, "ikuspegi zabalagoa" izan dezaten, eta lehen eskutik ezagutzeko hainbat ordezkarik etorkizunean lankidetzan nola egin dezaketen lan lurraldearentzat eta euren errealitatearentzat onuragarriak izango diren proiektuetan.

Eguaztenean Debagoienean izan ziren. Mondragoneko kooperatiben eredua eta Mankomunitateko Garapen Agentzia ezagutu zuten. Baita Aretxabaletako Etxebarri baserria eta Mendiolako (Eskoriatza) Areanoko baserri turismoa ere. Gehien harritu ditu hemengo teknologia eta antolaketak, "hain pertsona gutxirekin gauza asko" egiteak.

# Euskara ikasteko "pizgarriak" eta erraztasunak udal euskaltegietan

**GOIATZ ARANA** | ARETXABALETA

*Euskarak batzen gaitu* leloa aukeratu dute Debagoieneko udal euskaltegiek ikasturte berrirako eskaintza aurkezteko. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara eta Oñatin daude udal euskaltegiak. Eskaintza zabala dute, aurrez aurreko saioak eta auto-ikaskuntza batzen dituena: EGA ikastaroak, alfabetatzekoak, etorkinei zuzendutakoak, merkataritzan eta ostalaritzan dihardutenei bideratutakoak, guraso taldeak… Oraingoan, badute berrikuntza bat, euskara ikasteko prozesuan abiatzen den ikaslearentzat "pizgarri interesgarria" izango dena: HABEko A1 eta A2 mailak egiaztatzeko aukera izango da.

Izan ere, udal euskaltegietako arduradunek azaldu dutenez, gero eta gehiago, jendeak titulua ateratzeari begiratzen dio, euskara ikasteko motibazioa instrumentala dela, nagusiki, gaur egun, eta, horregatik, HABEko mailek osatzen dutela euren eskaintza nagusia. Ia segurutzat jo daiteke, gainera, egiaztatze prozesu horiek euskaltegian bertan egingo direla, hiriburuetara joateko beharrik izan gabe, baita B1 mailakoa ere.

Euskara ikastearen garrantzia ez ezik, erabiltzearena azpimarratu dute, eta aurten ere mintza taldeak osatzeko ahalegina egingo dutela gaineratu.

Datuei dagokienez, azken hiru ikasturteetan ez da gorabeherarik izan: 70 talde inguru izan dituzte, eta 800 ikasletik gertu.

### Ordaintzeko erraztasunak

Euskara ikasteko erraztasunak emate aldera neurriak ere hartu dituzte udaletan. Eskoriatzan, adibidez, ordaindutakoaren %100 berreskuratzeko aukera dute ikasleek; eta Oñatin, aurreko kurtsoan beka lortu zuten ikasleek ordaindu zuten matrikularen %25 jasoko dute, berriz matrikulatuz gero. 25era arte eman daiteke izena.


Goiena Klubeko iraileko zozketak

**Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!**




**LG telebista 32 hazbetekoa**
Parte hartzeko sariaren izena: Telebista




**DVD-a**
**Peter Pan musikala**
Parte hartzeko sariaren izena: PeterPan




**Liburua**
**Gerardo Markuletaren azken liburua**
Parte hartzeko sariaren izena: Liburua




**Jokoak**
**Ardibidez eta Kirolaz Badakit jokoak**
Parte hartzeko sariaren izena: Jokoak




**Otarra**
**Bidezko merkataritzako produktuak**
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra




ARRIKRUTZ oñatiko kobak

**Sarrerak**
**Arrikrutz kobetarako sarrerak**
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

PARTE HARTZEKO:
**Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.eus
**WhatsApp:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
**SMS:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubideaizango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

**Melita Imamovitx** | Bosniako errefuxiatua Eskoriatzan, 1992tik 1996ra

# "Laguntzeaz gain, gerra gerarazteko moduren bat aurkitu behar da"

- Orain dela 23 urteko gerratik ihesi, Eskoriatzan bizi izan zen Imamovitx
- Lauzpabost urtean behin etortzen da "lagunik onenak" dituenak bisitatzera

**UBANE MADERA** | ESKORIATZA

Melita Imamovitx sarajevoarrak Eskoriatzan aurkitu zuen babesa 1992. urtean, beraren eta bere seme-alaben bizitza salbatzeko jaioterria zuen Bosniatik ihes egin behar izan zuenean. Errefuxiatuta egon zen San Viator Harrera Etxean –gaur egun Huheziren Eskoriatzako fakultatea dena–, Bosniako beste bost familiarekin –19 lagun–, 1996ra arte. Berari eta orain siriarrei gertatutakoa edonori gerta dakiokeela esan, eta laguntasuna eman beharra dagoela azpimarratu du.



Melita Imamovitx, Huheziko fakultatean, eraikinaren aldaketak ikusten. | U.M.

**Zer eragiten dio errefuxiatu bati Europaren orain arteko erreakzioak?**

Etxe barik geratzen zarenean, norbaiten babesa, laguntasuna eta harrera behar duzu. Nire kasuan, etxetik irten eta berehala Mazedonian hartu ninduten; baina epe motzerako izan zen, hiru hilabeteko hiru egonaldi egin nituen hiru familiatan, eta erabaki nuen handik ere mugitu egin behar nuela. Ez nengoen egonkor eta ezin nuen etorkizuneko planik egin, seme-alabak ezin ziren eskolara joan… Hona etortzean, babestuta sentitu nintzen, ezer txarrik ezin zitzaidala gertatu sentitu nuen. Ezin dut irudikatu nire burua errefuxiatu talde batean, kalean, mendian, noraezean, inork nahi ezta, animaliak moduan… Pertsonak gara, eta edozeini gerta dakioke halako zerbait. Inork ez du bere etxea utziko ondo badago, hau da, seguru badago; ez aberatsa delako, baizik eta bizitzeko oinarrizko baldintzak baditu. Ni, gerra aurretik, oso ondo nengoen nire herrian. Ihes egin banuen ez zen izan bizitza aldatu gura nuelako, edo neukana baino gehiago nahi nuelako, baizik eta nire bizia eta nire seme-alabena salbatu gura nuelako. Inork ez du gustuz edo kapritxoz alde egiten, bizia salbatzeko egiten dute. Jende asko da eta oso zaila da guztiei laguntzeko modua aurkitzea, baina…

**Eta gerrekiko jokabidea ere…**

Gai politikoa da. Eta ez zait politikan sartzea gustatzen. Baina uste dut ez dela garrantzitsua gerraren ondorioak bakarrik konpontzea, baizik eta gerraren arrazoiak ere konpondu egin behar direla. Ahal bada, gerarazi. Ez dakit zela, horregatik ez nago politikan sartuta, baina moduren bat egon beharko luke halakoak gerarazteko. Gainera, horrelako gerrek eragina dute mundu guztiarengan, ez bakarrik inguru haietan bizi direnengan. Lagundu egin behar zaio jendeari, baina, era berean, gerrak gerarazteko moduren bat aurkitu behar da.

> **"Hona etortzean, sentitu nuen ezer txarrik ezin zitzaidala gertatu"**

**Zuen esperientzia zelakoa izan zen?**

Herriak hartu gintuen, baina gobernuaren babesarekin. Paperak eman zizkiguten, sartzeko baimena, osasunerako babesa, lanerakoa… Eta Eskoriatzara etorri ginenok herritarrek hartu gintuzten. Hamar bat laguneko talde bat zegoen behar genuen guztia lortzen: dirua, jantziak, elikagaiak… umeak eskolara joaten ziren… Astero batzar bat izaten genuen eta bakoitzak behar genuena esan eta hurrengo egunean ja bagenuen. Oso ondo hartu gintuzten. Ez zen logela bat, janaria… izatea. Jendea egunero etortzen zen, yoga, aerobika… egiten genuen, abesbatzara joaten ginen, gaztelania erakutsi ziguten… Dena hemengo jendeak eman zigun. Gurekin egunero egoten. Asko lagundu ziguten. Halako egoera zailetan pozik egon badaiteke, benetan, orduan gu pozik bizi ginen.

**Horren adibide, etortzen segitzen duzu…**

Bai. Lauzpabost urtean behin bisitan nator, lagunak bisitatzera. Lagunik onenak hemen ditut, ez Bosnian. Benetan. Hemen geratzea ere pentsatu nuen; hemen ondo nengoen, lan finkoa nuen lankide oso-oso onekin… eta bueltatzea asko kostatu zitzaidan, hemen 3-4 urte bizi eta gero, bizitza berriro ere hasi beharra, han guztia zegoen apurtuta… Baina gurasoek Bosnian gura zuten hil, eurekin bueltatu nintzen, eta ez naiz damutzen. Ezagutzen ditut hona etorri eta hemen geratu direnak, hemen oso ondo daudelako. Baina, hori bai, guztiek dute herrimina eta gura dute Bosniara bueltatu. Guztiek diote: "Erretiratzen naizenean Bosniara bueltatuko naiz". Nik uste dut mundu guztiak gura duela jaio zen herrira bueltatu. Siriar guztiak bertan geratuko diren beldur da Europa, baina nik uste dut jaioterrian bakea badute, bueltatu egingo direla. Etortzen direnekin lotuta, berriz, haiei eman ahal zaien laguntzarik onena da norbaiti lana aurkitzen laguntzea. Badakit gaur egun ez dagoela denondako lanik, baina egoten dira inork egin nahi ez dituen lanak: garbiketak, nagusiak zaindu… Lagundu egin behar da. Edonori toka dakioke. Inor ez dago betiko salbu. Izan ere, sekula ez dakizu zeini lagunduko diozun eta zeinek lagunduko dizun.



Imamovitx —ezkerretik lehena—, Bosniatik etorritako batzuekin, 1992an. | ARRASATE PRESS

## "Euskal Herriko talde eta aldarrikapen feminista nagusiak biltzen dituen euskarazko lehen liburua" aurkeztuko dute

Emagin elkarteak eta Euskal Herriko Bilgune Feministak elkarlanean landutako *Gure genealogia feministak* liburua aurkeztuko dute datorren eguenean, irailaren 24an, Oñatiko Antixeneko gaztetxean. "Emakumeen eta feministen ekarpenak argira ekarri nahi dituen proiektua da" hori. Miren Arangurenek eta Edurne Epeldek aurkeztuko dute liburua, 19:00etan.

## Gaur zortzi (barikua) iluntzean inauguratuko dute Laboratorium gizarte museoa Bergaran

"Laboratorium ez da soilik iraganeko bilduma baliotsuak erakutsiko dituen museoa izango. Jardueraren ardatz nagusiak izango dira diziplina aniztasuna eta gizartea baldintzatzen duten gaien inguruko hausnarketa, bere garaian Errege Seminarioak egin zuen bezalaxe". Horrela aurkeztu dute irailaren 25ean 19:30ean inauguratuko duten museoa, Bergarako Errekalde jauregian dagoena.

## Enpresaren salmentak eta kudeaketa komertzialaren prozesua hobetzen laguntzeko formazio eskaintza

Debagoieneko Mankomunitatearen eskutik, irailaren 25ean hasi eta abenduan bukatuko den formazioa emango dute Arrasaten. Bost saio izango dira guztira, bost ordukoak, 08:30etik 13:30era bitartekoak. Informazioa eskatzeko edo izena emateko: 943 79 30 90 edo *enpresa@debagoiena.eus*. Plazak mugatuak dira, eta ikasleen aukeraketa izen-ematean oinarrituko da.

## Mondragon da Hego Euskal Herriko eta Espainiako laugarren enplegatzaile handiena

Mondragon Korporazioa da Hego Euskal Herrian eta Espainian langile gehien dituen laugarren enpresa, eta burtsan kotizatzen ez dutenen artean hirugarrena. Hain zuzen, 60.000 langile baino gehiago dauzka. Munduan, 36. postuan dago langile kopuruaren arabera. Bestalde, korporaziotik kanpo sartu dute zerrendan Eroski, eta hori hamaikagarren postuan dago.



IMANOL BELOKI

## Ibilgailu garbiak bultzatzen

Mugikortasun Astean murgilduta, adibidez, kutsakorrak ez diren ibilgailuen erabilera areagotzeko ekimenak landu dituzte eta landuko dituzte Debagoieneko udalerri askotan; asteburuan, esaterako, bizikleta azokak daude Arrasaten, eta Eskoriatzan eta Aretxabaletan eguaztenean. Argazkiko ekimena da horren adibide: Eskoriatzatik Almenerako joan-etorria bizikletaz edo patinetez egin du ikasle taldeak.

**Pabiloia saltzen da Oñatin**

- Zatigarria den 300 m2-ko beheko solairua, malgukiak dituen bi aterekin. Erdigunean.
- 80 m2-ko bulegoa goiko solairuan, sarrera independentearekin. Klimatizatua.
- 40 m2-ko tarteko solairua.

618 47 14 82

JOLASTU ETA IRABAZI
GORBEIAKO
ERRULETAN

3.500€
EROSKETA-TXARTELETAN ETA
2.000
ZUZENEKO SARI

centrocomercialgorbeia.com

Parte hartu nahi izanez gero, Gorbeia Merkataritza Guneko edozein establezimendutan erosketa bat egin behar da.

Eskaintza hau indarrean izango da 2015eko
irailaren 18tik urriaren 17ra arte

GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

Oinarri guztiak hemen
www.centrocomercialgorbeia.com

## GUTUNAK

### Elektrosentsibilitatea

**Josu Garitaonandia**
(Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoaren arduraduna)
Bergara

Gero eta erradiazio gehiagoz gaude inguratuta: argindar lineak, mugikorren antenak, wifia… munduan apenas dago txokorik erradiazio artifizialetatik salbu.

Denok, denbora osoan eta toki guztietan, jasaten ari gara osasun arazoak ekar ditzaketen erradiazioak, buruko minetik hasi eta minbiziraino.

Gaixotasun horrek alergiak bezala jarduten du; pertsona batzuei gehiago eragiten die erradiazioak, eta sintomak beste gaixotasun batzuen antzekoak dira; sendagileek oraindik ez daukate nahiko prestakuntzarik elektrosentsibilitate gaixotasuna antzemateko. Pentsa, Osasunaren Mundu Erakundeak (OMS) 2011n talde bat ipini zuen gai hori aztertzeko; oso berandu ikusi zuten zientzialariek denbora luzea daramatela gai hori salatzen.

Gure esku dagoena da etxeetan, ahal den neurrian, hari gabekorik, mugikorrik, wifirik… ez izatea, ez dugunean behar itzaltzea eta, batez ere, gure logelan ez izatea; eta, kontzientzia hartzen dugun neurrian, agintariak presionatzea antena gutxiago eta zuhaitz gehiago jar ditzaten gure inguruan.

### Errefuxiatuak gerra inperialistetatik ihes egiten: sozialismoa edo basakeria

**Ibon Artola**
('Euskal Herria Sozialista' aldizkariaren izenean)
Debagoiena

Errefuxiatuen sufrimendu latza erakusten duten irudi gogorrak ikusi ditugu. Hau da kapitalismoaren benetako aurpegia. Milaka ari dira hiltzen itsasoan eta beren herritik alde egiteko hartu duten bidean. Bizirik jarraitu dutenek, berriz, Europa kapitalistaren hesiekin eta errepresioarekin egin dute talka. Ekialde Hurbila edo Afrika zapaldu eta gerra inperialistak bultzatzen dituen burgesia europarrak bere mespretxua adierazi du "etorkin ilegalez", "kupoez" eta "legea errespetatzeaz" hitz egitean. Demokraziaz ahoa betetzen zaion burgesia europarrak ez du arazorik izan errefuxiatuen herrialdeetako diktadurak babesteko eta hauek milioika herritar hil dituztenean beste alde batera begiratzeko.

Komunikabide handiek "mafia trafikatzaileez" hitz egiten dute basakeria honen atzean dauden benetako arrazoiak ezkutatzeko. Baina krisi honen atzean lehengaiak, bide komertzialak edo gune geoestrategikoak kontrolatzeko helburuarekin potentzia ezberdinek (eta hauei lotutako multinazionalek) antolatutako interbentzio inperialistak daude.

Orain Europako Batzordeak 160.000 errefuxiatu hartzeko egindako proposamena demagogia hutsa besterik ez da. Hori eginda ere, nolako konponbide mota da hau Batzordeak berak dagoeneko 500.000 iritsi direla onartzen duenean eta etorkizunean gehiago etorriko direla kontuan hartuta? Bost axola Europako gobernuei ehunka mila errefuxiatuei gerta dakiekeena. Hala ere, zer espero daiteke kapital handiaren aginduetara dauden ordezkariengandik?

Noizean behin demagogia erabiliz elkartasunaz eta giza eskubideez hitz egiten duten arren, Europako gobernuen benetako plana errefuxiatuak beren herrialdeetara ez iristea da eta heltzea lortzen dutenak kontzentrazio esparruetan (baldintza miserableetan) pilatzea eta ahal bezain pronto kanporatzea. Oraingoz zazpi gune hesitu daude edo ari dira eraikitzen.

Alemaniara heltzea da errefuxiatu gehienen helburu nagusietakoa. Baina hemen ere gerra guneetako antzeko kanpamentuetan pilatzen dituzte oso baldintza kaxkarretan. Aldi berean, Angela Merkelen gobernua zentro hauetarako laguntzak mugatzen ari da errefuxiatuen bizi baldintzak gero eta gehiago okertuz. Honekin batera, deportazioen kopurua handitzen ari da, eta aurten errekorrak hautsiko ditu gobernu alemaniarrak eginkizun honetan.

Merkelen adierazpen hipokritetatik harago, erabateko permisibitatea dago Alemanian ere talde neonazien eraso arrazistekin, errefuxiatuen aurka klase politikoa egiten ari den adierazpenek bultzatuta. Hau guztia estrategia bati lotuta dago: Alemaniara iristeko helburua duten errefuxiatuak uxatzea eta, aldi berean, Italiak eta Greziak lan zikina egitea beren lurraldeetan Ekialde Hurbiletik datozenei bidea ixten.

Ez, noski, arazo honek ez du benetako konponbiderik gaur egun dugun sistema ekonomiko eta politikoan, kapitalismopean. Sistemaren krisiak tentsio interinperialistak areagotu besterik ez ditu egiten eta honen ondorioak ezagutzen ditugu: gero eta gerra eta gatazka gehiago pobrezian eta miserian erortzen diren herrialdeetan. Arrazoi zuen Rosa Luxemburgok "sozialismoa edo basakeria" aldarrikapena egin zuenean. Kapitalismoak jarraitzen duen bitartean gerrak, pobrezia, langabezia eta sufrimendua ez dira amaituko. Sozialismoa da gizateriaren oinarrizko arazoentzako alternatiba bakarra.

### Arrasateko Trikitixa Eskolaren partetik, eskerrik asko!

**Esther Learreta**
(Arrasateko Trikitixa Eskolako batzordearen izenean)
Arrasate

Iraillaren 11n, Arrasateko Trikitixa Eskola plazara atara zan. Ate irekixen ekitaldi alai bat egittie zan asmue, eta horixe da, benetan, lortu zana.

Arratsaldie prestaketan uda aurretik ekin gitzen, gogotsu hasi be, eta erantzune neurrikue izan zan; izen be, Arrasateko plazan egon zan girue paregabie izen zan.

Eskerrik asko hau guztiau aurrera eruen ahal izeteko emun deuskuzuen laguntziagaittik.

Ez geunke iñor ahaztu gura; hortaz, hartu gure eskerrik beruenek gure inguruen ibili zarien guztixok: Arrasateko Udala, haragitegixek, tabernak, artisaue, pulpeirue, epaimahaiko kidiek, gurasuek, irakasle eta ikasliek, komunikabidiek… eta, zelan ez, ekintzetan parte hartu zeuien danok.

Eskerrik asko, bihotzez!

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00



## ZABALIK



**RESU ABASOLO**
goiena.eus/komunitatea/

# Heziketa madarikatua!

Uda amaitzear dago eta ikasturte berria hasi da. Komunikabideetan ez dira falta artikuluak, mahai-inguruak eta gomendioak ikasturte berri bakoitzak dakarrenaz luze dihardutenak datuetan oinarrituta. Izan ere, urtero errepikatzen den jarduna da. Gehien azpimarratzen diren gaiek ekonomiari eta azaleko aldaketei egiten diete erreferentzia: testuliburuek balio dutena, lege bakoitzarekin liburuak aldatzeak areagotzen duena, gainera, jantzietan familia bakoitzak gastatzen duena, tableta erabiltzeak ekarriko duena, jantokietan izango den haur kopurua, eskola-orduz kanpoko aukeren murrizketa... Eta ia ez dira inoiz aipatzen heziketak dituen benetako balioak: kultura jasotzeko, lagunak egiteko edota elkartasuna lantzekoak, besteak beste.

**Inoiz ez dira aipatzen benetako balioak: kultura jasotzeko, lagunak egiteko...**

Nola sentituko da eskolara joateagatik familia arruinatuko duela uste duen haurra? Heziketa madarikatua!

Nondik eta nortzuengandik datoz arazo latzenak? Genero indarkeriatik datozenak? Drogaren eta alkoholaren eraginez bide-hezkuntza ezagatik sortutako garraio eta istripu latzak? Gerrak?… Derrigorrezko Hezkuntzako ikasleengandik ez! Honen guztiaren aurrean zein da agintarien okurrentzia? Bata, arazoak sortu ez dituztenei arlo espezifiko gehiago ezartzea –Bide hezkuntza, Berdintasuna, Drogamenpekotasuna…– %25ek indarrean dagoen curriculumaren helburuak lortu barik eskola uzten dutenean; eta bestea, pertsonen balioa master kopuruei neurriz kanpoko garrantzia emanaz neurtzea.

Eta noiz ukituko dira langileek, herritarrek eta, oro har, familiek heziketa balioak lantzeko dauzkaten benetako curriculumak? Eta agintarienak?

Etxean, eskolan, auzoan, herrian, inguruan eta mundu zabalean gertatzen dena ikusita, zenbat herri-agintari dira Eskoletako Organo Gorenetara etorkizunerako herri hezitzaileagoa izateko erabakiak hartzera doazenak?

Inoiz baino zentzu handiagoa dauka heziketak.

## USTEAK USTE

**MONIKA BELASTEGI** | mbelastegi@goiena.eus

# Emakumeak protagonista

Urriaren 2an helduko da Debagoienera Emakumeen Mundu Martxa, eta ibarreko lantaldeak egitarau zabala prestatu du. Aukera paregabea izango da emakumeok bizi dugun egoeraren berri bertatik bertara izateko. Halako salaketa eta sentsibilizazio kanpainak ezinbestekoak dira emakumeen kontrako indarkeria mota ezberdinei aurre egiteko. Eta bide horretan, emakumeoz gain, gizarteko gainontzeko eragile eta norbanakoen parte-hartzea ezinbestekoa da, gaur bizi dugun egoera desorekatuari buelta eman nahi badiogu. Emakumezkoen aurkako indarkeria behingoz amaitzeko bidean, ongi etorri gurera, Emakumeen Mundu Martxa.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | goiena.eus/komunitatea/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Hiperzuzentasunaz

**Eneko Gorri**
http://goo.gl/kbx8S8

Euskara ama hizkuntza duen lagun on-on batek, frantsesez hitz egitean, femeninoa eta maskulinoa nahasten ditu. Publikoki gertatzen zaion aldi oro, irriz hasi eta imitatzen hasten gira. Nago lagun arteko trufa adeitsua izan daitekeen horrek beste zerbait gordetzen ez ote duen.

Frantsesa hizkuntza konplexua da. Munduko 6.500 hizkuntzei konparatuta, gehiago edo gutxiago den ez dakit. Eta ez da hori galdera. Logikaz kanpoko ortografia arautua eta hizkera mailakatua izateak berezitasun bat ematen diola uste dut. Hizkera mailakatua... Kolegioan, frantses literatura lantzen hasi ginelarik, hiru erregistro desberdintzen ikasi genuen: lagunartekoa *(familier)*, usaiakoa *(courant)*, jasoa *(soutenu)*. Argotikoa *(populaire)* eta gorena *(sublime)* ere existitzen dira, aski ez balitz bezala, hierarkia ozka batez azkartzeko. Funtsean, hizkerak/eleak sailkatzea ariketa zientifikoa baldin bada, zergatik ez?! Salbu horrek hiztunen bereizketa soziala dakarrela. Hori da grina.

Eliteek mespretxatzen dute hiri inguruetako auzoetako gazteen hizkera, gurasoek mesfidantzaz ikusten beren nerabeena, eta hiritarrek burlaz laborariena. Segolène Royale lehendakarigaiak, Txinako harresian egindako elkarrizketa batean izenondo bat gaizki deklinatzeagatik, burla biltzen segitzen du... 2007. urteaz geroztik (ingurune matxista batean emazte izateak dakarren anplifikazioarekin, erran gabe doa). Hori guzia atzerriko hizkuntzen irakaspen eta praktikan txar-txarra den herri batean gertatzen da, oroz gainetik.

Hizkuntzek funtzio desberdinak betetzen dituzte. Horien artean, garrantzitsuena, lur huntako biztanleak harremanetan ematen gaituena, garen herritarrak batzen gaituena eta elkar aditzea ahalbidetzen duena, funtzio komunikatiboa da. Bereizi baino gehiago, hizkuntza batek batzen gaituelako.

Gurera ekarrita, *euskaldun berri* eta *hizkuntzaren hiper-zuzentasun* kontzeptuei buruz galdekatzera narama. Galdera asko... gaurkoan erantzunik ez.

# Galdeketa

**Anjel Lertxundi**
http://goo.gl/ZkpWXb

Zurean ala nirean? Elkarrekin ala bakoitza bere aldetik? Dirua kutxa bakarrean, ala nork berea bere patrikan? Zer ikusiko dugu, zein hizkuntzatan, zer jango dugu afaritan, nik jarriko dut ardoa ala zuk? Niri hau, hura eta hala gustatzen zaizkit, eta bat ez bazatoz zer egingo diot nik?, ni izan naiz beti amore eman duena, zu izan behar izan dut nik orain arte; nik zuk bezala pentsatzea, sentitzea, hitz egitea bilatu duzu, baina nik ni izan nahi dut, zuk Guadarramako zerua ikusi nahi duzu, nik Montserratekoa, bai, badakit, zeru bera ikusten da batetik zein bestetik, baina zuk zure etxetik nahi duzu, nik neuretik.

Berandutzen ari da eta banoa ilundu baino lehen, moldatuko naiz bakarrik, ez kezkatu. Eztabaida dezagun, ez duzu nahi. Bozka dezagun, ez duzu nahi. Banoa, bai. Tranpa egiten nabilela diozu, baina kartak eta jokoaren arauak zureak direlako da, zuk bakarrik daukazu etxeko giltza, zuk jarritakoa da atezaina ere...

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.850 ale
**Difusioa:** 18.507 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

## DUELA 10 URTE

2005-09-23

### Herriko azpiegiturak berritzen

Orain dela hamar urteko irailaren 18an hasi zen Leintz Gatzagako Udala udalerriko hoditeria berritzen. Hain justu, urarendako, gasarendako eta saneamendurako hodi berriak sartu eta ur-hargune berriak jarri zituzten. Lanok aprobetxatuta, goialdeko errepide zatia zabaldu egin zuten, eta autobus geltokia ipini. Zailtasun handiko lanak izan ziren eta 200.000 euro pasako aurrekontua izan zituzten.



Hondeamakina lanean. | XABIER URZELAI

2005-09-23

### Leintz Gatzaga, "jokoz kanpo"

Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea baliatu zuten gatzagarrek salatzeko udalerriko garraio publikorik eza. "Garraio ezaren egoerak kezka eta haserrea eragiten digu. Gatzagako 200 bizilagun –gazteak, erretiratuak...– garraiobide barik bizi gara, eta ezin dugu ulertu XXI. mendean gauza askotan eredu den ibarrak herri bat horrelako egoeran edukitzea. Arduradun guztiei: Noiz arte jokoz kanpo?", galdetu zuten.

## DUELA 5 URTE

2010-09-20

### Gatzagako Igoera, berriro

22 urteren ostean, Gatzagako Igoera egin zuten atzera ere. 50 pilotu lehiatu ziren 2010ean. Bide bazterrak, 70eko eta 80ko hamarkadetan moduan, jendez bete ziren. 1971n egin zuten lehen aldiz lasterketa, eta ikusleak Castañaresko zubiaren inguruan jartzen ziren, lehenago zegoen sestra aldaketan autoak hegan irteten zirelako.

## HERRITARRAK

LEINTZ GATZAGA

**Marcelo Gallo** Beste kontinente bateko lehenengoetako etorkina da Gatzagan; izan ere, urte mordoxka daramatza herrian eta bizilagunekin harreman bikaina dauka betidanik. | ANDER LARRAÑAGA

# "Oso pozik nago Leintz Gatzaga aukeratu izanaz bizi izateko"

Ekuadortik etorri zen Leintz Gatzagara duela hamahiru urte Edgar Marcelo Gallo (1981), edo *Martxelo*, herriko askok deitzen dioten moduan. Chanchalo izeneko barnealdeko herrixka txiki baten jaio zen eta Euskal Herrira etorri zen sukaldari lanetan jardutera. Herrian guztiek ezagutzen dute, beste kontinente bateko lehenengoetako etorkina da-eta Gatzagan.



Marcelo Gallo, Leintz Gatzagako Santiago kalean. | ANDER LARRAÑAGA

**Herri txiki batetik beste herri txiki batera...**

Bai; kasualitatez izan zen; 20 urterekin etorri nintzen Euskal Herrira. Angiozarren hasi nintzen lanean, jatetxe batean, eta han bi urte egon nintzen. Ostean, Gatzagara etorri nintzen beste jatetxe batera, eta ordutik hona hemen bizi naiz.

**Nola hartu zaitu Leintz Gatzagako herriak?**

Oso ondo hartu nau. Ederto integratu naiz eta herritarrekin oso harreman ona daukat. Horretaz gainera, saiatzen naiz herrian antolatzen diren ekintzetan parte hartzen, ahal dudan heinean, behintzat.

**Zer desberdintasun dago Chanchaloren eta Gatzagaren artean?**

Oso desberdinak dira. Ni baserri batetik nator eta han nekazaritzan lan egiten nuen gurasoekin; hemen, berriz, ostalaritzan egiten dut lan. Hori izan da aldaketa nagusia, bizitza estiloa guztiz desberdina da. Bestalde, paisaia ere oso desberdina da: mendi ugari daude hemen. Ni natorren lekuan dena laua da.

**Zaila da kanpotar batendako hemengo bizimodura ohitzea?**

Apur bat kosta egiten da, baina, nire kasuan, ez da konplikatuegia izan. Hasieran, 20 urteko gazte batendako, inor ezagutzen ez duen leku berri batean zaila egiten da, baina berehala ohitu nintzen. Gehien kostatu zitzaidana hemengo klima hotzera ohitzea izan zen. Ordutegira ere bai. Han ordutegi bera dugu urte osoan eta klima ere urte osoan oso antzekoa da.

> **"Gehien kostatu zitzaidana hemengo klima hotzera ohitzea izan zen"**

> **"Niretako, euskal gastronomia bezalakorik ez dago inon"**

**Gatzagatik edo Debagoienetik liluratzen zaituena?**

Orokorrean, Euskal Herri osotik gustatzen zaidana paisaia da. Bizi izan dudan esperientzia politenetakoa elurra lehenengoz ikusi nuenekoa izan zen. Hondartza ere ez nuen ikusita, ni barnealdekoa naiz-eta; hondartzak pelikuletan bakarrik ikusiak nituen.

**Bueltatzeko asmorik?**

Bai; etorkizunean, Chanchalon ikusten dut nire burua.

**Zein zaletasun duzu?**

Lagunekin mendira joan, frontenisean ibili... Frontoia lehenengoz hemen, Euskal Herrian, ezagutu dut, eta asko gustatzen zait.

**Nola definituko zenuke Leintz Gatzaga?**

Herri txikia eta polita da. Nik uste dut zailago egingo litzaidakeela herri handi batera ohitzea; herri txiki batean guztiok ezagutzen dugu elkar eta harremanak samurrago gauzatzen dira. Oso pozik nago Leintz Gatzaga aukeratu izanaz bizi izateko.

**Zein da Leintz Gatzagako egutegian urteko egunik maitatu ena? Eta Chanchalon?**

Abenduaren 24a, duda barik. Guztiok joaten gara baserriz baserri Gabon kantak abestera, eta oso polita da. Chanchalon, aldiz, hildakoen eguna [azaroak 2] eta Pazkoetako domeka. Bi egun horietan, familia osoa batzen gara bazkaria egiteko: oso data bereziak dira guretako.

**Han ere, euskara bezala, hizkuntza minorizatu bat duzue, ezta?**

Ni bizi naizen zonan kitxua hitz egiten da, baina orain ia desagertuta dago. Nire gurasoek, adibidez, badakite hitz egiten baina ez digute inoiz erakutsi; horregatik, galtzen joan da. Nire aitaita-amamek, esaterako, hitz egiten dute, eta hitz egiten ziguten anai-arrebei eta niri. Lehen, ulertu egiten nuen, baina, hitz egiten oso txarra nintzen. Pena handia ematen dit ikasi ez izanak; oso hizkuntza polita da eta gustatuko litzaidake ondorengo belaunaldietakoei erakustea.

**Sukaldaria zara gaur egun. Nongo gastronomia nahiago?**

Niretako, euskal gastronomia bezalakorik ez dago inon. Euskal Herrira etorri nintzenean ez nekien sukaldean ibiltzen; beraz, hemen ikasi dut dakidan guztia. Ekuadorko nire zonan lapikokoak nagusitzen dira. Hemen, berriz, asko aldatzen da. Esaterako, han ez dugu apenas arrainik jaten. Barnealdean, gainera, errekako arrainak baino ez daude: amuarraina, esaterako, da gehien da jaten den arraina.

## NIRE HERRIAN

**:) PAISAIAK ETA LASAITASUNA**

Hemen, Leintz Gatzagan, ditugun parajeak ezin dira diruarekin ordaindu. Maite ditut paisaia berdeak eta mendiak; naturaz gozatzeko aukera paregabea eskaintzen du herriak, eta, gainera, lasaitasun osoz bizi gara hemen. Eta hori asko eskertzen dut nik; ezin izango nintzateke herri handi batean bizi.

**:( HOTZ HANDIEGIA EGITEN DU**

Urte mordoxka daramatzat Euskal Herrian, baina hemengo eguraldira ez naizela inoiz guztiz ohituko iruditzen zait: hemen hotza barru-barruraino sartzen da. Gainera, neguan, hotzaz gain, elur asko egiten du Gatzagan. Atsegin dut elurra, baina, agian, gehiegizkoa da hemengoa. Herritik irten ezinik ibili ohi gara.

# HERRIAK

ARETXABALETA

# Euren neurriko astea antolatu dute Basotxoko erretiratuek

- Herentzien gaineko hitzaldia, gazta dastatzea eta beste batzuk izango dituzte
- Kantuekin beteko dute herria hilaren 26an eta elkarte arteko doke txapelketa jokatu 27an

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Irteerak eta hitzaldiak; kantuak eta dantzak. Horiek eta gehiago izango dituzte Aretxabaletako erretiratuek gaur hasi eta hurrengo domekara bitartean. Hirugarrenez antolatu dute Basotxo erretiratuen elkarteko kideek Kultura Astea, eta San Migel jaien inguruan ekintza mordoa eta era askotakoak izango dituzte.

**Aisialdia eta intereseko gaiak**

Erretiratuen gogoak, gustuak eta nahiak asetzen ahalegindu dira Basotxoko zuzendaritza batzordeko kideak, eta egitarau osatua zehaztu dute. Kultura Astea hasteko, Iparraldera joan dira gaur. "120 lagun goaz, bi autobus beteta, eta Larhun mendiko trena geuretako bakarrik hartu behar izan dugu", jakinarazi du elkarteko presidente Jose Inazio Isasmedik, harrituta.

Bihar, ostera, Errekabarren kaleko egoitzan bertan elkartuko dira, dantzan egin eta txokolatea hartzeko. "Etxekoek, Quintanilla anaiek girotuko digute aretoa, eta umore ona eta dantzarako lekua gura beste izango ditugu", dio Isasmendik, erretiratu guztiak gonbidatu nahian.

Bestalde, aisialdi kontuak intereseko gaiekin elkartu dituzte egitarauan, eta datorren asterako hitzaldi bi daude zehaztuta. Martitzenean, Idiazabal jatorriko gazta dastatzea egingo dute, eta azalpenak emango dizkie Felix Ajuria artzain eta gaztagileak. Eta eguenean herentzien gainean jardungo du Zenbaki aholkularitza enpresako Naiara Mendibil abokatuak. "Lehen saioa orain hilabete batzuk egin genuen, eta orduan ezin sartu geratu ziren bazkide asko, interes handia sortu zuelako gaiak. Izan ere, gu adinean aurrera goaz eta gai hauek argitzea gura izaten dugu", adierazi du Isasmendik.

**'Katuz kalean' bigarrenez**

Kultura Astean ezin falta kultura ekitaldiak. Hala, eguaztenean Oñatiko Pake Lekuko erretiratuek sortutako Ikusi Makusi taldeak *Novedades en Villa Titiritaina* antzezlana eskainiko die.

Eta hilaren 26an, sanmigel zapatua, Basotxoko kantu taldea izango da protagonista, beste hainbat kantu talderekin batera. *Kantuz kalean* izenarekin herriko bazterrak girotuko dituzte kantu herrikoiak abestuta: "Geu ere joaten gara kanpora: Gernika, Eibar, Otxandio, Elgeta... Eta orain eurak etorriko dira gurera, nahiz eta batzuek ezin etorria agertu", jakinarazi du taldeko zuzendari Imanol Arantzabalek. Kantu taldeak sei urte ditu eta 27 lagun dira egun. Eguaztenetan elkartzen dira entseguak egiteko, eta egunotan gogotsu dabiltza Arantzabalen aginduetara zapatuko ekitaldia gertatzen.

Astea bukatuko dute doke txapelketa jokatuta. Urte askoan galduta egon da dokea Aretxabaletan, eta, hain zuzen, erretiratuek berreskuratu dute. Basotxorekin batera norgehiagokan jardungo dute beste hiru elkartek: Loramendik, Aretxarte merkatarien elkarteak eta Aretxabaletako kirol elkarteak. "Azken desafioan Aretxartekoek irabazi zuten, eta gure asmoa da geuk eskuratzea txapela", esan du presidenteak.

Kultura Asteak iraun bitartean, gainera, erretiratuek egindako eskulanak izango dituzte ikusteko Basotxoko egoitzan: "Egurrean egindako lanak, pintura lanak, jostunenak... Benetan artistak dira batzuk, eta lan horiek edozeinek ikusteko egongo dira".



Basotxoko kantu taldea, eguaztenean, entsegua hasteko gertu. | MIRARI ALTUBE

**JOSE INAZIO ISASMENDI** | BASOTXOKO PRESIDENTEA

## "Herri erdialdean gaude eta herriko bizitzaren erdian ere egon gura dugu"



M.A.

Bi urte daramatza presidente, eta pozik dago elkarteak duen martxarekin.

**Bazkide gehien dituen herriko elkartea zarete, ezta?**

Uste dut baietz; batzuk joan, beste batzuk etorri... 974 gara orain, eta gure gogoa da milara iristea.

**Bizitza handiko elkartea da?**

Basotxoko kafetegian badago mugimendua, baina ez gehiegizkoa, beti antzeko jendea elkartzen da. Kontu hori aztertzeko daukagu, jende berria ekarri gura dugu–eta gure txokora. Herri erdi–erdian gaude kokapenari dagokionez, eta herriko bizitzaren erdi–erdian ere egon gura dugu. Hortaz, hurrera dadila jendea gu ezagutzera. Kultura Asteak horretan lagundu egingo duela uste dut.

**Bidaiek arrakasta handia dute azken urteotan, ala?**

Izugarria. Iparralderako irteera aurtengo bosgarrena da eta guztietara bi autobus joan gara. Portugalen 49 lagun egon ginen eta Budapesten 21.

**Zuzendaritza batzordeari dagokionez, gero eta emakume gehiago...**

Bai, orain bost emakume eta lau gizonezko gaude. Izugarrizko taldea da, oso langilea, benetan harro nago eta oso pozik.

**Eta sukaldari onak ei zarete...**

Bai; Fortu Lopezek eta Mariasun Isasmendik irabazi dute Debagoieneko txapelketa, eta urriaren 1ean Donostiara joango dira.

### KULTURA ASTEKO EGITARAUA

**18, EGUBAKOITZA**

**07:30** Irteera Iparraldera: Sara, Larhun...

**19, ZAPATUA**

**18:00** Basotxo Txokolate–jana eta dantzaldia H. Kinta Y Ku taldearekin.

**21, ASTELEHENA**

**17:30** Basotxo Argazki emanaldia: 2014an eta 2015ean egindako bidaietan ateratako argazkiak.

**22, MARTITZENA**

**17:30** Basotxo Idiazabalgo gazten dastatzea Felix Ajuria gaztagileak gidatuta.

**23, EGUAZTENA**

**18:00** Arkupe Antzerkia: *Novedades en Villa Titiritaina*, Oñatiko Pake Leku elkartearen eskutik.

**24, EGUENA**

**17:30** Basotxo Hitzaldia: herentziak, testamentuak... Naiara Mendibil abokatuarekin.

**25, EGUBAKOITZA**

**09:00** Basotxo Mendi irteera auzoz auzo: Bedoña, Oro...

**26, ZAPATUA**

**11:00** kalean *Kantuz kalean* ekitaldia herriko kaleetan.

**27, DOMEKA**

**11:00** Basotxo Doke txapelketa herriko elkarteen artean.

# Euskal presoei elkartasuna adierazteko eguna, azkena izateko aldarriaz

Elkartasun Egunak hamar urte beteko ditu bihar: azoka, bazkaria, manifestazioa, zuzeneko musika...



Aurkezpen jendetsua egin zuten Kulturaten Elkartasun Egunaren hamargarren edizioa iragartzeko. | JOKIN BEREZIARTUA

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Euskal preso eta iheslarien eskubideen defentsan, hamar urte beteko ditu bihar Elkartasun Egunak. Ekimena desagertzeko helburuarekin sortu zen, eta hamargarren edizio honetarako indar berezia hartu du aldarrikapenak: "Ea aurtengo Elkartasun Eguneko *Azkena izan dadila!* aldarria guztion artean errealitate bihurtzea lortzen dugun", adierazi zuten martitzeneko aurkezpenean LKRTSN Eguna Herri Ekimeneko kideek.

Egun osorako hainbat ekintza antolatu dituzte; aurreko edizioekin alderatuz, berrikuntza moduan dator Kajoi eta Itzala tabernekin batera antolatu duten Elkartasun Azoka. Azokarekin batera, haur eta gurasoendako txokoa eta herri bazkaria antolatu dituzte Biteri plazan, kontzertuak hemeretzi tabernatan, manifestazioa 19:30ean –leloa izango da *Euskal preso, errefuxiatu eta iheslari politikoen defentsan*– eta, eguna borobiltzeko, goi mailako bost kontzertu Monterron parkean. Urtero moduan, zuzeneko musikak protagonismo berezia izango du: "Egunak adar asko baditu ere, ikaragarria da kulturari eta musika eskaintzari dagokionez daukan tamaina. Hemeretzi musika talde arituko dira Arrasateko beste horrenbeste tabernatan. Zenbaki itzela aurten ere!", diote.

Ekimena urtez urte sostengatzen duten tabernekin batera, eskerrak eman dizkiete Elkartasun Eguna posible egiten duten norbanako eta talde guztiei.

**Eskubide urraketek, "berdin"**

Antolatzaileek salatu dute "euskal preso eta iheslariek pairatzen dituzten eskubide urraketek" bere horretan jarraitzen dutela: "Horren adibide da dispertsioa; herriko presoak espainiar eta frantziar kartzeletan daude sakabanatuta etxetik ehunka kilometrotara. Egoera honek senideengan zigor gehigarri bat eragiten du, aste bukaerero errepidean ehunka kilometro egin beharra, horrek dakarren kostu ekonomiko ikaragarria gehituz". Era berean, zigorra beteta duten eta gaixotasun larriak dituzten presoen etxeratzea eskatu dute, baita haien senideekiko jazarpena salatu ere: "Udan, espainiar estatuak beste buelta bat eman dio senideen kateak lotzen dituen torlojuari, Auzitegi Nazionalera senideak deklaratzera deituz, tartean Arrasateko bi senide. Eurei gure babesa eta elkartasun osoa adierazi nahi diegu". Amaitzeko, biharko antolatu diren ekintzetan parte hartzeko gonbidapena egiteaz gain, antolatzaileek uste dute herritarrek "asko" dutela egiteko eguneko aldarria errealitate bihur dadin: "Nork bere eremutik uste duena baino gehiago egin dezake. Elkartasun Eguna horren adibide da: artisauak, musikariak, txalapartariak, baserritarrak, bertsolariak, sukaldariak... nor bere eremutik aldarrikapen beraren alde".

### LKRTSN EGUNA: IRAILAREN 19RAKO EGITARAUA

**GOIZEAN**

- **10:30-14:00** LKRTSN azoka Herriko Plazan: artisauak, bertsolariak, baserriko produktuak, txalaparta, LKRTSN materiala...
- **11:00-14:00** Ume eta gurasoentzat txokoa Biteri plazan.

**Kontzertuak tabernetan**

- **12:30** Lukas Prest (Eskoriatza) Taupa tabernan.
- **12:30** The Mocker's (Durango) Irati tabernan.
- **13:15** Black Beauty (Azkoitia eta Arrasate) Ezkiña tabernan.
- **13:15** Anger (Arrasate) Monten.
- **14:30** Herri bazkaria Biteri plazan.

**ARRATSALDEAN**

- **17:00** Kontzertuak tabernetan.
- ▶ The Convicts (Arrasate). Osorik.
- ▶ Blaster M (Gernika). Ostantz.
- ▶ Arkaiko (Agurain). Ekaitz.
- ▶ Ganorabakuek (Durango). Iluntz.
- ▶ W.C. (Arrasate). Branka.
- ▶ Antihumano (Oñati). Amaiur.
- ▶ Gela Berezia (Oñati). Ederra.
- **18:00** Kontzertuak tabernetan.
- ▶ Sustrajah Band (Lekeitio). Etxoste.
- ▶ Txorroskilo (Donostia). Jai–Zale.
- ▶ Pecozza United (Irun). Arrasate.
- ▶ No Mas Clavos (Arrasate). Iturriotz.
- ▶ Pitxontxis (Elorrio). Haizea.
- ▶ Tears & Beers (Gernika). DAT.
- ▶ Crap (Arrasate). Muxibar.
- ▶ Bitz (Oñati). Basati.
- **19:30** MANIFESTAZIOA Herriko Plazatik.

**GAUEAN**

- **21:00** Kontzertuak Monterronen.
- ▶ Anje Duhalde (Arrangoitze).
- ▶ Fiachras (Lazkao eta Bergara).
- ▶ Gramones (Gasteiz).
- ▶ Arkada Social (Arrasate).
- ▶ Kañeria 13 (Arrasate).




## Hileta zibiletan borondatezko hizlaria izateko deialdia

Udalak zerrenda osatuko du gune publikoko hiletetan borondatezko hizlari izateko gertu dauden herritarrekin. Hildakoaren familiak horrela eskatzen duen kasuetan bakarrik hartuko du parte hizlariak, eta, borondatezkoa izanik, ez du inongo lan harremanik izango Udalarekin. Urriaren 1era arte eman daiteke izena, BAZen.

## Maritxu Kajoi eguneko jaian parte hartzeko deia Abaroa elkarteak

Urriaren 2an ospatuko den Maritxu Kajoi eguneko jaian parte hartzeko izena eman behar dela jakinarazi die Abaroa erretiratu elkarteak bazkideei. Irailaren 21etik 25erako astean, behar den moduan eguneratutako bazkide txartela aurkeztu beharko da Etxaluzeko bulegoetan. Luntxa egingo dute Maritxu Kajoi egunean, 18:30ean.



Ane Gorosabel arrasatearraren postua uztaileko azokan. | IMANOL SORIANO

## Tomatea izango da biharko baserritarren azokako produktu izarra Seber Altuben

J.B. | ARRASATE

Tomatea izango da bihar Seber Altube plazan egingo den baserritarren azokako produktu izarra (09:00-14:00): "Inguruko ortu gehienetan ekoizten da tomatea, askotarikoa. Baserritarrekin hala adostuta, erakusketa txiki bat egingo dugu mota bakoitzaren aleak erakutsiz eta horien ezaugarriak deskribatuz. Gero, tomatea oinarri duten jakiak prestatuko ditu Jesus Romero sukaldariak", aurreratu du Enplegu eta Garapen Saileko teknikari Marga Garmendiak. Tomateaz gain, protagonismo berezia izango dute Lodosako piperrek, eta hango ekoizle bat sutegi eta guzti etorriko da.

Gainerakoan, hamasei postu egongo dira; uda garaiko produktuz josita izango dira postuak, eta sukalderako tresnen postuak ez du hutsik egingo.

# Iturripeko ur itoginen arazoa behin betiko konpondu gura du Udalak, estalpea isolatuta

Astelehenean hasitako obrak urriko lehen asterako amaitzea espero dute; aurrekontua 104.607 euro da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Astelehenean hasi ziren Iturripe kiroldegiko sabaia behin betiko konpontzeko lanak. Sabaiak arazo gehiago eragin ez ditzan konponketarako hiru aukera aztertu ditu Arrasateko Udalak. Aukera bat zen estalpe osoa kendu eta berri bat jartzea eta beste bat zen bigarren geruza bat sortzea gaur egungoarenaren gainetik. Azkenean, baina, hirugarren aukera baten alde egin dute: "Estalpea poliuretanoko 20 milimetroko lehen geruza batekin babestuko da. Gainean beste geruza bat izango du, koloreduna eta apur bat meheagoa. Hartuko du estalpe osoa, bai kantxa eta bai harmailen zatia; eguraldiak laguntzen badu, espero dugu hiru astean lanak amaitzea", esan du Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak batzordeko teknikari-buru Moises Altunak.

Izan ere, euria eginez gero lanak gelditzera behartuta daude Aterki Isola enpresako langileak. Enpresa horrek Udalari hamar urteko bermea eskaintzen dio lanokin arazorik balego; beste bi aukerek, berriz, hiru urteko bermea eskaintzen zuten.



Aterki Isola enpresako langileak Iturripeko estalpean lanean asteon. | J. BEREZIARTUA

**Aspalditik datorren arazoa**

Lanok fase bakarrean egingo dituztela aurreratu zuen PSE-EE alderdiko Oscar Garciak, batzorde horretako arduradun politikoak. 1991n eraikia, urte hartan bertan hasi ziren arazoak Iturripeko kiroldegian; orduan, elurrak erretenak apurtu zituen. Arazo hori konpondu egin zuten, baina ez, ordea, ur itoginena. Itoginek 2000. urtetik aurrera eragin dituzte arazo gehien: "2000. urtea ezkero hainbat konponketa-lan egin dira, kanpoko enpresen bidez zein Udaleko langileen bidez, baina behin betiko soluziorik ez dugu lortu. Arazo handienak joan den urtean izan genituen, saskibaloi zein eskubaloi taldeek arazo larriak izan zituzten-eta jokatzeko ere", gogoratu du Altunak.

ESANAK

**"Poliuretanoko 20 milimetroko geruza bat jarriko da, eta azpian beste geruza meheago bat"**

MOISES ALTUNA | OBRETAKO TEKNIKARI-BURUA

Udalak 104.607 euro gastatuko ditu obra horretan.

**"Ez dadila iazkoa errepikatu"**

Mondrate areto fubol taldeak noizbehinka, Arrasate Eskubaloi Taldeak eta Ointxe Saskibaloi Klubak erabiltzen dute Iturripeko kantxa; azken horiek izan ziren kaltetuenak iaz: "Obrek iraun artean ere normaltasunez erabili ahalko dugu kantxa. Iaz sekulako arazoak izan genituen, ezin entrenatu eta ezin jokatu. Beste arazo batzuk ere badaude –zorua oso txarto dago, kasu–, baina itoginena lehentasunezkoa zen; ea ez den iazkoa errepikatzen", dio MU saskibaloi taldeko entrenatzaile Josu Larreategik.

# Modu jasangarriagoan mugitzeko gonbidapena

Bihar Birzikleta Azoka Mondragones kalean eta erakusketa Seber Altuben; domekan, bizikleta bira

J.B. | ARRASATE

Irailaren 16tik 22ra Mugikortasun Astea da Arrasaten ere. *Aukeratu, aldatu eta konbinatu zure mugikortasuna* da aurtengo leloa, eta, aste osoan hiri autobusa doakoa izateaz gain, aste bukaeran izango dira ekintza aipagarrienak. Bihar Birzikleta Azoka egingo da Mondragones kalean (11:00-14:00): "Iaz 150 bat bizikleta jaso genituen. Azoka handia bihurtu da bailara mailan", adierazi du Mugikortasun arloko teknikari Nerea Lazpiurrek. Azokan oinarrizko konponketak egiteko aukera ere egongo da; gainera, askotariko bizikleten erakusketa jarriko dute Seber Altuben (11:00-13:00). Domekan, bizikleta bira egingo dute Bergarara, bidegorritik. Seber Altuben elkartuko dira, 10:00etan.

Aurtengo nobedadea da *Eskolara oinez* ekimena, eta lehen urtean Erguingo Herri Eskolako ikasleak ari dira parte hartzen.



Lazpiur eta Ubarretxena, bizikletan, Mugikortasun Astea iragartzen. | M. TORRES

Eskolara oinez doazen ikasleek hamarretako berezia jasoko dute azken egunean. Bestalde, Maria Ubarretxena alkateak herritarrei "hausnarketarako" tartea hartzeko eskatu die: "Eztabaida sortu beharra dago era jasangarriagoan mugitzen has gaitezen".

**Merkataritza Berdea**

Era berean, Merkataritza Berdearen barruan aldez aurretik zozketatutako 70 otzara banatuko ditu bihar Ibai-Arte elkarteak, San Frantzisko elizan (13:30). Saski horiek Jakionen produktu ekologikoak izango dituzte.

# Herrilanerako bigarren deia San Balerion hilaren 26rako

J.B. | ARRASATE

Meatzerreka auzoa berreskuratzeko ekimenaren barruan, Naturtzaindia, Besaide eta Sustraibarri elkarteek herrilanerako bigarren deialdia egin dute irailaren 26rako, Udalarekin elkarlanean. Otsailean 400 zuhaitz landatu zituzten San Balerio ermitaren inguruan eta bigarren deialdirako honako lan hauek egitea aurreikusi dute: zuhaitzen egoera aztertzea, San Balerioko ermita ondotik lursailera zuzenean igotzeko egurrezko eskailerak eraikitzea, sagu-zarrentzat eta hegaztientzat habia-kutxak jartzea eta anfibioentzat ur putzu bat egitea.

Izena emateko, 653 71 52 58 telefono zenbakira deitu edo *sustraibarri@gmail.com* helbidera idatzi behar da, irailaren 24a baino lehen.

## OHARRAK

**1951N JAIOTAKOAK**

Urriaren 17an txangoa egingo dute Zarautzera eta Donostiara. Izena eman behar da irailaren 30a baino lehen, kontu korronte zenbaki honetan 60 euroko ordainketa eginda: 3035 0001 52 0011161015. Harremanetarako: 661 73 37 74 (Dioni) eta 639 90 22 01 (Ana).

**1952AN JAIOTAKOAK**

Urriaren 17an egingo dute ospakizuna. Izena emateko 70 euro ordaindu behar dira kontu korronte honetan, izen-abizenak jarrita kontzeptu moduan: 3035 0055 14 0551057218.

**1962AN JAIOTAKOAK**

Azaroaren 7an elkartuko dira. Izena emateko 60 euroko ordainketa egin behar da kontu korronte zenbaki honetan, izen-abizenak jarrita kontzeptu moduan: 3035 0001 51 0010123638. Harremanetarako: 647 67 55 01 (Luis Mari), 620 73 95 51 (Jesus) edo *rebeca.garval@hotmail.com*.



# Gipuzkoako onenen kontra ere maila ona ematea espero du Mondrate taldeak

## Azken bi asteburuetan Euskadiko Ligan arituko diren hiru talde garaitu dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Iaz mailaz igotzea lortu ostean, Gipuzkoako Lehen Mailan lehiatuko da Mondrate areto futbol taldea urriko lehen aste bukaeran hasiko den ligan. Abuztuaren 24an ekin zioten denboraldi-aurreari, eta orain arte jokatu dituzten lagunartekoak ezin izan dira hobeto joan. Izan ere, iraileko lehen aste bukaeran, Euskadiko Ligan dauden Aretxabaletako eta Eskoriatzako taldeen aurka jokatutako hiruko txapelketa irabazi egin zuten, eta, joan den aste, bukaeran maila berean dagoen Elorrio hartu zuten mendean Jon Zabala *Txanpi*-ren mutilek.



Mondrateko jokalariak irailaren 5eko lagunartekoaren aurretik. | IMANOL SORIANO

Hala ere, hankak lurrean izatea komeni dela dio entrenatzaileak: "Iaz moduan, lehen helburua mailari eustea izango da, eta, behin hori lortuta, ikusiko da; hori bai, ilusio handia dago taldean. Talde ona dugu, baina partiduz partidu joan behar dugu".

**Bizkarrezurra, iazko berbera**

Denboraldi-aurrean egonik, astean hiru entrenamendu saio egiten dituzte orain, eta, behin liga hasita, astean birritan entrenatzea da euren asmoa. Hamabost jokalari izango ditu bere agindupean Zabalak. Kopuru "polita" dela dio, eta horrek talde barruko lehiakortasuna areagotzea ekarriko duela: "Ez da erraza izango lagunak diren bi edo hiru jokalari deialditik kanpo utzi behar izatea, baina barruko lehia hori ona izango da gure maila hobetzeko". Taldearen bizkarrezurrari eusteaz gain, Ibai Hernandez bergarararraren eta Igor Oianguren aramaioarraren fitxaketekin taldea "ondo" sendotu dute. Amaitzeko, Zabalak dei egin die zaleei Musakolako eta Iturripeko harmailak bete ditzaten: "Oso garrantzitsuak dira guretako", dio.

> **ESANAK**
>
> **"Mailari eustea izango da lehen helburua, eta, behin hori lortuta, ikusiko da; ilusio handia dago taldean"**
>
> JON ZABALA | ENTRENATZAILEA

NIRE USTEZ

GAIZKA ERAÑA



# Jacques Cousteau

Oporretatik bueltan lanien hasi eta aurreneko ordu erdixen besamanosa, jentie agurtu eta egin dogunaren barri emuteko tartie edukitzen dogu. Sarrittan, egindako biajiak eta bertan ezagututako paraje eta pertsonak aittaketan dittuau eta beti egitten da erreferentzixaren bat paraje horreittan jandakuan gañien. Horreitxeik biajiok kontetie samur xamarrak izaten die beste biaje batzuen aldien. Badauz beste biaje batzuk lekutik mobidu barik eta aldi berien pagau barik egin leikienak. Baldintza bakarra buzue jarri eta norberaren itsaso urdin illun sakonera murgilketako borondatie eukitzie da.

Urpeien murgilddu ahala itsaso horrek dauken bolumenaz jabetzen hasten gare eta hasiera baten bilddurgarrixe egitten jaku, arrotza egitten jaku, iñox ezagutu eta ikusi bako arraiñak eta landariak deskubritzen dittuau. Arrain batzuk jostagarri eta polittek die, baiña beste batzuk, ostera, odol usañien inguratu eta erasorako jarrera erakusten daue. Gure barrenak letxe itsasue be ez da beti bardin egoten: bero, epel edo hotz, harrotute edo bare, urdin, baltz edo berde, zikin edo garden…

Ur azaletik barrurau dauen itsaso sakona ezaguketie bizitzan behin egin biharreko biajie dala uste dot, eta, akaso, hurrengoko besamanosan aldemeneko lankidiai kontatuko dutset han ikusittakue. Eneko, Jose Luis eta Jabiloi dedikaute.

## Arrasate Pilota Taldeak haurrei eta gaztetxoei dei egin die Uarkapera hurbiltzeko, pilota ezagutzera

Arrasate Pilota Taldeak hasi ditu entrenamenduak. Denboraldi berrirako 5 urtetik gorakoak erakarri gura dituzte pilota ezagut dezaten. Martitzenetan eta eguenetan Uarkapen egongo dira, 17:00etatik 18:30era. Bertan emango dituzte argibide guztiak.





# Euskal Kopako hasiera txarra hobetzeko aste bukaera MUrendako

J.B. | ARRASATE

Euskal Kopako lehen partiduan jipoi galanta jaso zuten Josu Larreategiren mutilek joan den aste bukaeran, Araberriren aurka 103-55 galduta: "Denboraldiaren prestakuntzan oso motel goaz eta eurak askoz gehiago izan ziren". Hasiera txarrari buelta emateko aukera dute bihar Zornotzaren aurka (Iturripe, 18:00) eta etzi Easoren kontra (Iturripe, 20:00).

**Ligako lehen lehia urriaren 17an**

EBA urriaren 17an hasiko du MUk, La Flecha taldearen aurka. Iaz baino jokalari gutxiago izango ditutze; bajen artean daude saskibaloia utzi duen Gorka Kintana, lanaren ondorioz taldean jarraitu ezin duen Unai Barrena, eta lanagatik ere jokatzeko arazo handiak izango dituzten Alex Lorenzo eta Mikel Atxa. Bestalde, Beñat Barberena jokatzeko moduan egongo da aurten; hori bai, hernia diskalak eraginda urte osoa geldi egon ostean, "pazientzia handia" izango dute jokalari arrasatearraren itzulera bermatzeko. Barberenarekin batera, Bergarako Jon Ugarteburu jokalari gaztea ere egongo da entrenatzaile eskoriatzarraren agindupetara.

Urte zaila espero du Larreategik: "Bigarren urteak lehenak baino zailagoak izan ohi dira. Lehen urtean ilusioa handia dago, beste taldeek ez zaituzte ezagutzen… Jokalari gutxiago izango ditugu, gainera. Maila mantentzeko asko borrokatu beharko dugu".



Iker Barbero baloiarekin iazko denboraldiko partidu baten. | IMANOL SORIANO

# Oroimen Eguna etzi eta Mondran Bike urriaren 17an

J.B. | ARRASATE

Domekan, hilak 20, Oroimen Eguna ospatuko dute Besaiden bertan; 1955a ezkero hutsik egin gabe, urtero antolatu dute mendian istripuz hildako mendizaleak gogoratzeko egun berezi hori. Iaz Besaide Mendizale Elkarteak antolatu zuen ekitaldia, eta aurten Elorrioko Erdella Mendizale Taldeari egokitu zaio ardura hori.

**MTB martxa, urtero legez**

Bestalde, Besaidek urtero antolatzen duen Mondran Bike mendiko bizikleta martxa urriaren 17an izango da. Egunean bertan eman beharko da izena, 08:00etatik 09:00etara, Musakolako kiroldegiaren atarian; leku berean egongo da irteera. Ibilbide luzeak 34 kilometro eta 1.400 metroko desnibel positiboa izango du; ibilbide motzak, ordea, 25 kilometro eta 800 metroko desnibel positiboa.

Federatuek bost euro ordaindu beharko dute eta federatuta ez daudenek, hamar euro. Amaieran, dutxatzeko eta luntxaz gozatzeko aukera egongo da.



Galartaren erakusketa marka guztiak txikitzen ari da; irudian, zenbait bisitari inaugurazio egunean. | OMAR ULAZIA

# Milaka pertsonak bisitatu dute Julio Galartaren erakusketa

Irailaren 24an, bisita gidatua pintorearen obra ezagutzeko (18:00-20:30)

KOMUNITATEA GOIENA | J. VELEZ DE MENDIZABAL
JULIO GALARTAREN LAGUNAK ELKARTEA | ARRASATE

Julio Galarta ezagututa, ziur nago Gasteizen bere koadroekin irekita daukan erakusketa edukitzen ari den arrakastaren aurrean ahalegin guztiak egingo zituela bere burua ezkutatzeko. Oso gizon herabe eta apala genuen gure laguna eta beraren gaineko laudoriozko hitzak ekiditen zituen indar osoz.

Baina orain justizia egiten ari zaiolakoan nago. Maiatzetik Vital Kutxa Fundazioaren aretoan lau hilabetez zabalik dagoen erakusketa marka guztiak txikitzen ari da. Milaka eta milaka pertsonek bisitatu dute Vital Kutxa Fundazioa eta Julio Galarta Pintorearen Lagunak Elkartearen artean prestatutakoa.

Juliok berak inoiz amestuko ez zuen arrakasta lortu da eta horrek dimentsio berri batera jaso du pintore arrasatearraren arte ekarpena.

**Kritikak, hitz borobilak**

Kritikak hitz borobilak izan ditu Galartaren obrarako, eta bisitariek biziki txalotu dute ikusitakoaren maila. Arrasatek emandako pintorerik nabarmenaren obra sartu da, beraz, aspalditik zegokion bikaintasunaren zirkuluan. Bakar-bakarrik Galartaren nortasun xumeak eragotzi zuen hil hauetan erdiesten ari dena arrasatearra bizirik zela lortzea.

**Urriaren 4ra arte zabalik**

Oraindik bada aukera erakusketa ikusteko, urriaren 4ra bitartean irekita dago.eta, Gasteizko Foru Plazan. Gainera, irailaren 24an bisita gidatua izango da, nahi duten guztientzat.

# Erromeria Goikobalun, lehengo erara

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Aspaldiko ohitura bat berreskuratzeko asmoz, hirugarren urtez antolatu du Zuztarrak Errotuz taldeak Udalarekin eta beste hainbat elkarterekin auzolanean Goikobaluko Erromerixie. Izan ere, antzina, iraileko hirugarren zapatuan hainbat arrasatear Santa Barbara parkeko Goikobalu zelaira igotzen ziren erromeria ospatzera, eta modu horretan egingo dute bihar ere.

**Eguraldi txarrarekin, Arizmendin**

Lehen, euria eginez gero astebete atzeratzen zen ospakizuna, baina aurten, Arizmendi Ikastolaren kiroldegia erabili ahalko dute erromeriaz gozatzeko: "Ez da berdina izango, baina, behintzat, ospatu ahal izango dugu", adierazi du Zuztarrak Errotuz taldeko kide Xabier Zubizarretak.

Bestalde, Santa Barbarako parkea eta Goikobaluko zelaia herritarren bilgune gisa berreskuratu nahi dute biharko erromeriaren antolatzaileek; Arrasateren erdigunean egonda ere, erabilera txikia ematen zaiola uste dute.

### EGITARAUA: GOIKOBALUKO ERROMERIXIE

**IRAILAK 19, ZAPATUA**

**13:00** Kalejira Portaloitik.

**13:30** Goikobalura igoera Herriko Plazatik.

**14:00** Txalaparta, bertsoak, dantzak, gaiteroak, trikitia, sagardoa eta edariak Goikobalun.

**15:00** *Zeuk eruen, zeuk jan* bazkaria. Bazkalostean, kafea, dantzaldia, albokariak, kantu herrikoiak...

**17:00** Berbena Liderekin eta Eneritzekin, Goikobalun.

**18:30** Goikobalutik jaitsiera.

## 2015-2016 ikasturterako plazako dantza tradizionalen saioekin urriaren 5ean hasiko gara

Urtero bezala, plazako dantza tradizionalen ikastaroak antolatu ditugu. Hiru talde izango dira: hasiberriak, 2. maila eta *beteranoen* dantza-txokoa. Urriaren 5ean hasiko dira eskolak. Irailaren 28an, ikastaroen aurkezpena eta dantzalditxoa egingo dugu Uarkapeko tabernan, denondako zabalik. Argibide gehiago: 675 94 46 09.

KOMUNITATEA GOIENA | HERRIXA DANTZAN
PORTALOI ELKARTEA | ARRASATE

## Antzerki tailerra antolatu dugu talde egonkorra sortzeko asmoz; izen-ematea, irailaren 21era arte

Antzerki tailerra antolatu dugu udazkenerako; hogei ordukoa izango da eta Olatz Pagaldai izango da irakaslea. Izen-ematea irailaren 21ean itxiko da. Interesatuek *aed@aedelkartea.com* helbidera idatzi edo 943 77 12 28 telefonora deitu behar dute. Prezioa 45 euro izango da bazkideondako eta 50 euro gainerakoendako.

KOMUNITATEA GOIENA
AED ELKARTEA | ARRASATE

## Urriaren 31n Amaia antzokian taularatuko den 'Marina' operarako sarrerak salgai dagoeneko

Urriaren 31n taularatuko du Ozenki elkarteak Emilio Arrietaren *Marina* opera Amaia antzokian. Dena den, antolatzaileek sarrera eskaera handia aurreikusi dutenez, irailaren 13a ezkero daude salgai txartelak. Sarrerak eskuratzeko honako aukera hauek bideratu dituzte antolatzaileek: Amaiako leihatilan, Kutxabanken, Udalaren webgunean edo Ozenki elkartearen helbide elektronikora –*ozenkielkartea@hotmail.es*– idatzita lor daitezke, 30 eurotan.

## Gaur da azken eguna pintura ikastaroan izena emateko; irailaren 21ean hasiko da, Kulturaten

Kulturateko pintura ikastaroan izena emateko azken eguna da gaur; interesatuek bertako pintura gelarako jo beharko dute, 17:00etatik 19:00etara. Helduek 145 euro ordaindu beharko dute –hiru ordu astero, irailetik ekainera– eta 7 urtetik gorako umeek, berriz, 75 euro –ordu eta erdi astero, irailetik ekainera–. Zapatuko eskolen prezioa 96 euro da –bi ordu astero–. Urtero legez, Amaia Bengoa izango da irakaslea. Argibide gehiago: 943 25 20 25.

## Arrasate Musikalek zabalik dauka matrikulazioa hil amaierara arte: "Eskaintza zabala dugu", diote

Arrasate Musikalek hilaren 7an hasi zuen ikasturtea, baina matrikulazio kanpaina hil amaierara arte dute zabalik: "5 eta 6 urtekoendako musika tailerrean oraindik ere lekua dago. Edozelan ere, Arrasate Musikalek instrumentuen eskaintza zabala dauka adin guztietarako", adierazi dute. Informazio gehiagorako, Monterron jauregiko idazkaritzara jo –10:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 20:00etara– edota 943 77 05 40 telefono zenbakira deitu.

## Udaleko Kultura Saila pozik dago Kulturate Akustikoak ekimenak izan duen harrerarekin

Joan den aste bukaeran amaitu ziren Kulturate Akustikoak, The Romanticos, Antilopez eta Bilillo Y Los Sullos taldeen zuzenekoekin. Ekimenaren zazpigarren aldia izan da aurtengoa, eta Kultura Saila pozik dago herritarren aldetik jasotako erantzunarekin: "Arrasaten errotuta dagoen ekimena da. Aretoa ia beteta egon da egun askotan, gustuko zikloa den seinale".







# Sokamuturrean sustoa, baina, bestela, ondo joan dira jaiak

Zezenak harrapatu eta kolpe handia hartu zuen gazte batek; gainerakoan, giro ona sanmartinetan

**JULEN IRIONDO** | BERGARA

Arrakastatsua izan zen aurtengo nobedadeetako bat: 30 lagunentzat zen Uberan egindako ardo dastaketa ikastaroa, baina 35era zabaldu behar izan zuten muga, eskaria ikusita. Mikel Garaizabal izan zen gidari.

Dantza solte txapelketan, Irurako Xabier Artola eta Idoia Besada pasaitarra izan ziren nagusi. Zazpi bikotek hartu zuten parte, debagoiendarrik ez tartean. Zapatuko azokan, bestetik, jenero ederra eta jendea polito, begira eta erosketan.

Fruta eta barazki lehiaketetako sari nagusiak antzuolarrek eraman zituzten –Kontxi Izagirrek eta Tomas Larrañagak, hurrenez hurren–. Gazta onenaren saria Araiara, eta etxean geratu zen bakarra barazkietako hirugarrena izan zen, Karmen Etxeberriarentzat. Paella-janean 88 lagun batu ziren, eta, lehen aldia izanda, gustura geratu da Udala, jarraitzeko asmoz. Giro polita jarri zuten Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldekoek.

Aire zabaleko pintura lehiaketa Eduardo Altsasua gasteiztarrak irabazi zuen, eta Juan Gonzalezek bergarar onenaren saria. Danborradetan, nagusienean euriak musika bandari eragindako eragozpena; bestela, dena ondo.

Eta sokamuturrekoa sustoa izan zen, azkenean. Bi puntu eta hortza apurtuta 20 urteko soraluzetarrak, zezenak airean bota eta buruarekin lurra jota.



Zapatuko azokan erosketa egiten. | JOSU BILBAO



Gaztea zezenaren aurrean. | A. GOITI



Haurren danborradako dragoia. | MAITE TXINTXURRETA



Azokako lehiaketetako sarituak. | J. B.



Neska kuadrilla paella-janean. | J.B.



Pintura lehiaketako sarituak. EKAITZ FILARMENDI



Nagusien danborrada, plazan. | M.T.




Dantza txapelketako parte-hartzaileak. IMANOL SORIANO



San Martinen errepresentazioa. | M.T.



Dantzari bikotea lanean. | I.S.



Haurren danborrada. | M.T.

DRAGON ORIENTAL
Jatetxea

**Bueltan gaude!**
**Etor zaitez!**

**Janaria ere etxera eramaten dugu**
Etxez etxeko zerbitzua: Bergara: +1,80 € Inguruko herriak: + 2 €

☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA

## Ahal Dugu: herrian zirkulua osatzeko bilera

JULEN IRIONDO | BERGARA

Hilaren 24an, 19:00etan, Irizar jauregian da hitzordua. Bergarako zirkuluaren eraketarako asanblada publiko eta irekia egingo du Ahal Duguk. Parte hartu edo soilik entzun nahi duten denei egin diete bertaratzeko deia.

Alderdiaren Euskadiko buru Roberto Uriarte, Gipuzkoako batzarkideak –Juantxo Iturria, Patricia Gede, Maria Valiente, Jone Cisneros, Monica Mora eta Imanol Gude– eta Eibarko eta Arrasateko Ahal Duguren ordezkariak izango dira batzarrean.

### OHARRAK

**1960AN JAIOTAKOAK**
1960an jaiotakoek bazkaria egingo dute hilaren 26an, Zumelaga jatetxean. Izena emateko, Josefina estankoan eta Igartza harategian.

**ODOL ATERATZEA**
Eguaztenean –hilak 23– da hurrengoa, 18:00etatik 20:30era, anbulatorioan. Odola eman ahal izateko 18 eta 65 urte artean izan behar dira.



Iazko parte-hartze saioetako bat. | ARANTZAZU EZKIBEL

## Aurtengo bi parte-hartze saioetatik aurrenekoa bihar, iazkoari segituz

KOMUNITATEA GOIENA | NEREA MENDIZABAL
JARDUN EUSKARA ELKARTEA | BERGARA

Iaz hasitako bideari jarraituz, bi parte-hartze saio antolatu ditu Jardunek urtea amaitu aurretik egiteko. Aurrenekoa bihar –zapatua– izango da, eta azaroaren 14an ospatuko dugun 25. urteurrena prestatu nahi dugu bertan. Bigarren saioa, berriz, azaroaren 28an izango da, eta elkartearen antolamendu eraginkorra adostu eta sortzea izango da helburua. 10:00ak eta 13:00ak artean izango dira bi saioak, Irizar jauregian; irekiak izango dira, eta interesa duten denei luzatzen diegu bertaratzeko gonbidapena.

Iazko parte-hartze saioetan sortutako lantaldeak indartzea eta kohesionatzea ere izango da parte-hartze saioon helburua, eta orduan hartutako erabakiei bide ematea. Lau lantalde sortu ziren iazkotik: aisialdia, sentsibilizazioa, diskurtsoa eta komunikazioa. Horien funtzionamendua zehaztu eta lantaldeen koordinazioa zaintzeko beharra ikusten dugu orain. Iazko saioetan 40 lagun inguruk hartu zuten parte, eta nahi genuke oraingoetara ere etortzea horiek, berriez gain.

**Jardunen eskaintza**

Bestetik, Jardunek martxan du ikasturte berrirako eskaintza: txikientzako asteburuetako aisialdi eskaintza, umeen eta helduen bertso eskolak, haurren antzerki eskola... Informazioa, bulegoan edo *www.jardun.eus*-en.

### 'Bergara Chef' lehiaketan izena emateko badago oraindik aukera, astelehenera bitartean

Herriko dendetako osagaiekin ahalik eta menurik goxoena prestatzea: hori izango da Bedelkarrek antolatutako lehiaketan parte hartuko dutenen –hamabi bikote gehienez– egitekoa eta helburua. Bi plater izango dira, bi ordutan prestatzeko, eta antolakuntzatik adieraziko diete herriko ze dendatan egin beharko dituzten erosketak. Lehiaketa Goiena telebistak emango du.

### Oraingoan izango da Domeka Azoka, elkartrukea, berrerabiltzea eta artisautza sustatzeko merkatua

Hilaren 20an izango da Domeka Azoka, elkartrukea, berrerabiltzea eta artisautza sustatzeko merkatua. San Martin plazan izango da, 11:00etatik 14:00etara. Udala merkatu horrek lortu duen harrerarekin "oso pozik" dago, bi hilean behingo hitzorduak indarra hartu du-eta; asko dira postua jartzeko eta merkatua bisitatzeko ohitura dutenak. Oraingoan 25 izango dira postuak.

### Ahotsak ekimenerako Ipintza institutuko ikasleek egindako transkripzioak sareratu dituzte

Bergarako eta Antzuolako hainbat lagunen pasarteak transkribatu zituzten aurreko ikasturtean Ipintzako batxilergoko bigarren mailako ikasleek. Eskolan, mendebaldeko euskara lantzeko egin zituzten transkripziook, hirugarren ebaluazioan. Dagoeneko guztiak ikusgai daude *www.ahotsak.eus* webgunean. Euskal Herriko bateko eta besteko hizkerak jasotzen ditu webguneak.

### Martitzenean hasiko den haurrentzako masaje ikastarorako izena eman daiteke oraindik

Bi talde egongo dira: bata izango da heldu bat eta bederatzi hilabete baino gutxiagoko umeak osatutako bikoteentzat; eta bestea, helduak eta bederatzi eta hemezortzi hilabete arteko umeak osatutakoentzat. Hilaren 22an eta 29an izango dira saioak, lehenengoenak 10:30etik 12:00etara eta 17:30etik 19:00etara bigarrenenak. Izena, udaletxean edo *gazteria@bergara.eus* helbidean.



# Nagusietan mailari eustea eta harrobia zaintzea dira saskibaloikoen helburuak

Gipuzkoako Lehenengo Mailarako "oso talde polita" duela dio Beiztegik

JULEN IRIONDO | BERGARA

San Martin plaza bete-bete zegoela aurkeztu ditu aurten –aurreko zapatuan– Bergara Kirol Elkarteko saskibaloi sailak 2015-2016 denboraldirako taldeak. Bederatzi talde dituzte, eta hamargarrena osatzeko bidean da. Kirol helburuei dagokienez, "senior eta junior taldeak dauden mailan mantentzea" lortu nahi dute, saskibaloi saileko arduradun Marian Melladoren arabera.

Baina, emaitzetatik harago, bestelako helburuak ere badituzte: "Eskola kiroleko 36 neska-mutiko izan genituen iaz, eta horiek edo gehiago izango dira aurten. Harrobia hor dago, eta ondo zaindu gura ditugu ume horiek; hortaz, gogotsu jarraituko dugu eurekin lanean", zioen Melladok.

Jon Beiztegik izango du aurten ere senior mailako mutilen taldea gidatzeko ardura. Gipuzkoako Lehenengo Mailara igotzea lortu zuten aurreko denboraldian, eta, maila berrian, helburu lortezinik finkatu barik, lanaren alde agertu da entrenatzailea: "Poliki-poliki egingo diogu aurre denboraldiari; lehenengo, jokalariak ezagutu behar ditut eta horiekin lanean hasi. Iaz igota, mailari eustea da gure helburua".

Aurtengo taldeari dagokionez, ondorengoa zioen Beiztegik: "Iazko taldetik hona, barruko jokorako jendea mantendu dugu. Jon Ugarteburu joan zaigu Arrasatera jokatzera, eta oso baja garrantzitsua da, eta jokalari beterano batek ere utzi egin du. Eta itzuli dira lehen utzita zuten 21-22 urteko zenbait. Sei-zazpi lehengoak dira, beraz, eta bost berriak –tartean bi joko-antolatzaileak–, baina kalitatezkoak. Oso talde polita dugu, baina uste dut Gabonak arte-edo hor ibiliko garela, taldea egin arte". Kanpotik jaurtitzeko aurreko urtean baino baliabide gehiago eta hobeak izango dituztela ere bazioen Beiztegik.


Saskibaloi saileko talde guztietako jokalariak. | MIRARI ALTUBE


Senior mailako mutilen taldea. | M.A.

Asier Blazquez | Bergara Blockpass

## "Gipuzkoako zirkuitu bakarra da eta mantendu egin nahi dugu"

J.I. | BERGARA

Angiozarrera bidean, Garbigune ondoan dagoen motor lasterketetarako zirkuituari eutsi nahi diote Bergara Blockpass elkartekoek. Foru Aldundiaren eta Udalaren baimenekin ari dira azken urteetan, baina ez dute han jarraitzeko aukera garbi ikusten –bilera batera deitu dituzte euskal federazioarekin batera–. Biharko Cross Country lasterketarako zirkuitua prestatzen ari zela, etena egin eta erantzun ditu Goienaren galderak Blazquezek.


Asier Blazquez. | JULEN IRIONDO

**Zer nahi duzue zuek zirkuiturako?**

Egonkorra izatea; kirol instalazio izaera lortzea, Mirandan lortu duten moduan, adibidez. Hura ere zabortegia zen, eta orain, autoentzako eta moto-kroserako da, Udalaren erabakiz. Gipuzkoan, zergatik ez?

**Gonbidapen berezia egin nahi duzue jendea etor dadin bihar.**

Dei egiten diot jendeari... etor daitezela, ikus dezaten hau kirol bat dela, beste edozein moduan; etorri eta babes gaitzatela horrela. Ematen du gure atzetik dabiltzala: mendietan ezin da ibili... Eta hau da Gipuzkoako zirkuitu bakarra, eta gustatuko litzaiguke mantentzea. Hilean bi domekatan irekitzen dugu, eta jende pila bat etortzen da entrenatzera. Euskadin ere erreferente da, eta nahi genuke datorren urtean, honek aurrera jarraitzen badu, nazioarteko lasterketa bat egitea, frantziarrekin eta nazionaleko pilotu onenekin. Hori da dugun ideia.

## Bergara Hiria nazioarteko xake txapelketa eta kluben arteko txapelketa azkarra domekan

Agorrosinen izango dira, eta 09:00etan hasiko da aurrenekoa, kluben artekoa. Euskal zirkuiturako baliagarria da, eta 25 klub inguru espero dituzte lehian, Euskal Herrikoak eta ingurukoak. Arratsaldean, berriz, nazioarteko txapelketa jokatuko da, 16:30ean hasita. Maila handiko jokalariek hartuko dute parte bertan, 100 batek guztira. Horretarako baldintzak betetzen dituztenek bihar arte –zapatua– dute izena emateko aukera. Sariei dagokienez, 25 izango dira denera, eta kategorien arabera banatuko dituzte.

NIRE USTEZ

AITZIBER PLAZAOLA



# Galderak besterik ez

Kortxoenea eraisteko saiakeraren ondotik eta, batez ere, bertako auzokideek honen aurrean antolatutako erantzunarekin, Kortxoeneaz ari gara han eta hemen. Testuinguru oso berezian izan da gertakaria; Donostia 2016 bertan, Tabakaleraren irekiera, Zinemaldia... eta horrek Donostian bertan kultura eredu ezberdinen arteko eztabaida piztu du, kapitalaren eta herriaren kultura parez pare jarriz.

Espazio autogestionatu edota okupatuen erabilera aldatzen doan sentsazioa daukat aspaldi. Gaztetxeak izan dira orain arte eremu horretan erreferente, eta gazteak izan dira, gazte izateagatik, helduen tamainara egindako mundu honetan antolatu eta gazte problematika landu dutenak, gazteon eredua eta helduena parez pare jarri dutenak.

Gaur egun, aldiz, espazio askotan gazteak ere bildu eta antolatu arren, bestelako arlo batzuk garatzen dira; hor ditugu, gaztetxeetan izaten diren adibideez gain, Astra, Eraldia eta Bilboko okupazio feminista, adibide gisa. Eta horrek galderak sorrarazten dizkit.

Gazte izatearen kontzientzia galtzen ari al gara? Gazte izatearekin baino gehiago, beste kolektibo batzuekin identifikatzen al gara? Belaunaldi berriek nola bizi dute gazte izatea? Gazte belaunaldien artean etenik ba al dago? Zein iritzi dute gazteek?

OHARRAK

**MUSIKA ESKOLA**
Bergarako Musika eta Dantza Eskolan izen-ematea, hil osoan.

**UDALA: DIRU-LAGUNTZAK**
Azken egunak dira kultur, kirol eta gizarte zerbitzu alorretako laguntzak eskatzeko.

**2016KO EGUTEGIA: 'ZURA'**
Udalean argazkiak aurkezteko epea, hilaren 25a arte.

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
*Sukalde eta bainu enzimerak*
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

MIZPILDI

OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

# Errefuxiatuak hartzeko bideak jarri ditu Udalak

Herrian alokagai dauden etxebizitzen alokairu soziala bere gain hartuko luke epe jakin baterako


Larraña auzoan dagoen eraikinean egon zen lehen barnetegia . | O.E.

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Oñatiko Udalak prestutasuna agertu du Siriako edo beste herrialde batzuetako gatazka politiko edo militarrengatik herrialdea utzi duten errefuxiatuak jasotzeko. Alde batetik, errefuxiatuei laguntzeko baliabide ekonomikoak jartzeko konpromisoa adierazi du, eta asmoa da herrian alokagai dauden etxebizitzen alokairu soziala Udalak bere gain hartzea epe jakin baterako. Bestetik, herrian hutsik dagoen Larraña auzoko eraikin bat baliabide materialen zerrendan sartzeko ere eskatu dute.

Herritarren aldetik elkartasun keinuak ere iritsi zaizkiela gaineratu du Mikel Biain alkateak. Alkateak esan du errefuxiatuena ez dela fenomeno berria, lehendik ere herrian badaudelako hainbat herritatik etorri izan direnak, baina oraingo honetan egoera "gordinagoa" izan dela eta segituan iritsi zitzaizkiela elkartasun keinuak.

ESANAK

"Barnetegia egondako lekua baliabideen zerrendan sartu duela baieztatu digu Jaurlaritzak"

MIKEL BIAIN | ALKATEA

**Laguntza eta baliabideak**

Erakunde publikoek dagokien lana egin behar dutela azpimarratu du Biainek, eta, alde horretatik, azterketa bat egin zuten ikusteko zein baliabide posible erabili ahal izango lituzketen larrialdi egoera horri erantzuteko, eta bi aukera aztertu dituzte: batetik, baliabide ekonomikoak jartzeko konpromisoa adierazi du Oñatiko Udalak. Asmoa da diru poltsa bat jartzea eta hori oinarrizko beharretara bideratzea. Tartean, adibidez, herrian hutsik dauden etxeetan errefuxiatuak hartzen dituztenei, errenta ordainduko liekete, alokairu sozial kontzeptuan. "Etxe hutsak eta errefuxiatuak hartu gura dituzten herritarrendako deia da hori", azaldu du Mikel Biain alkateak.

Bestalde, baliabide materialei dagokienez, nahiz eta Udalaren jabetzakoa ez izan, Eusko Jaurlaritzarena den eraikin huts bat dago herrian, Larraña auzoan, lehengo barnetegia izan zena, hain justu, eta hori erabiltzeko aukeraren berri eman dio Udalak Jaurlaritzari. "Eta Jaurlaritzak baieztatu digu eraikin hori sartu dutela baliabideen zerrenda ofizialean. Hori kudeatuko duena, baina, Aldundia izango da eta orain ikusi beharko dugu eta Gipuzkoako Aldundiak baliabide hori, eraikin hori, kontuan hartzen duen edo ez", dio Biainek.

**Zabalik**

Hainbat herritarrek ere laguntzeko prestutasuna erakutsi dutela gaineratu du Biainek, eta nahiz eta oraindik zehazteke duten nolako laguntza izango den, laguntzeko prest leudeken herritarren sare bat eraikitzeko bitartekari lana egiteko konpromisoa ere hartu du Udalak. Eurekin harremanetan jartzeko hainbat bide jarri dituzte: *partaidetza@onati.eus*, 943 78 04 11 edo udaletxeko harrera-gunera zuzenduta.

## Hilaren 29ra atzeratu dute 'Aitto'-ren auziko erabakia

Espainiako Auzitegi Nazionalaren prozedura akatsak direla-eta hilaren 29ra atzeratu dute Alberto Plazaola *Aitto*-ren kontrako auziaren erabakia. Hilaren 15ean epaitu zuten Aitto, Pauen. Prozedura akatsak zirela-eta hiru epailez osatutako tribunalak haren aurkako edo aldeko erabakia atzeratzea erabaki zuen. Erabakia irailaren 29an emango dute, 10:30ean. Bitartean, Plazaolak aske jarraituko du, kontrol judizialpean.

## Eltzia nola kudeatu landuko dute abendura bitartean

Eltzia egitasmoa nola kudeatu erabakitzeko prozesua landuko dute urritik abendura bitartean. Horretarako, hiru bilera ireki egingo dituzte, hilabete bakoitzean bat. Lehena pentsatzeko izango da; bigarrena, eztabaidatzeko; eta hirugarrena, adosteko. Bilera horiek irekiak izango dira, eta deituta egongo dira: egun Eltzian dauden eragileak (hamazazpi), kide izateko asmoa dutenak (hamazazpi) eta eragile berriak.


Udal ordezkariak jaien egitarauaren aurkezpenean. | TXOMIN MADINA

## Egitaraua kalean dela, hasi da jaien hasieraren atzerako kontaketa

O.E. | OÑATI

Gero eta gutxiago geratzen da txantxikuaren jaitsierarekin batera herriko jai nagusiak ofizialki hasteko. Egitaraua etxez etxe banatzen ari dira, eta, Nerea Zubia Kultura zinegotziak azaldu duen moduan, lau irizpide hauek izan dituzte kontuan egitarau hori egiteko: "Adin guztietako herritarrek disfrutatu ahal izatea, herritarren zein herriko eragileen proposamenak egitarauan sartzea, emakumeen presentzia handitzea eta jaiak herriko hainbat txokotan banatzea". Antolaketa lanetarako herriko hainbat eragilerekin izandako elkarlana azpimarratu zuen Zubiak martitzenean egin zuten aurkezpenean. Horren adibide da aurtengo jaiek izango duten 190.000 euroko aurrekontutik 55.000 inguru herriko taldeen artean banatuko dituela Udalak.

**Ruper, Gose, Petti...**

Aurten ere bi asteburutan banatuko dira jaiak, baina asteburu honetako hainbat ekitaldi ere jaien egitarauaren barruan datoz; esaterako, Ruper Ordorikaren kontzertua. Oñatiarrak bihar, zapatua, joko du, gaztelekuan, 22:30ean. Petti, Gose eta Los Galerna entzuteko aukera ere izango da jaietan.

Berrikuntzen artean, parrokiatik txosnetara jarriko duten tirolina eta Beldur Barik gunea daude, adibidez.

## Mugikortasunarekin lotutako hainbat ekintza datorren astean

MAITE TXINTXURRETA | OÑATI

Astelehenetik (irailak 21) domekara Mugikortasun Jasangarriaren Astea ospatuko da Europa osoko hainbat hiri eta herritan, eta Oñatiko herriak ere bat egingo du ekimenarekin.

Udalak herriko mugikortasunari buruzko diagnosi bat egin du, eta horren gaineko informazioa dakarren diptikoa zabalduko du, besteak beste, eskoletan.

Txirrinka elkartekoek lanera bizikletan doazenei gosaria doan eskainiko diete. Horretarako, janari-postuak jarriko dituzte herrian.

**Eskoletako ekimenak**

Txantxiku ikastolaren eta Elkar Heziren kasuan, umeak eskolara oinez joateko kanpaina egingo dute. Hala, aste osoan zehar autoa alde batera utzi eta guraso laguntzaileekin batera umeak elkarrekin oinez joango dira ikastetxeetara.

Errekalden, aldiz, beste mota bateko ekintza egingo dute: eguenean, hilak 24, eskola kanpoaldeko espaloia zintekin babestuko dute. Azaldu dutenez, presak direla-eta batzuetan autoek ez dituzte espaloiak errespetatzen, eta horri lotutako kontzientzia sortu nahi dute.



Irutea, ehundegia, tapiza, feltroa, papera…
Birziklatu, mache papera, buztina, estanpazioa, fimo pasta…
Sukaldaritza ikastaroa

*Ordutegiak eta prezioa kontsultatu!*
Conchi Moreno
645 49 92 35
lanatalanmoreno@gmail.com

# 45 urte beteta, osasuntsu ospatu dute Haurren Eguna aurten ere

## Euskal Herriko hainbat herritako hamahiru dantza talde etorri dira, eta lehen aldiz antolatu zutenek omenaldia jaso dute Foruen plazan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatz izeneko kultura elkartea sortu zuten Oñatin 1966an. "Danborrada antolatzen genuen, aste kulturala, hitzaldiak... Ez Dok Amairu ere ekarri genuen Oñatira. Hemen izan ziren Lertxundi, Laboa, Lete eta beste hainbat. Baina dantza ere ekarri gura genuen herrira. Ordurako Arrasaten antolatzen zuten horrelako egun bat, eta hara joan ginen nola lan egiten zuten ikustera. Erabaki genuen Oñatin ere egitea. Irakasleak formatu genituen, txistulariak lortu, umeei dantzak erakutsi... eta horrela egin genuen lehen aldiz Haurren Eguna Oñatin, 1970ean", du gogoan Lourdes Idoiagak, Oñatz kultura elkarteko orduko presidenteak.

Hala, aurten 45 urte egin ditu Oñatiko Haurren Egunak, eta lehena antolatzen ibili ziren herritarrek omenaldia jaso zuten domekan: Jabier Etxezarreta, Lurdes Idoiaga, Ana Mari Kortabarria, Beatriz Igartua, Txaro Uribetxeberria, Begoña Urkia, Axun Plazaola, Lourdes Osinaga, Gotzon Osinaga eta Jesus Irizar *Txutxin*-ek. Berta Idigoras, Jabier Galdos eta Pedro Zelaia ezin izan ziren egon. Bestalde, gogoan izan zituzten hilda dauden *Mielin* eta Iñaki Zelaia.


Domekan omenaldia jaso zutenen talde argazkia. | OIHANA ELORTZA

### Babesa

Sortu eta 45 urte geroago osasuntsu dago Haurren Eguna; baita Oñatz dantza taldea ere. Urte hauetan guztietan Jesus Irizar *Txutxin*-ek egin duen lana eskertzeko, aipamen berezia jaso zuen omenaldian. Txalo zaparrada eskatu zuen harendako Idoiagak, eta Foruen plazan zeuden dantzariek eta dantzari ez zirenek txalo egin zuten. Emaztearendako kolore zuriko arrosa sorta ere jaso zuen Irizarrek, beti ondoan izan duelako. "Ikaragarria izan da Irizarrek egin duen lana", aipatu zuen Idoiagak. Txutxinek, aldiz, berarekin batera beste askok lan egin dutela adierazi zuen omenaldiaren bukaeran: "Aita dantzaria zelako-edo izan naiz ni taldearen agiriko aurpegia, baina Oñatzen askok egin dugu lan. Herriko elkarte gastronomikoek eta Udalak ere beti lagundu digute, aurrekontu guztiak onartu dizkigute. Beti izan dugu herriaren babesa". Eta babes horren adibide garbiena da domekako Haurren Egunera Euskal Herritik etorritako hamahiru taldeetako ume dantzariak oñatiarren etxeetan bazkaldu zutela.

Gaur egun, 300 ume dantzari eta 65 nagusi daude Oñatz dantza taldean.



**LOURDES IDOIAGA**
OÑATZ KULTURA ELKARTEA

**"Gobernadore zibilak kultura ekintzak egitea debekatzen zituen orduan, eta ikurrina legez kanpokoa zen. Haren koloreak erabilita diseinatu genuen lehen Haurren Eguneko bandera".**



**JESUS IRIZAR 'TXUTXIN'**
OÑATZ DANTZA TALDEA

**"Umeekin hasi ginen, neskekin eta mutilekin. Nagusiak 1975ean hasi ziren. Udaletxean bederatzi mutil dantzari zeuden, eta Oñatz dantza taldean sartu genituen".**



**MAITE IRIZAR**
OÑATZ DANTZA TALDEA

**"Orain arte *Txutxin*-ek egindako taldearen ardura lanak errelebo prozesuan daude. Hiru lagun gaude orain arduradun lanetan, baina Oñatz talde-lana da; talde oparoa da, gainera ".**

### Berbalagun egitasmoan izena eman daiteke

Berbalagun egitasmoan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago hilaren 25a arte. Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenen eta mintzapraktika egin gura dutenen arteko programa da Berbalagun, astean ordubetez talde txikietan batu eta euskaraz mintzatzeko programa. Euskaltegian eman behar da izena. Hango telefonoa da: 943 78 24 96.

### Zubikoa kiroldegiko kantxen zozketak eguenean dira

Kiroldegiko kantxen erreserbak egiteko zozketa egingo dute irailaren 24an. Zozketak kiroldegiko bulegoan egingo dituzte, 18:00etan. Zozketa bidez egingo diren erreserbek bi hilabeteko iraupena izango dute. Hala, zozketak bi hilabetean behin errepikatuko dira urtean zehar. Pilotalekua eta orotariko kirol kantxak zozkatuko dituzte.

### Eskola kirolean izena emateko epea zabalik dago oraindik

Ikasturte honetan eskola kirolean parte hartzeko izen-ematea zabalik egongo da hilaren 26ra arte. Ikastetxeetan eskola kirola koordinatzaileek banatutako triptikoan dagoen izen-emate atala bete, kuotaren sarrera egin, eta banketxeko ziurtagiria eta izen-emate atala koordinatzaileari eman behar zaio aipaturiko epean.

### 'Iparragirre Oñatin' liburua aurkeztuko dute kultura etxean

Iparragirre Oñatin egon zeneko garaia jasotzen duen *Iparragirre Oñatin* liburua aurkeztuko dute datorren eguaztenean, 19:00etan, kultura etxean. Iñaxio Irizarrek liburuaren egituraz berba egingo du aurkezpen horretan, eta Jose Mari Anduagak liburuaren abestiez. Olaitturri kultura elkarteak argitaratu du liburua.

NIRE USTEZ



AITOR UGALDE

## Egutegiko argazkia

Zutabea idazteko gaia topatu nahian gora begiratu eta egutegiko argazkiak eman dit atentzioa: iraileko orrialdean futbol talde baten argazkia, Aloña Mendiko gazte taldeetako batena. Aloña Mendiko futbol taldeen argazkiekin 2015erako osatutako egutegian talde honi tokatu zaio iraila; kasualitateagatik eta argazkiak hilabeteka banatzeko erabilitako irizpideagatik: talde handienetik txikienera daude jarrita argazkiak, mutilen talde guztiak aurrena, neskenak ondoren.

Egutegiak, ordea, ez dira ondo uztartzen futbolarekin, urte naturalak eta futbol urteak desberdinak direlako. Horregatik, Aloñaren egutegian azaltzen diren taldeak, aurreko denboraldikoak izaki, ez datoz bat oraintxe denboraldi berria hasi dutenekin. Iraileko argazkiko talde hori da denboralditik denboraldira izaten diren aldaketen adibiderik gordinena. Izan ere, denboraldi honetan Aloña Mendiko futbol sailean ez da egongo gazte mailako nesken talderik, eta ezta maila handiagokorik ere. Ondorioz, iraileko argazkian azaltzen diren jokalarietako bakar batek ere ez du Aloña Mendin jokatzen jarraituko.

Aloñarena ez da kasu isolatua, beste talde asko ere nesken ekipoak osatu ezinda omen dabiltza. Ahul dagoenak ahalegin berezia behar du, eta, kasu honetan, nesken futbolak; baina ez da ahalegin hori antzematen. Ekimenak taldeetatik etorri beharko luke, eta ingurukook lagundu. Baina nago Aloñaren egutegiko argazkien ordenak ondo islatzen dituela zeintzuk diren futbolaren, eta futbol taldeen, lehentasunak: mutilak lehenengo eta neskak, baldin badaude, ondoren.

# Bihar hasiko da 33. San Migel pilota txapelketa

Aurten herri mailako txapelketa indartu nahi izan dute antolatzaileek, eta arrakasta izan dute



Baseta eta Perez herriko pilota txapelketan. | OIER FERNANDEZ

MAITE TXINTXURRETA | OÑATI

Pilotarekin lotutako hitzorduak ez dira falta izango aurten ere Oñatiko jaietan. Beti bezala, Aloña Mendi Kirol Elkarteko pilota sailak Mikel Deuna txapelketa antolatu du. 33. edizioa izango da oraingoa, eta Gipuzkoako kadete eta gazte maileko pilotaririk onenak batuko ditu Zubikoa kiroldegian.

**San Migel txapelketa**

Bihar, zapatua, hasiko da Aloña Mendik antolatutako Mikel Deuna eskuz binakako txapelketa. Lehen finalerdiak jokatuko dira arratsaldeko seietan hasita.

Lehen partidua kadete mailakoa izango da, eta bertan, Arandiak eta Azpitartek osatutako bikotea Osaren eta Ibarlozaren aurka arituko da. Hala, garaileak urriaren 4an jokatuko den finalerako pasea lortuko dute.

Kadeteen norgehiagoka bukatu eta gero, berriz, gazteen txanda izango da. Kategoria horretan, Irazustabarrena-Azpitarte eta Osa-Ibarloza izango dira aurrez aurre frontoian.

Gainontzeko finalerdiak datorren zapatuan jokatuko dira, eta finala, urriaren 4an,

Aurten, nobedade bezala, elbarrien pala egokituko erakustaldi berezia antolatu du Aloña Mendik. Finalean izango da hori, bi partiduen artean.

**Herriko txapelketa**

Ekaina ezkero martxan dagoen txapelketa herrikoiari dagokionez, azken zortzi bikoteek jarraitzen dute jokoan, eta gaur hiru partidu jokatuko dira plazako frontoian: Igartua-Mantxola/Lizarralde-Orueta, Larrea-Gartzia/Bazeta-Perez eta Aranburu-Axibar Larrea/Anduaga-Arabaolaza; horiek izango dira gaur arratsaldeko norgehiagokak. Beste partidua, berriz, astelehenean izango da, ordu berean. Aberasturi eta Mendizabal Otxoaren eta Altunaren aurka arituko dira.

Finalerdiak datorren egubakoitzean jokatuko dira, 17:30ean, eta finala irailaren 30ean, eguaztena; jaietan, horrenbestez.

Aurtengo herriko txapelketa indartzeko asmoz, txosna batzordeak bat egin du Aloña Mendi Kirol Elkarteko pilota saileko antolatzaileekin, eta elkarlanean antolatu dute, hainbat aldaketarekin. Esate baterako, ekainera aurreratu zuten kanporaketen hasiera. Ekainean eta uztailean zehar jokatu ziren horiek, eta orain, abuztuko atsedenaldiaren ostean, finalerdiak eta finalak jaietan jokatuko dira.

Sariak ere inoiz baino potoloagoak izango dira aurten. Finalera heltzen diren lau pilotariek Donostian bazkaria eta profesionalen lau t'erdiko finalerako sarrerak lortuko dituzte. Finaleko bikote irabazleak, sari horretaz gain, txapela ere jasoko du, beti bezala.

## 417 lagunek eman dute aurrez izena Oñatiko I. mendi martxarako


Oñatiko lurretan egingo dituzte bi ibilbideak. | OÑATIKO MENDI MARTXA

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Bihar, zapatua, goizean izango da Oñatiko I. mendi martxa, eta antolatzaileen usterik onenak gainditu ditu. Dagoeneko 417 lagunek eman dute izena, baina parte-hartzaileen kopurua handiagoa izan daiteke, bihar goizean ere egongo delako izena emateko aukera. "Edari eta fruta gehiago erosi dugu. Parte-hartzaile guztiendako lain egotea gura dugu", adierazi du antolakuntza taldeko Josu Lizarraldek.

Martxa 07:30ean abiatuko da Foruen plazatik. Kontrol-mahaia, baina, 06:30ean zabalduko dute. "Apuntatu direnei esan gura diegu ez daitezela justu ordurako joan, aurretik kontrol-mahaitik pasa behar dute-eta. Ibilbidean zehar markatuko zaien txartel bana eta baso erabilgarri bana jasoko dute. Egunean bertan izena eman behar duena ere denboraz joatea komeni da, martxa puntuan abiatzeko", dio Lizarraldek.

Parte-hartzaile guztiak Foruen plazatik Mallaraino joango dira, nor bere erritmoan, eta han banandu egingo dira: ibilbide luzea egingo dutenak (36,2 kilometro) Urbia aldera joango dira eta motza egingo dutenak (24,3 kilometro), berriz, Araotz aldera. Martxa biek Foruen plazan izango dute amaiera. Zubikoako dutxak erabilgarri egongo dira parte-hartzaileendako.

## Haurrekin jolastu gura dugu ikasturte honetan ere

KOMUNITATEA GOIENA |
TXALOKA LUDOTEKA | OÑATI

Txaloka ludotekan ere hasi dugu ikasturte berria eta umeendako ekintzaz betetako iraila antolatu dugu. Ikasturte honetan ere 3 eta 9 urte arteko haurrekin euskaraz jolasteko prest gaude. Gaur, egubakoitza, esaterako, jolas erraldoiak egingo ditugu Foruen plazan. Eta datorren asterako: gozogintza, look aldaketa eta puzgarriak, besteak beste. Urriaren 1etik 9ra, gainera, ate irekien jardunaldiak egingo ditugu, Txaloka ludoteka nolakoa den eta zer egiten dugun ikusteko. Ludotekan bertan ez ezik, herriko kaleetara eta parkeetara ere joaten gara jolastera.

**Ate irekiak**

Ikusitakoa gustatuz gero, izena emateko aukera ere egongo da. Fitxa bat bete behar da horretarako, eta argazki bat ekarri. Ikasturtearen prezioa 60 euro da, bigarren umeak 50 euro eta hirugarrenak 40 euro. Telefonoz deitu gura izanez gero, hauxe da gure zenbakira: 943 25 07 15. Eta bestela, etorri Lizaur kalean dugun txokora eta zer egiten dugun azalduko dizuegu.

## San Martin auzoa jaietan izango da gaur eta bihar

M.T. | OÑATI

Gaur eta bihar ospatuko dituzte jaiak San Martin auzoan. Gaur, arratsaldeko zazpietan, etxafuego jaurtiketak eta Martintxo txerriaren *subidoiak* emango diete hasiera, hain zuzen.

Egunez, txorimaloak, trikitxaranga, umeentzako txapa tailerra... denetarik izango da. Eta gauez, berriz, kontzertuak, Crap, Kimera eta Los Zopilotes Txirriaos taldeekin.

**Azoka eta bizikleta martxa**

Bihar, zapatua, goizetik gauera egongo dira ekintzak auzoan. Goizez, esaterako, azoka egingo dute auzoko nekazarien produktuekin, eta ondoren, 14:30ean, auzo bazkaria izango da.

Nobedade gisa, arratsaldez bizikleta martxa egingo dute Olakuatik San Martinera. Bizikletak antolakuntzak jarriko ditu, eta bertan, *Monty* bizikleta bat zozketatuko dute, Caravanas Oñateren laguntzarekin.

19:00etan, berriz, garagardo dastaketa egingo dute auzoan, eta ondoren, Trikibonbo taldearekin dantzaldia izango da. Bukatzeko, 21:30ean, Martintxoren *bajonazuak* itxiko ditu jaiak.

## Eskubaloi txapelketa izango da bihar

O.E. | OÑATI

Mikel Deuna eskubaloi txapelketa jokatuko da bihar, zapatua, Zubikoako kantxan, 17:30ean. Aloña Mendiko senior mailako mutilen taldeak Eibarko Haritza taldearen aurka jokatuko du. Datorren urtean 40 urte egingo ditu Aloña Mendiko eskubaloi sailak, eta beste horrenbeste Mikel Deuna txapelketak.

Mutilen senior taldeak Euskadi mailan jokatuko du aurten. Urrian hasiko du denboraldia.



Emakumeak, Arkupen egindako batzarrean. | MIRARI ALTUBE

# Herriko emakumeen topagunea lehen pausoak ematen hasi da

- Horren berri emateko lehen bileran ia 80 emakume elkartu ziren Arkupen
- Asmoa da Ilargi plazan dagoen lokala, Zainduz zena, izatea topalekua

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Deialdia jaso zuten telefono mugikorrean herriko emakumeek bilera baterako, eta ez zuten hutsik egin horiek. Adin askotakoak eta hainbat jatorritakoak elkartu ziren Arkupen; ia 80 emakume entzuteko gertu. Eta jakin zuten emakumeen topagune bat sortu gura dutela Aretxabaletan, emakumeak elkartu eta jarduerak egiteko lekua: Emakume Txokoa. Proiektu horren nondik norakoak azaldu zizkieten, nondik datorren eta nora joan gura duen. Proiektuaren berri eman bai, baina oraindik Udalaren oniritziaren zain daudela argi utzita.

**Plangintza osatua**

"Feministok ez dugu ibilbide luzerik izan Aretxabaletan, Martxoaren 8an pankarta jartzera mugatu izan gara. Baina beti izan dugu zerbait egiteko gogoa", esan zuen Jasone Gorroñok, eta poliki-poliki aurrera egiten asmatu dute. Aurreko agintaldian, gainera, bultzada handia izan zuten Udalaren aldetik. Izan ere, Berdintasun Saila sortu zuten orduan, aurrekontu propioarekin, eta iazko azaroaz geroztik teknikaria ere badago, Amets Beltran de Gebara arrasatearra. Hala, berdintasun plangintza osatua du orain Udalak. Hor definitu dute, batetik, Aretxabaletako emakumeen ahalduntze prozesua; bestetik, zehaztu dute emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurrean zelan jokatu; eta hirugarrenik, udal barruko sailetan berdintasun politika ezartzen hasi dira. Eta plangintza horrekin udaletxean ordezkaritza duten alderdi guztiak ados agertu direla jakinarazi zieten ekimenaren bultzatzaileek Arkupen elkartutakoei.

**Emakume Txokoa**

Plangintza hori zelan gauzatu zehazten hasitakoan leku fisiko baten beharra igarri zuten. Hala, iazko ekainean Udalarekin hitzarmena sinatu zuten Ilargi plazako lokala, Zainduz gimnasioaren egoitza izandakoa, herriko emakume talde bati uzteko. Elkarte anitza izango dela iragarri dute horiek, emakumeendako "erreferentziako" lekua: "Guk gura dugu emakumeen topagunea izatea, emakumeen ahalduntze prozesuak posible egingo dituen espazioa. Izan ere, uste dugu parekidetasuna lortzeko behar behar beharrezkoa dela halako prozesuak bideratzea, bai maila indibidualean, bai maila kolektiboan", zioen Leire Estevezek. Eta iragarri zuten egongo direla hitzaldiak, ikastaroak eta beste hainbat kontu. "Hainbat jatorritako emakumeak eta ezaugarri sozial ezberdinetakoak elkartu gura ditugu han".

Proiektu horren berri udal ordezkaritza duten alderdiek ere badute: "Uste dugu begi onez hartu dutela, baina oraindik erantzunaren zain gaude. Gainera, ekarpenak egingo dituztela jakinarazi digute. Hortaz, oraingoz, zain gaude", gaineratu du Estevezek.

**Emakumeen Mundu Martxa**

Aretxabaletako emakumeek ere bat egingo dute urriaren 2an Bergarara iritsiko den Emakumeen Mundu Martxarekin. Hori girotzeko hainbat ekitaldi egingo dituzte datorren eguaztenean, irailak 23. Hona: 19:00etan, pauso moreak margotzea Lau Bankuko Plazan; 20:30ean, landare landaketa Ilargi plazan; eta 21:00etan, afari-merienda.

**ESANAK**

"Aretxabaletan feministok ez dugu ibilbide luzerik izan, baina zerbait egiteko gogoa beti izan dugu"

JASONE GORROÑO | FEMINISTA

"Emakumeen ahalduntze prozesuak posible egingo dituen espazioa izan dadin gura dugu"

LEIRE ESTEVEZ | FEMINISTA



Herritarrak bizikletan kiroldegi inguruan. | M.A.

# Bigarren eskuko bizikleta azoka eguaztenean plazan

Mugikortasun Astearen barruko ekitaldia da eta materiala astelehenean jasoko dute

M.A. | ARETXABALETA

Eguaztena ezkero Mugikortasun Astea egiten dabiltza Europako hainbat herrialde, eta Aretxabaletako Udalak ere joan-etorriak autoa erabili gabe egitera gonbidatu ditu herritarrak: "Irailaren 16tik 22ra zoaz aktiboki ikastetxera eta lantokira. Ez hartu autoa". Hala, bada, ume eta gaztetxo asko eta asko bizikletan, patinetan eta oinez doaz egunotan bai Kurtzebarri eskolara, bai Arizmendi Ikastolako Almenera.

**Urkulura irteera**

Domekan ere bizikleta hartuko dute askok, baina, orduan, Urkulu urtegira joateko. Izan ere, Guraso Foroak deituta –Gurabarri eta Batera guraso elkarteak, Kukumiku elkartea, Arizmendiko gurasoak eta Udala–, Urkulun bueltatxoa egingo dute umeek, gazteek eta helduek. 10:00etan irtengo dira Herriko Plazatik –gaztetxoenak helduek lagun eginda–, eta, buelta eman ostean, Eskoriatzako Torrebaso jolasgunera joango dira hamarretakoa egitera.

**Egoera onean dagoen materiala**

Eguaztenean, hilaren 23an, bigarren eskuko bizikleta azoka egingo dute, lehenengoz, herrian. 17:00etatik 19:00etara bitartean izango da, Herriko Plazan.

Saltzeko, baina, produktuak behar, eta horiek jasoko dituzte datorren astelehenean, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara Udalak plazan duen biltegian –Arkupe alboan–. Egoera onean dagoen edozein material onartuko dute: bizikletak, trizikloak, kaskoak, patineteak... Eta salneurria jabeak jarriko dio.

## Yolanda Arrietarekin ibilbidea egingo dugu liburutegian urriaren 3an

KOMUNITATEA GOIENA | HAUR LIBURUTEGIA | ARETXABALETA

Irakurzaletasuna bultzatzeko helburua duen *Bularretik mintzora* egitasmoaren barruan guraso lantegiak antolatu ohi ditugu. Hurrengo saioa Yolanda Arrieta idazlearekin egingo dugu, eta izenburua da: *Ibilbide bat liburutegian barrena*.

Landuko diren gai batzuk honako hauek dira: 0 eta 6 urte bitarteko haurrentzat liburuak non dauden; ze irizpide erabili aukeraketa egiteko; ze ohitura har daitezkeen irakurzaletasuna haurrengan sustatzeko... Urriaren 3an, zapatua, izango da, 10:00etatik 13:00etara, liburutegian.

Gurasoak ez ezik, interesa duen edozein lagun gertura daiteke. Eta izena eman behar da aurrez, irailaren 25a baino lehen, liburutegian bertan: *haurliburutegia@aretxabaleta.eus* helbidera idatzita edo 943 08 10 01 telefono zenbakira deituta.

## Hiruko saskibaloi txapelketa egingo du Eskoriatza kirol elkarteak gaur, egubakoitza, Mitarte kalean

Saskibaloi erakustaldia egin gura du Eskoriatza kirol elkarteak Aretxabaletan, neska-mutikoek kirol hori ezagut dezaten eta jokatzera anima daitezen. Hiruko txapelketa izango da, batetik, 2006an eta 2007an jaiotako neska-mutikoendako, eta, bestetik, 2002 eta 2005 artean jaiotako neskendako. Mitarte kalean izango dira partiduak, 17:00etan hasita, eta izena bertan emango dute 16:00etatik aurrera. Zortzi minutu iraungo dute partiduek, eta guztiek jasoko dutela oparitxo bat iragarri dute antolatzaileek.

# Ludoteka ezagutzeko ate irekiak izango dira astelehenetik aurrera

Hainbat jarduera izangο dira eguenera bitartean, barruan eta kanpoan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Algara ludotekak ateak zabalik izango ditu astelehenean hasi eta eguen ilunkera bitartean (17:30-19:00). Ohi legez, ikasturtea hasi aurretik, Gernika plazan dagoen egoitza bera eta han egiten diren jarduerak ezagutzera eman gura dizkiete herriko neska-mutikoei eta haien gurasoei.

Astelehenean gaztetxoenendako zabalduko dituzte ateak. Haur Hezkuntzako lehenengo mailakoak joan ahal izango dira, betiere, heldu batek lagun eginda. Martitzenean Herriko Plazara joango da ludoteka, eta han jolasak egingo dituzte. Eguaztenean, Gernika plazan, egoitza inguruan jardungo dute jolasean; eta eguenean, irailaren 24an, ludotekan bertan elkartuko dira interesa duten guztiak. Ezustekoren bat ere izango dute orduan.



Neska-mutikoak jolasean Algara ludotekan. | M.A.

### Izen-ematea zabalik

Ludoteka 3 eta 12 urte arteko neska-mutikoendako topalekua da, jolaserako eta harremanetarako Udalak eskaintzen duen zerbitzua, hain zuzen ere.

Izena emateko epea zabalik dago, eta ludotekatik pasatu behar da. Ordutegiaren gaineko argibideak ere han dituzte –943 79 05 81 edo *loramendi.aisia@gmail.com*–. Urteko kuota 60 euro da.

# Futbol eskola martxan izango da datorren astean

Ibarrako ateak zabalduko dituzte domekan 2007an jaiotako neska-mutikoendako

M.A. | ARETXABALETA

Domekan Ibarra futbol zelaiko ateak zabalduko dituzte 2007an jaiotako neska-mutikoendako. Futbol eskolaren martxa bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute han, eta zalantzak argitzeko ere bai. Eta astelehenean, irailaren 21ean, lanean hasiko dira eskolako jokalari guztiak.

### Entrenamendu saioak

2006an eta 2007an jaiotakoek 16:45ean izango dute lehenengo entrenamendu saioa astelehenean, eta 2005ean jaiotakoek, 18:00etan. "UDAk mimo handiarekin prestatu du aurten ere futbol eskola, eta interesa duten neska-mutikoei futbolean haztekο eta formatzeko aukera eskaini nahi die", adierazi dute elkarteko ordezkariek. Entrenamendu saio horretan jakinaraziko diete futbol eskolak izango duen ordutegia eta urte osoko egutegia.

Kimuek, 2004an jaiotakoek, ostera, eguaztenetan eta egubakoitzetan izango dituzte entrenamendu saioak, 17:00etan.

### Gurasoekin bilerak urrian

Horren guztiaren berri emateko, gurasoekin bilerak egingo dituzte UDAko ordezkariek urriaren 1ean Ibarra kiroldegian. Futbol eskolakoen gurasoen bilera 18:00etan da, eta informazioa ematearekin batera zalantzak argituko dizkiete.

Kimuen bilera, ostera, 19:00etan izango da, eta oinarrizko futbolaren gainean UDAk zehaztu duen estrategiaren berri emango dute.

# Kiroldegiko jarduera gehienak abian dira baina izena emateko epea zabalik dago oraindik

M.A. | ARETXABALETA

Hasi berri den 2015-2016 denboraldiko kirol jarduera asko abian dira astelehena ezkero Ibarra kiroldegian. Hala ere, izen-emate epea oraindik zabalik dago –taldea osatzeko hamabi lagun eskatzen dituzte–, eta harrerara jo besterik ez dute interesatuek. Izena ematerakoan, jardueren alta-orria bete behar da, eta ezinbesteko baldintza da abonatua izatea.

### Gazteendako jarduera

Igerilekuan ikastaro mordoa daude neska-mutikoendako adinaren arabera banatuta: haurtxoak; 3 eta 4 urtekoak; eta 5 eta 10 urte artekoak. Helduendako eskolak ere badaude: batetik, hastapena; eta bestetik, hobekuntza, eta errendimenduko taldea ere badago.

Horrez gain, areto bizikleta eskolak daude; eta *nordic walking* eta korrika taldea. Gimnasia aretoan hainbat jarduera ere bai, besteak beste, honako hauek: sasoian egoteko gimnasia, yoga, *zumba* eta pilatesa. Gaztetxoendako, ostera, 12 eta 16 urte artekoendako, *zumba* eta areto bizikleta jarduerak daude.

## Patata Tropikalak 'Eguzkilore' lana eskainiko du domekan

*Eguzkilore* antzezlana aurkeztuko die Patata Tropikala taldeak neska-mutikoei domekan, 17:00etan, Arkupen; sarrera 3 euro da.

Euskal mitologiako pertsonaiarik ezagunenek –Mari, Basajaun, Tartalo...– basoan murgilduko dituzte umeak, eta, umorea eta irudimena nagusi direla, istorioan zehar gidatuko dituzte.

## 'Breakdance' eskolak hasteko taldea osatu guran dabiltza

*Breakdance* ikastaroa antolatu du Kultura Sailak, eta izena emateko epea zabalik dago. Gaztetxoendako izango da ikastaroa, 10 urtetik gorakoendako, eta hamabost lagun gura dituzte taldea sortzeko. Hileko bigarren zapatuetan izango dira eskolak.

Argibideak gura dituztenek Arkupe kultura etxera jo dezatela (943 08 10 01).

## Pintura ikasleen lanak daude ikusgai Arkupen irailean

Marije Carrillo irakaslearekin pintura eskolak jaso dituzten emakumeen lanak ikusgai daude Arkupeko erakusketa aretoan. Hona ordutegia: astelehenetik egubakoitzera 11:00etatik 13:00etara eta zapatuetan 11:00etatik 13:00etara.

Urrian hasiko dituzte pintura eskolak berriro, eta izena emateko epea zabalik dago; argibideak, Arkupen.

# Norberaren 'clown' pailazoa topatzeko ikastaroa urriaren 3an

M.A. | ARETXABALETA

*Clown* pailazoak zer diren eta zer egiten duten ikasi gura dutenendako ikastaroa antolatu du Jaiki elkarteak. Aurretik *clown*-ean jardun dutenek ere ateak zabalik izango dituztela iragarri dute antolatzaileek. Ikastaroa izango da urriaren 3an, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, kuartelean.

### Dibertitzeko ahalmena

"Frantziako *Bataclown*-en eta Ingalaterrako *Nose to nose*-ren ildoa jarraituko da. Ikastaro horren asmoa da nork bere *clown*-a aurkitzea dibertitzeko ahalmena garatuz. Horretarako, honako ahalmen hauekin, *clown*-ak bereak dituenekin, egingo da lan: entzutea, eskuzabaltasuna, onarpena, irudimena, inprobisazioa...", jakinarazi dute Jaiki kideek. Eta lan horretan, Maite Pinedo irakaslea izango dute bidelagun.

### Izen-ematea zabalik

Argibideak jasotzeko eta izena emateko, Jaikiko kideengana jo behar da. Hona bideak: 943-53 43 96 eta *jaikielkartea@yahoo.es*. Ikastaroaren prezioa 35 euro da; eta langabeendako, 30 euro.

Jaikiko kideek jakinarazi dute hasieran egun bakarreko ikastaroa izango bada ere, aurrerago luzeagoa egiteko asmoa dutela.



FELIS BELTRAN DE HEREDIA

# Eskailera Kurtzebarrira bidean

**Ezusteko pozgarria hartu zuten domekan Kurtzebarri egunera joan ziren mendizale askok. Izan ere, San Juan Txiki ermitatik gora, tontorrera bidean dagoen aldaparik gogorrenean eskailerak egin eta soka jarri ditu baten batek, samurrago igotzeko. Hori egin duenak ondo asmatu duela esan zuten, eta esker oneko agertu ziren mendizaleak.**

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

NIRE USTEZ



MAIDER OTAMENDI

## Etorkinen drama

Itsasoak ekarritako haurtxo baten zerraldoa hondartzan botata ikusita, nola eutsi negarrari? Eta ehunka pertsona tren baten sartu eta ganadua balitz bezala noraezean eduki dituztela ikusita, nola ez samindu?

Oso irudi gogorrak ikusi ditugu, pertsona hotzenari ere barrua ondo astintzeko modukoak, baina negargura handiena ematen didana Europako agintari gehienen motelkeria eta zurikeria da. Gizarteak kalera irten eta benetan erreakzionatzeko eskatu duen arte, apenas egin dute ezer. Eta eskaera honi erantzunez zerbait egiten ari direla erakusteko, agintari batzuk arazoari partxeak jartzen hasi dira, beste batzuen kontrako iritziarekin.

Siriakoa ez da bat-batean hasitako gatazka. Urteak daramatzate egoera tamalgarrian. Bai han eta baita munduko beste herrialde askotan ere. Gose eta gerratik ihesi, daukaten guztia atzean uzten dutenak milaka eta milaka dira, bizitza *hobe* baten bila datozenak Europa *zibilizatu* eta *oparora,* bidean edo helmugan zer aurkituko duten imajinatu ere egin gabe. Eta beste milaka eta milaka izango dira etorri nahiko dutenak, tokian tokiko arazoei irtenbiderik aurkitzen ez bazaie, eta, noski, kapitalismo basati eta krudel honek herrialde haietan dituzten interesetatik bere atzaparrak urruntzen ez dituen bitartean.

**"Gose eta gerratik ihesi, daukaten guztia atzean uzten..."**

# Dena gertu dago Apotzagako goitibehera lasterketarako

## Pilotuek 1,4 kilometroko bidea egin beharko dute helmugara iristeko

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Eskoriatzako Goitibehera Zaleak taldeak antolatutako Apotzagako goitibehera lasterketak hirugarren urtea beteko du aurten, eta antolatzaileak eta pilotuak irrikan daude eguna heltzeko. Lasterketa bihar izango da eta 60 pertsonak hartuko dute parte, horietatik hemeretzi eskoriatzarrak izango dira gainera. Lehenengo, Manuel Muñoz kiroldegi aurreko parkean batuko dira pilotuak, 15:00 aldera, eta entrenamendu jaitsiera egin ondoren emango diote hasiera lasterketari, 16:00 inguruan.

Lasterketan, Apotzaga auzotik Intxaurtxueta auzorainoko 1,4 kilometroko jaitsiera egingo dute pilotuek, eta bertan, *drift trike,* pneumatikoak, arinak, errodamenduak… mota guztietako goitibeherak ikusi ahal izango dira.

Euskal Ligarako puntuagarria izango da lasterketa, dagoeneko erabakita egon arren irabazleak zeintzuk izango diren. Jokin Gutierrez eta Aitor Zabaleta –auto pilotu ezagunaren semea– dira Euskal Ligako txapeldunak. Hala eta guztiz ere, zapatuko lasterketan egongo dira ikuskizuna ematen. Bestalde, Euskal Ligan lehian ari diren Eskoriatzako hamar pilotu inguru ere izango dira bertan, sailkapenean aurrera egiteko denbora onenak lortzeko helburuarekin.



Iaz, Apotzagako goitibehera lasterketako pilotu bat kurba hartzen. | IMANOL SORIANO

Eskoriatzako Goitibehera Zaleak taldeko Jose Angel Urrutia antolatzailearen esanetan: "Apotzagako jaitsierako partaide kopurua urtez urte handitzen joan da, eta aurten pilotu eta ikusle gehiago espero ditugu".

### Ibilgailu barregarrienari saria

Modalitate bakoitzean podiuma lortzen dutenek saria izango dute. Emakume azkarrenak ere jasoko du saria, eta baita Eskoriatzako azkarrenak ere… baina sari berezia ibilgailu barregarriena duenak jasoko du; antolatzaileek ere prestatuko dute ibilgailu barregarri bat, urtero egiten duten moduan, baina euren goitibehera sari horretatik kanpo egongo da.

Bestalde, lasterketa hori babestu duten enpresek jarritako produktuekin zozketa egingo dute pilotu guztien artean.

### Arriskuak saihestu nahian

Goitibeherek abiadura handia hartzen dute, eta, partaideek eta ikusleek izan ditzaketen arriskuak saihesteko, hainbat neurri hartu dituztela azaldu du Jose Angel Urrutiak: "Bi anbulantzia egongo dira, 150 lasto-fardo, eta ikusleak errepidera irten ez daitezen hesiak jarriko dituzte helmuga inguruan. Gainera, bihurgune bakoitzean bi komisario egongo dira, zerbait gertatzen bada laguntza emateko…".

# Euskaraz berba egiteko Mintzodromoa antolatu dute

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzako Berbalagunek antolatuta, euskaraz berba egiteko Mintzodromoa prestatu dute datorren egubakoitzerako, irailaren 25erako.

Berbalagunen izen-emate kanpaina abian jartzeko lehen ekintza izango da. Hala, talde txikietan eserita ordubetez euskaraz berba egiteko batuko dira euskara praktikatu, ikasi eta erakutsi nahi dutenak. Plazan mahaiak egongo dira, eta, horietako bakoitzean, herriko gai baten gaineko solasaldia egingo dute. Miriam Isasmendi Berbalagunen koordinatzailearen esanetan: "Gure presentzia sumatzeko kalera atera nahi izan dugu, eta hurbiltzen direnek euskara praktikatzeko, jende ezberdina ezagutzeko aukera… izango dute".

Mintzodromoa 19:00etan hasiko da, eta izena eman nahi duenak kultura etxera joanda, *berbalagunak@gmail* helbidera idatzita edo 661 746 376 telefonora deituta egin dezake. Gainera, egunean bertan ere eman ahal izango da izena, zazpiak aurretik plazara joanda.

### Saioa amaitzeko, luntxa

Euskaraz jardun ondoren, Mintzodromoan parte hartu dutenentzako luntxa izango da, 20:00etan, herriko plazan.

# Kanta mexikarrak eta bertso musikatuak izango dira garagardo azoka solidarioan

I.B | ESKORIATZA

Jose Arana zaharren egoitzari laguntzeko garagardo azoka lau egunez egongo da zabalik. Ez da jatekorik eta edatekorik faltako, eta giroa handitzeko asmoz, Eskoriatzako Alaitzen taldeak kanta mexikarrak abestuko ditu gaur, 18:00etan.

Mariatxien ostean, Hankamotx bertso eskolakoek ikasturteko hasierako ekitaldia egingo dute. Hala, Jon Martin eta Oskar Estanga izango dira, 20:00etan, bertso musikatuekin.

### Parte hartzeko gonbidapena

Zaharren egoitzako patronatuak herritarrak animatu nahi ditu tonbolan eta jai solidarioan parte hartzera.

Bestalde, lan-txandak egin nahi dituenak ere ateak zabalik izango ditu.




# Ibarraundi museoaren IV. argazki lehiaketan parte hartzeko epea zabalik

Ibarraundi museoak laugarren aldiz antolatu duen argazki lehiaketara argazkiak bidaltzeko epea urriaren 1ean amaitzen da. Argazkiak *ibarraundi@eskoriatza.eus* helbidera bidali behar dira, eta herritarrak dagoeneko hasi dira argazkiak bidaltzen. Ibarrauinditik gonbidapena egin dute herritarrak anima daitezen. Izan ere, 50 axtrokiko hiru sari daude, eta irabazteko aukera asko.



MIRARI ALTUBE

# Kirol elkartekoak talde argazkian

Eskoriatza kirol elkarteak zapatu eguerdian, hilaren 12an, aurkeztu zituen 2015-2016 denboraldian norgehiagokan jardungo duten taldeak. Saskibaloiko eta areto futboleko maila guztiek talde argazkiak atera zituzten, baina helburua zen herritarrei erakustea kirol elkartean zenbat ume eta gazte dauden.

**Aitzol Iturbe** | Baserritarra

# "Baserritik bizitzea buruan izan dut"

Otsaila ezkero, Aitzol Iturbe antzuolar gazteak baserriko lanetan dihardu; bertako produktu ekologikoen aldeko apustu garbia egin du, gainera

**MAIDER ARREGI** | ANTZUOLA

Antzuolako Irimo auzoko Idalatorren dauzka Aitzol Iturbe baserritarrak ortu ekologikoak. Otsaila ezkero herriko familiei saskiak banatzen dizkie.

**Nolatan animatu zara baserriko lanak egitera eta hortik bizitzera?**
Aspaldian neukan buruan baserritik bizitzeko aukera hau. Familiaren lurretan lan egiteko aukera nuen, eta orain animatu naiz martxan jartzera proiektu hau. Betidanik gustatu zait; bete egiten nau elikadura burujabetzari ekarpen txiki bat egiteak.

**Produktu ekologikoen aldeko apustua egin duzu.**
Egun ingurumenarekiko dagoen kontzientziarekin, gainera, ez dut zalantzarik izan. Lurra eta ura pestizidekin kutsatzea ez zait burutik pasa ere egin, jakinda gero guk jan behar dugula.

**Otsailean hasi zinen; zein balorazio egiten duzu?**
Lana den arren, oraindik nobedadea da, eta oso gustura nabil. Txikitatik ikusi izan dut baserriko lana, eta asko eskertzen diet aitonari eta amonari, hein batean, behintzat, transmisio hori egin izana.

**Laguntzarik eta babesik jaso duzu?**
Bai. Asko laguntzen dit familia osoak. Herrian kontzientzia handia dago eta bertako produktu ekologikoen eskaera ere badago.

**Saskiak banatzen dituzu astero.** Bai. Izena eman dutenei astean behin daukadanaren eskaintza bidaltzen diet; astean bitan eskatzeko aukera daukate eta etxera eramaten diet. Badira, ordea, lau familia beraiek zer nahi duten eskatzeke daukadanetik jartzen diedanak. Aurrera begira, azken formatu horretan oinarritu nahi nuke nire salmenta. Kontsumitzaileekin komunikazio estuan, betiere, lurrak erabiltzeko eraginkorrena delako, batetik; eta segurtasuna ematen diolako baserritarrari, bestetik. Jeneroa daukadan bitartean eskaera irekiekin ere jarraituko dut.


Aitzol Iturbe, Idalatorre baserriko ortuetako batean. | MAIDER ARREGI

**"Bete egiten nau elikadura burujabetzari ekarpena egiteak"**

**Udazkenerako eta negurako zer daukazu landatuta?**
Oraindik udan sartutakoak ditut: letxugak, tomateak, kalabazinak, piperrak... Landatu berri, aldiz, azaloreak, porruak, brokoliak... ditut.

**Hiru ortu dituzu; lan faltarik ez duzu izango txukun edukitzeko.**
Familia osoa daukat laguntzen. Gehienbat, gurasoak. Orduak kontatzen hasiz gero... Pixkana neurria hartzen eta ikasten joan beharko dut.

**Nola jaso daiteke saskia?**
Mota bateko edo besteko zerbitzua jaso nahi duenak eskaera egin dezake idatziz *idalatorre@gmail.com* helbidera.

# Nogueirasek "ilusioz eta gogoz" ekin dio denboraldi berriari

Bihar, zapatua, Antzuola Futbol taldeak Mondra taldea jasoko du etxean, Eztalan

**M. A.** | ANTZUOLA

Bihar, liga hasiko du Antzuola futbol taldeak. Denboraldi berrian, Juanjo Nogueiras bergararraren gidaritzapean izango da taldea. Nogueiras eskarmentudun entrenatzailea da eta Bergara futbol taldeko kategoria guztietan jardun du. "Ilusioz eta gogoz" abiatu duela erronka berria azaldu du. "Proiektu eta aukera berri bat da niretzako. Jokalari berriak dira eta guztia da berria niretzako". Nogueirasek, baina, ez du hasiera erraza izan; izan ere, entrenatzaile lanetan hasi zen unean, Antzuolak bost jokalari bakarrik zituen. "Zuzendaritzak sekulako lana egin du. Eurak ia %100ean jokalari guztiak bilatzeaz arduratu dira", argitu du Nogueirasek.

Hala, antzuolarrek, bergararrek eta eskoriatzarrek osatzen dute, oraingoz, taldea. "Hemezortzi lagunek dute fitxa eginda, nahiz eta hogeita bost entrenatzen diren gaur egun Eztala futbol zelaian. Gure asmoa da antzuolarrei lehentasuna ematea, eta, norbaitek taldearen parte izan gura badu, aukera ematea. Horregatik, beste talde batera joan diren antzuolarrek aukera dute gura badute gurera etortzeko, garaiz dabiltza-eta", azpimarratu du.

**Derbia bihar**

Antzuolak iazko denboraldian ondo ibili zen Mondra hartuko du zapatuan, 17:00etan. Partidua gogorra izango dela badaki Nogueirasek. "Mondra finkatutako taldea da; iaz, gainera, justu-justuan ez zuen igoera lortu. Gurea, aldiz, elkar ezagutzen diharduten jokalariz osatua dago. Joko-sistema berrira ohitzen ari dira oraindik. Eta bi entrenatzaileak berriak gara. Denboraldi hasiera da, eta ikusi egin behar... Oraingoz, epe luzera lehiakorrak izatea da gure asmoa", nabarmendu du.


Juanjo Nogueiras, Bergarako Irizar jauregiaren atzealdeko parkean. | M. A.

## 'K-strech' metodoa gertutik ezagutzeko, ate irekiak

Antzuolako udal gimnasioak ate irekien lehen jardunaldia egingo du gaur, *K-strech* metodoa herritarrei gerturatzeko. Danilo Barzio metodoaren sortzailea bertan izango da. Helburua da gihar kateen luzatzeen bidez gorputzaren ongizatea bilatzea; baita fitness maila hobea lortzea ere, egindako lan global horri esker. Hilaren 22tik 25era ere antzuolarrendako ate irekiak antolatu ditu gimnasioak.


MAIDER ARREGI

## Udalak auzoz auzoko erronda egin gura du bakoitzaren egoera zehatza zein den jakiteko

Irailaren 21ean auzoz auzoko erronda egiten hasiko da Antzuolako Udala. "Errondaren helburuak auzoetan egon daitezkeen arazoak zuzenean ezagutzea, ikustea eta entzutea dira; baina baita auzotarren iradokizunak, ekarpenak eta gogoak jasotzea ere", azaldu du Beñardo Kortabarriak, Antzuolako alkateak. Baina, horrez gain, erronda horrekin, bizikidetzarako ohitura onak berriro gogora ekarri gura ditu Udalak, eta praktikan jartzea kasuak kasu aztertuz eta hausnartuz.

## Antzuolako Auzoko egitasmoa bueltan da berriro, eta, ohi duen moduan, eguaztenero egingo dute

Oporren bueltan, irailean abian da Auzoko programa. Eguaztenero egingo dute, Olaranen, arratsaldeko seietan hasita. Auzoko programaren dinamizatzaileak gogorarazi du herritar guztiei zuzendua dagoela eta ateak zabalik izango dituztela. Euskaratik urrun daudenak gerturatzea du helburu Auzokok. Hala, *auzotarrek* eta *auzokideek* euskara modu ludikoan ikasteko aukera izango dute. Informazio osoa honako webgune honetan: *www.topagunea.eus/auzoko*.

**Ander Bengoa** | Ziklista

# "Erregularra naiz, eta hori da Openean kontuan hartzen dena"

- 2015eko BTT Euskadiko Opena irabazi du Ander Bengoa aramaioarrak
- Martxoaren 8an hasi zuten denboraldia; azaroaren 22an bukatuko dute

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Ander Bengoak BTT Euskadiko Opena irabazi berri du Master 30 mailan. Iaz hasi zen lehiatzen, eta, lortutako emaitza onak ikusita, Nafarroako Conor Saltoki Berriainz taldeak fitxatu zuen. Euskadiko Openeko zazpi probak kontuan hartuta, 369 puntu lortu ditu aramaioarrak 2015ean.

**Zorionak! Espero zenuen horrelako emaitza onik lortzea?**

Eskerrik asko. Iaz hasi nintzen lehiatzen, eta ez nekien nola ibiliko nintzen. Hala ere, hor aurrean ibiltzea espero nuen, saltsan.

**Ze asmorekin hasi zenuen denboraldia?**

Nire asmoa saltsan egotea zen. Badakit agian ez naizela onena, baina erregularra naiz, eta hori da Openean kontuan hartzen dena.

**Openeko proba guztietan ibili zara aurrealdean.**

Bai, proba guztietan ibili naiz hor aurrealdean. Hala, azkeneko proba jokatu genuenerako nahiko puntu nituen Euskadiko Opena irabazteko.

**Euskadiko Openeko lehenengo proba Aramaion jokatu zenuten. Berezia da etxean lehiatzea?**

Ez pentsa. Proba asko daude bereziak direnak: Nafarroan, adibidez, zirkuitu politak daude, eta Pasaiako ere oso polita da.

**Bukatu duzu denboraldia?**

Ez, oraindik ez. Azaroaren 22an bukatuko dugu denboraldia. Egia esan, luze egiten dabil. Martxoaren 8an hasi ginen lehiatzen, eta, ordutik, aste bukaera guztietan izan dugu probaren bat; kontratuz, probetan parte hartzera behartuta nago. Bi ordu inguruko probak izaten dira, baina guztia ematen dugu bi ordu horietan.

**Datorren denboraldian ere Nafarroako taldean jarraituko duzu?**

Ez dakit, hori ikusteko daukat oraindik.



Ander Bengoa podiumean. | ANDER BENGOA

# Bariku eta domeketan izango dira San Martin txapelketako partiduak

Gaur, 18:00etan hasiko dituzte lehiak: bost norgehiagoka jokatu dituzte, bikoteka

A.E. | ARAMAIO

Abian da Aramaioko San Martin pilota txapelketa. Bariku eta domeketan jokatuko dituzte partiduak iraila eta urria bitartean. Finalerdiak azaroaren 6an izango dira eta finalak, azaroaren 8an.

**Bigarren aldia**

Aurtengo San Martin txapelketa bigarrena izango da. Iaz hasi ziren sariketarekin: "Ikusi genuen iraila eta urria bitartean umeak pilota partidu barik zeudela; izan ere, lehiak azaroan hasten dira", azaldu du Josu Olaizolak. "Hala, Arabako Federazioari proposatu genion txapelketa bat egingo genuela Aramaion, eta ondo iruditu zitzaien", dio Olaizolak.

16 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako txapelketa da. Pilotariak lau mailatan sailkatuta daude: alebin, benjamin, infantil eta kadete.

**100 pilotari inguru**

Arabako hainbat elkartetako pilotariak dabiltza txapelketan: Gasteizko Adurtza, Zaramaga eta Txukun Lakua, Amurrio, Legutio, Murgia, Laudio eta Aramaio. Denera, 47 bikotek eman dute izena; bikote batzuk hirukoak direnez, 100 pilotari inguru dira.

Gaur, barikua, 18:00etan hasiko dituzte lehiak; guztira, bost partidu jokatuko dituzte. Etzi, domeka, 10:00etan hasita, sei partidu jokatuko dituzte Aramaioko pilotalekuan.



Joan den asteko partidua: Zaragamaren eta Herriaren artekoa. | JOSU OLAIZOLA


MIRARI ALTUBE

## Kofradiaren historia zabaltzen

Ibabeko Andra Mari eguna giro onean ospatu zuten domekan. Meza eta hamaiketakoa izan zuten lehenengo, eta ondoren, Ibabeko Andra Mari kofradiaren historia jasotzen duen liburuaren aurkezpena egin zuten, Velez de Mendizabal idazlea han zela. Liburua 10 euroren truke dago salgai Okindegian, Kintalen eta udaletxean, eta baita Arrasateko Elkar liburu dendan ere.

# Jazz musikaz gozatzeko aukera egongo da gaur

A.E. | ARAMAIO

Gasteiztik etorritako El Sindrome De Stendhal taldeak jazz musikarekin girotuko du Sastiña gaur iluntzean. Jazza da euren musikaren oinarria, baina jazz estilo berezia egiten dute: gipsy-jazz estiloa. Ameriketako swinga eta Europako ekialdeko ijitoen folklorea nahasten dituzte.

**Gasteizko boskotea**

Bost lagunek osatzen dute Gasteizko taldea: Pedro Salazar –kontrabaxua–, Enrique Loyola –kitarra–, Javi Antoñana –kitarra–, Nika Bitchiashvili –biolina– eta Susana Cencillok –akordeoia–. Vital Kutxaren babesa duen emanaldia izango da, gaur, egubakoitza, 19:30ean Sastiñan aurkeztuko dutena.

## Rallysprinta dela-eta bidea moztuko dute bihar Irubireta eta Andramari artean, 14:00etan

Aramaioko XIV. rallysprinta jokatuko dute bihar. Lehenengo autoa 15:00etan irtengo da, baina bidea aurretik moztuko dute: hain zuzen, 14:00etan. Irubireta eta Andramari arteko errepidean izango da rallysprinta, A-4024 eta A-4025 errepideetan. 20:00etan iritsiko da lehenengo parte-hartzailea plazara, eta orduan, berriro ere zabalduko dute bidea.

## Irailean zehar udaletxean eman beharko da izena AEK-k eta Udalak antolatutako euskara ikastarorako

AEK-k, Udalaren laguntzarekin, hainbat ikastaro praktiko jarri ditu martxan. Horietan izena emateko epea zabalik dago; interesatuek udaletxean eman beharko dute izena irailean zehar. Euskara ikastaroak hiru mailatan banatu dituzte: behe maila, A1; erdi maila, B1; eta goi maila, B2. Hiru ikastaroak urritik ekainera bitartean izango dira, astean bi egunetan, egunean bi ordu.

## Nekazari ibilgailuen azterketa teknikoa Aramaion bertan egingo dute irailaren 22an, goizez

Irailaren 22an nekazari ibilgailuen azterketa teknikoa egiteko aukera egongo da Aramaion bertan. Bi gune jarriko dituzte horretarako, Oleta auzoan bata eta Ibarran bestea. Oleta auzoan 09:15ean izango da eta Ibarran, Arbelen, 10:30ean. Azterketa teknikoa egiterakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa ondorengoa da: zirkulazio baimena eta inspekzio teknikoko txartela, hain zuzen ere.

ELGETA

# Nork bere onena erakusteko aukera emango du asteburuak

## Herri azoka, Intxortara igoera, patata-tortilla lehiaketa... beteta dator agenda

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Bihar, zapatua, bederatzi ortuzainek eta bi artisauk ipiniko dute postua herriko azokan. Sesto Gain, Olaegi, Zezeaga, Larrabiltxo, Altube, Zabaleta eta Jalotza baserriek postua ipiniko dute 10:30ean zabalduko den azokan. Baita Jose Antonio Ojangurenek eta Rachida Moutasabehk ere. Lorena Ibeas eta Igor Herce artisauak ere bertan izango dira.

Herriko ortuzainek ekoiztutako produktuak erosteko aukera emango du azokak. Baita txorimalo lehiaketan eta Intxortako igoeran parte hartzeko aukera ere. Txorimaloek 10:30erako egon behar dute plazan, eta lasterketak 11:00etatik aurrera jokatuko dira. Hiru kategoria egongo dira: 12-16 urte artekoak, 16 urtetik gorakoak eta bikote mistoak. 12 urtera arteko umeek Salbador ermitarainoko joan-etorria jokatuko dute. Arratsalderako, Sagardo Eguna eta patata-tortilla lehiaketa antolatu ditu gaztetxeak. Sukaldariek 18:00etarako egon beharko dute herriko plazan.



Baserritarren azoka, iaz. | L.Z.

### Vespak eta Lambrettak

Domekarako Vespa eta Lambretta motorren X. topaketa dago iragarrita. 12:30ak bitartean egongo dira motorrak plazan. Ehun bat elkartzea da, aurten, erronka.

# Txanogorritxuren ipuina, ezberdin

L.Z. | ELGETA

Arrasateko Ikusi Makusi taldeko Igor Salak eta Vanessa Gonzalezek *Txanogorritxuren bidaia* ipuin musikatua eskainiko dute domekan Espaloian. Udazkeneko programazioari hasiera emateko emanaldia izango da: euskaraz, 55 bat minutuko iraupenarekin, eta 2-9 urte bitarteko neska-mutikoendako. Ikusi Makusikoek eraldatu egin dute apur bat Txanogorritxuren ipuina. Bertsio horretan, besteak beste, otsoa ez da gaiztoa eta azeri bat dago. Gainera, aktoreek musika egiten dute zuzenean. Abesti ezagunak eta herrikoiak abesten dituzte. Sarrera zortzi euro da; aurrez erosiz gero, bost euro. Eta bi umeren sarrerak erosita, heldu batena doan da. Emanaldia 17:30ean hasiko da.



Ikusi Makusi taldeko bi aktoreak. | IKUSI MAKUSI

### Pailazoak eta sormen tailerra

Datorren aste bukaerako zapatuan Rody Aragon pailazoak *Los payasos de la tele* ikuskizuna egingo du Espaloian. Domekan, berriz, Onditz Mendizabal elorriarrak familia osoarendako sormen tailerra egingo du.

## Urrian hasiko diren kirol jardueretan izena emateko epea zabalik du Udalak

L.Z. | ELGETA

Udal Gobernuak asteon banatu ditu ikasturteko kirol eskaintzaren eskuorriak etxez etxe. Sei kirol jarduera aurreikusten dira: tonifikazio gimnasia, sasoian egoteko gimnasia (GAP), spinninga, pilatesa, *zumba* eta erretiratuendako gimnasia.

Jarduera bakoitzak bere kuota du, baina Udalak kurtsorako bonua atera du. 350 euro ordainduta, erabiltzaileek aukera izango dute nahi beste jardueratan parte hartzeko, betiere, aurrez jakinarazita. Gainera, Kirol teknikariaren aholkularitza izango dute entrenamendu plan pertsonalizatuak prestatzeko, eta kiroldegia eta squash kantxa erabiltzeko aukera, libre daudenean. Umeei dagokienez, eskola kiroleko hiru talde aurreikusten dira, 1. eta 2. mailetako umeendako jarduera berria izanik.

Azterketa egin ostean, datorren astean argituko dute Udaleko Kirol teknikari lanpostua nork beteko duen.

## Yoga, tai txia, musika eta arte tailerrak

**Ohiko yoga eta tai txi saioak izango dira aurten ere Elgetan. Alazne Azkarate elgetarrak, gainera, haurdunaldirako zein haurrendako yoga saioak proposatzen ditu, eta Maite Barrainkuak adin guztietako erabiltzaileendako arte tailerrak. Bestalde, dagoeneko martxan dira bai Lorea Larrañagaren bai Adolfo Jainagaren musika eta trikiti eskolak. Ekintza guztietarako zabalik dago izen-ematea.**

## Emakumeen Mundu Martxaren harira zuhaitz eta lore landaketak iragarri dituzte domekarako

Euskal Herrira bidean da Emakumeen IV. Mundu Martxa, eta herritar talde batek ekitaldia deitu du domekarako. Bi landaketa egingo dituzte, herriko plazatik 10:30ean abiatuta. Lehenengo, zuhaitz bat landatuko dute Asentzioko La Belga izeneko gunean, eta, jarraian, loreak landatuko dituzte Salbador ermitan. Ekitaldian parte hartzera gonbidatu dituzte elgetarrak.

## OHARRAK

**IPUINEN ORDUA**
Gaur, barikua, 17:25ean, Nerea Villak kontatuko ditu ipuinak, liburutegian.

**ODOL-ATERATZEAK**
Martitzenean, hilak 22, 18:00etatik 20:00etara, udaletxean.

**PODOLOGOA ELGETAN**
Erretiratuendako zerbitzua eguenean, hilak 24. Ezinbestekoa da aurrez txanda hartzea: 943 76 80 77 (Nati).

**KANTSATZEKEK IRTEERA**
Hilaren 27rako antolatu dute irteera Legazpi inguruko Arrolara. Izen-ematea zabalik da.

**GAZTELEKUA**
Zerbitzua urriaren 3an hasiko da martxan. Izen-ematea zabalik da udaletxean.

LEINTZ GATZAGA

# Dorleta santutegiko teilatua konpontzeko dirua batzen

## Lanek 100.000 euroko kostua izango dutela aurreikusten du Bergara-Arrasateko artzapezgoak

IMANOL BELOKI | LEINTZ GATZAGA

Bergara-Arrasateko artzapezgoa diru-bilketa egiten ari da bailarako elizetan, Gatzagako Dorleta santutegiko teilatua konpontzeko.

Aspalditik datorren arazoa da, eta teilatuan dauden zuloek eragiten dituzten itoginak petatxatzen ibili diren arren, arazoari konponbide irmoagoa jartzea erabaki dute. Egin beharreko lanetako batzuk hauek dira: teilatu berria jartzea, eraikina iragazgaitz bihurtzea, zink txapa errematеak jartzea, zorroten (bajante) eta teilatu-hodiak, hormigoizko arketak ipintzea eta paretak margotzea. Joxe Olabe parrokiako arduradunaren esanetan: "Teilatua oso egoera txarrean dago, eta bi urtetan behera eroriko da. Bailaran sentimendu handia dago santutegiarekiko, eta denon laguntza behar dugu eraikina mantentzeko".

Lanak aurrera eramateko, Dorleta santutegiak ez du baliabiderik konponketa lanen gastuei aurre egiteko; beraz, jende guztiaren kolaborazioa eskatu dute. Izan ere, lanek 100.000 euroko kostua izango dutela aurreikusten dute, baina datorren hilabetean hasiko dira lehen konponketak.



Gatzagako Dorletako santutegia egoera txarrean. | IMANOL SORIANO

### Diruz laguntzeko kontuak

Diruz lagundu nahi duenak Laboral Kutxako 3035 0001 52 0010701559 edo Kutxabankeko 2095 5038 41 1061624291 kontuen bitartez egin dezake.

# Adin nagusiko jendea zaintzeko langile bila

I.B | GATZAGA

Gatzagako hainbat familia pertsona nagusiak beren etxeetan zaintzeko langile bila dabiltza, eta zailtasunak dituzte jendea aurkitzeko. Hala, deialdia egin du Gizarte Ongizate Zerbitzuak horrelako beharra duten familiei erraztasunak emateko eta lan egin dutenekin zerrenda bat osatzeko.

Izena eman nahi duenak gizarte zerbitzuetara joanda egin dezake, martitzenetan, 09:30etik 13:30era bitartean, edota mezu bat bidalita *ongizatea@leintzgatzaga.com* helbidera.

ENDUROA

Asier Rosado eta Koldo Arana | Arrasateko lasterketako antolatzaileak

# "Zaila izan da, baina oraindik ere bi tramu sekretupean daude"

- Antolatzaileek 100 pilotu inguru espero dituzte
- Zapatuan entrenatzen ibiliko dira; proba domekan da





ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza, 2
Tel.: 943 79 70 77
euskaltegi@arrasate.eus

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkale, 33. Irizar Jauregia
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta, 18 Oñati
Tel.: 943 78 24 96
euskaltegia@onati.eus

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2 Aretxabaleta
Intxaurtxueta 10 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
idazkaritza@udaleuskaltegia.eus


XABIER URZELAI | ARRASATE

Domekan egingo dute, Anporretako inguruetan, Arrasateko I. Enduro Txapelketa. Lehenengo pilotua 09:30ean abiatuko da Eroskiko aparkaleku ondoko zelaian gora, eta goizean zehar lau tramu gainditu beharko dituzte; horietako bi sekretupean daude. Beste bi tramuak dagoeneko buruz ezagutzen dituzte askok, azken asteotan lagun asko ibili da-eta gora eta behera, bizikleta gainean entrenatzen. Urte osoko lanaren emaitza domekan ikusiko dute antolatzaileek, Asier Rosadok eta Koldo Aranak.

**Egun gutxi geratzen dira lasterketarako. Ze itxura hartzen diozue?**

Lan askoko egunak dira hauek, bizikleta ukitu ere ez dugu egin azken aste honetan, eta aitzurrarekin ibili gara lanean, azken ukituak egiten. Horrekin batera, beste detaile bat mordoa ditugu ixtear, baina jendea animatu da, eta pozik gaude.

**Zenbat lagunek eman dute izena?**

Internetez izena emateko eguna eguenean amaituko da [atzo] eta orain momentuan [eguazten eguerdia] dagoeneko 89 lagunek eman dute izena. Kontuan hartuta egunean bertan ere izena emateko aukera emango dugula, 100 pilotu inguru espero ditugu. [Egunean bertan federatuek 35 euro ordaindu beharko dituzte eta federatuta ez daudenek, 41 euro].

**Anporretan izango da lasterketa. Ikusita egunotan zenbat jende ibili den parajeotan bizikletan, sekretupean egon diren tramuek halaxe jarraitzen dute?**

Bai, bai, domekara arte ez dugu esango non dauden, eta, orokorrean, sekretupean jarraitzen dutela esango nuke. Seguru, bateren batek tramuren bat aurkitu duela; bada, aprobetxa dezala, baina egon dadila isilik. Asturiastik izena eman duten batzuk, hain zuzen, horregatik datoz, bi tramu sekretupean ditugulako, eta han ez dutelako halakorik egiten. Seguruenik, tramu horietan erabakiko da lasterketa, hor ikusten da pilotuen trebezia, eta halako probetan guk sekulako garrantzia ematen diogu horri; beste ukitu bat ematen diote lasterketari.

**Badirudi eguraldiak lagundu egingo duela, nahiz eta pilotu batzuek gurago izaten duten lokatz artean ibiltzea.**

Antolatzaileok gurago dugu eguraldi ona egitea, besteak beste, proba erosoago antolatzeko, ikusle gehiago animatzeko... Baina egia da pilotu batzuek gurago izaten dutela lokatzetan ibiltzea. Azken baten, lokatzetan ibiltzera ohituta daudenez, esaterako, Madrilgo pilotuek baino abantaila handiagoa dute, han ez duelako horrenbesteko euririk egiten.

**Dena dela, azken egunetan egindako euria ondo etorri zaizue.**

Ez du nahikoa egin, oraindik hauts asko dago tramu askotan. Euri gehiago egin izan balu, lurra egonkorrago egongo zen, baina txukun dago dena.

**Jende ona etorriko da?**

Bai, oso maila oneko pilotuak etorriko dira. Beste asko dagoeneko Ainsan daude (Huesca), datozen asteotan bertan egingo duten Enduro World Series lasterketarako prestatzen, eta beste batzuk Arrasateko lasterketa aprobetxatuko dute entrenamendu modura. Esaterako, Markel Uriartek eta inguruko beste hainbat lagunek.

**Ikusleei begira, zeintzuk dira tramuak ikusteko leku aproposenak?**

Azken orduko arazorik ez baldin badaukagu, pilotuak Eroski ondoko parketik irtengo dira, kamioi batetik irteten joango dira, arrapala batetik jaitsita. Batetik bestera hogei segundo gordeko ditugu, eta denbora konkretu bat izango dute lehenengo tramura iristeko. Hala, lehenengo tramua erlojupean egin ostean, bigarrenerako bidea hartuko dute. Horrenbestez, lasterketa ondo jarraitzeko, ikusleek batera eta bestera ibili beharko dute, oinez.



Koldo Arana –ezkerrean– eta Asier Rosado.

> "Jendeari ez diogu utziko autoarekin Anporretan sartzen, arazoak saihesteko"



| XABI URZELAI

## "Pilotuak banan-banan irtengo dira, hogei segundoko tartean"

Bestela, tramu bakarra baino ezingo dute ikusi.

**Mendian oinez ibiltzeko asmoz joan beharko dute, horrenbestez.**

Ondo ikusi gura badute, bai. Gainera, autoei ez diegu Anporretara sartzen utziko, arazoak saihesteko; horrenbestez, autoan datorrenak Zigorrola inguruan aparkatu beharko du autoa, edo Eroskin, bestela. Tramu batzuk Anporretaren goialdean daude, baina, esaterako, lehenengo tramuaren amaiera behealdean dago, Institutuaren atzetik berehala, oinez hamar minutu.

**Zapatutik, bada, giro polita egongo da inguru horretan.**

Hori espero dugu. Kanpoko jendea furgoneta, autokarabana eta halakoetan etorriko da, eta zapatuan bertan entrenatzeko aukera emango diegu pilotu guztiei. Hori bai, bi tramutan. Beste biak, esan dudanez, domekara arte sekretupean egongo dira.

FUTBOLA

# Antzuola-Mondra derbia domekan Eztalan, denboraldi berria hasteko

▶ Erregional Preferenteko taldeek asteburu honetan hasiko dute liga

▶ Bergarak kanpoan izango du partidua eta Aretxabaletak, berriz, etxean

MAITE TXINTXURRETA | DEBAGOIENA

Debagoieneko lau talde arituko dira asteburu honetan hasiko den Erregional Preferente Mailako denboraldian. Bergarako eta Antzuolako taldeek maila galdu zuten 2014-2015 denboraldia bukatzean; horrenbestez, iaz ere maila horretan jokatu zuten Mondrari eta Aretxabaletari –UDAren bigarren taldea– batuko zaizkie aurtengo ligan.



Antzuolakoak gola ospatzen joan den denboraldian. | XABIER URZELAI

**Antzuola-Mondra**

Hain zuzen ere, talde horietako biren arteko derbia izango da lehen jardunaldian.

Joan den denboraldian mailaz jaitsitako Antzuolak Mondra hartuko du etxean, Eztala futbol zelaian.

Partidua arratsaldeko bostetan hasiko da. Etxeko taldeak iaz maila galdu zuen, eta, orain, Ohorezko Erregional Mailara itzultzeko ahaleginak egingo dituzte. Horretarako, lehen pausoa Arrasateko taldea etxean mendean hartzen saiatzea izango da gorridunentzat.

Ez dute, baina, lan erraza izango Antzuolako mutilek. Izan ere, Mondrak dagoeneko ondo ezagutzen du Erregional Preferente Maila, eta joan den denboraldian oso lan ona egin zuen kategoria horretan jokatuta.

Arrasateko taldeak taularen hirugarren lekuan amaitu zuen 2014-2015 denboraldia. Berrogeita hamabost puntu eskuratu zituzten, guztira, mondragoetarrek.

Beraz, aurten ere goiko postuetan egoten ahaleginduko dira zuri-moreak, eta, horretarako, lehen garaipena Antzuolan lortu nahi dute.

**Urkomendi-Bergara**

Maila bereko beste bi taldeei dagokienez, berriz, Bergarak Eibarren jokatuko du, Urkomendiren aurka. Mahoneroek ere maila galdu zuten aurreko denboraldian, eta domekan estreinatuko dira Erregional Preferente Mailan. 17:30ean Unbeko instalazioetako beheko zelaian izango da partidua.

Eibarko taldeak ere maila aldatuko du 2015-2016 denboraldi honetan; izan ere, Lehen Erregionaletik Preferentera igoera erdietsi zuen, denboraldi bikaina egin ostean.

Aurtengo denboraldirako nobedade ugari izango da bergararren taldean; adibidez, entrenatzailea: hain zuzen ere, Mikel Juaristi azkoitiarrak hartu du taldea zuzentzearen ardura.

Bestalde, taldera itzuli dira aurrez bertan jokatu izan duten hainbat jokalari: Jontxu Linazisoro, Iñaki Mardaras, Ismael Navas eta Andoni Arruti Antzuolan ibili dira joan den denboraldian, eta orain bueltan dira Agorrosinen. Ermutik, berriz, Ina Dobao itzuli da taldera.

**Aretxabaleta-Usurbil**

Aretxabaleta KEri dagokionez, etxean hasiko du denboraldia. 16:30ean Usurbil FT hartuko dute Igor Gordobilen mutilek, Ibarra futbol zelaian.

Mondraren kasuan bezala, UDAren bigarren taldeak jada ezagutzen du kategoria, eta, alde horretatik, Bergarak eta Antzuolak baino abantaila handiagoa izango du.

Haien kasuan, zazpigarren izan ziren joan den denboraldiko azken jardunaldia bukatzean, eta, denetara, 41 puntu eskuratu zituzten.

FUTBOLA

# Denboraldiko lehen garaipena lortzen saiatuko da UDA domekan

M.T. | DEBAGOIENA

Hirugarren Mailan debuta egin zuenetik, ligako bosgarren partidua jokatu zuen eguaztenean UDA futbol taldeak Ibarra futbol zelaian.

Bertan, denboraldiko laugarren berdinketa erdietsi zuen taldeak. Aretxabaletarrek 2-2 egin zuten Zallaren aurka. Puntu banaketa izan zen talde bien artean, beraz.

Lehen zatian talde bien partetik aukera ugari egon baziren ere, inork ez zuen baloia sareratzea lortu. UDAko *Piru*k lesioa izan zuen eta entrenatzaileak aulkira atera behar izan zuen.

Bigarren zatian iritsi ziren golak. Bizkaitarrak aurreratu ziren markagailuan, baina Jokin Vadillok bat eta batekoa egin zuen etxekoentzat.

Geroago, 72. minutuan, bigarren gola lortu zuten kanpokoek, baina ondoren, Josu Arizmendiarrietak egin zuen azken gola azkeneko unean, jokalarien zein zaleen gozamenerako 2-2ko berdinketa lortuta. Hain zuzen ere, 89. minutuan bidali zuen baloia aurkariaren sarera.

Partidua galduta zegoela uste zutenean puntu bat lortu ahal izanagatik pozik bukatu zuten guztiek.

Bigarren zati honetan, baina, partiduko bigarren lesioa iritsi zen etxekoentzat, Beñat Etxabek min hartu baitzuen.

Gorka Valle entrenatzaileak azaldu duenez, "ikusleentzat partidu polita" izan zen, eta talde biak ongi aritu ziren defentsan zein aurrean arriskua sortuz.

**Domekan, Gasteizera**

Domeka honetan, irailak 20, izango du Hirugarren Mailako UDAk hurrengo partidua, ligako seigarren jardunaldiari dagokiona, hain zuzen.

Gasteizera bidaiatuko du, horretarako, taldeak; izan ere, Vitoria KEren aurka arituko dira, haien zelaian, Betoño auzoko instalazioetan.

Lehen garaipena erdietsi nahi dute han aretxabaletarrek. Bost partidutatik batean izan ezik, beste guztietan puntuak lortu dituzte, baina, garaipen gosez daude. Hala ere, Gorka Valleren esanetan, konfiantzaz dago taldea: "orain arteko partidu guztiak konpetituak izan dira" dio. Gaineratu du Gasteizen galdutako partidua ere parekatua izan zela.

Arabarrek ez dizkiete gauzak erraz jarriko, baina; izan ere, eguazteneko azken jardunaldian 1-4 irabazi zuten Aurrera Ondarroaren aurka.

Gorka Valleren mutilak sailkapeneko hemezortzigarren postuan daude gaur-gaurkoz.

Vitoria KE, berriz, taulako hamahirugarren postuan dago, bi norgehiagoka irabazita eta hiru galduta.



RALLYSPRINTA




2013ko Aramaioko rallysprinta. | GOIENA

# 67 auto arituko dira lehian Aramaioko rallysprintean

## Bihar jokatuko da Aramaioko lasterketa eta Debagoienetik parte hartzaile ugari egongo dira

JOSU BILBAO | ARAMAIO

Aramaioko XIV. rallysprinta bihar jokatuko da. Lasterketa Euskadiko Rallysprint Txapelketarako puntuagarria da, eta baita Euskadiko Formula Libre Koparako eta Nafarroako Rally Txapelketarako ere. Hiru txanda izango dira, guztira, eta lehena 15:00etan abiatuko da Irubiretatik –errepidea 14:00etatik aurrera itxita egongo da–. Ibilbidea azken urteetakoa izango da, 7 kilometro eta 800 metro, Irubiretatik hasita (A-4024 errepidea) Andramari bidegurutzeraino (A-4025 errepidea). Guztira, 23 kilometro eta 400 metro bete beharko dituzte lasterketan parte hartuko duten 67 pilotuek.

Iaz 69 auto ibili ziren lehian eta aurten kopurua nahiko antzekoa izango da: "Azkenean, jendeak ez du lehiatzeko diru askorik, baina gu oso pozik gaude, parte hartzea nahiko garrantzitsua izango da-eta. Euskal Herriko, Kantabriako eta Kataluniako pilotuak egongo dira", azaldu du Inhar Amenabar pilotu eta probako antolatzaileak.

Aurten ez da auto klasikoen mailako txapelketarik egongo, ez baitu inork izenik eman. Guztira, 2.000 euro banatuko dituzte lehian ibiliko diren zortzi mailetako irabazleen artean. Azpiko Racing taldeak hamalaugarren urtez antolatu du proba. eta Inhar Amenabar kideak jendea lasterketara gerturatzera animatu du: "Jendea animatzea eta etortzea. Pilotuei asko gustatzen zaien ibilbidea da, eta hori nabaritu egiten da. Gainera, ez dago euririk iragarrita, eta eguraldi ona egingo duela aurreikusten da".

### Debagoieneko pilotuak

Ibarreko hainbat pilotu eta kopilotu ibiliko dira lehian Aramaioko errepideetan. Inhar Amenabar aramaioarrak Agurtzane Zubieta kopilotuarekin parte hartuko du. Gainera, Gorka Idigoras eskoriatzarra Monika Muñoz oñatiarra kopilotu duela ere arituko da, eta Unai Bengoa eta Iker Zurinaga gidari eta kopilotu arrasatearrek ere parte hartuko dute. Asier Unzetabarrenetxea elgetarra eta Oñatiko Asier Mugarza eta Asier Samaniego ere lehian arituko dira Aramaion.

### Segurtasuna garrantzitsuena

Debekatuta gelditutko da, segurtasun neurriak direla eta, ibilbidearen errepideko bi aldeetan autoak aparkatzea. Gainera, Azpiko Racing taldeak segurtasun neurri guztiak zehatz-mehatz bete behar direla gogoratu nahi du, orain dela aste gutxi Coruñan gertatutako ezbeharra berriro errepika ez dadin. Izan ere, Galiziako proban zazpi zale zendu ziren, auto-istripu baten ondorioz, eta segurtasun neurriak betetzea eta antolatzaileen gomendioak jarraitzea ezinbestekoa dela gogoratu du Azpiko Racing taldeak. "Jendea buruarekin ibiltzea nahi dugu. Debekatuta dauden tokietatik ezin daiteke lasterketa jarraitu. Toki altuetatik jarraitu beharko da rallysprinta, eta autoak ez dira toki arriskutsuetan laga behar. Horrelako ezbehar gehiago ez gertatzea nahi dugu guztiok. Azkenean, denon kalterako dira-eta gauza hauek", azaldu du Inhar Amenabar antolatzaile eta pilotuak.

# III. Cross Country proba jokatuko da bihar Bergaran

J.B. | BERGARA

Motorren hotsek Bergara hartuko dute bihar, zirkuituan eta mendian jokatuko den III. Cross Country lasterketan. Bergarakoa Euskadiko Txapelketan dauden zortzi proba puntuagarrietatik seigarrena izango da, eta 100 parte hartzaile inguru izango dira, hainbat kategoriatan banatuta: 30 urtez azpiko nagusiak, 30 urtez gorako nagusiak, 23 urtez azpikoak, 23 urtez gorako gazteak eta beteranoak.

15:30ean hasiko da ezagutze bira. Horren ondoren, bi orduko txanda hasiko da, eta parte hartzaileek ahal duten distantzia handiena bete beharko dute oztopoz beteriko zirkuituan. Birak hamar minutukoak izango dira, gutxi gorabehera.

Bergarako Urtzi Markiegi –Euskadiko Moto-kros Txapelketan bigarren sailkatua– eta Aritz Gimbert –lehenengo aldiz parte hartuko du– pilotuek eta Bittor Altuna oñatiarrak parte hartuko dute Cross Country proban.

### Aldapa gogorrak

Aurten, berezitasun nagusia zirkuituak izango dituen aldapa gogorrak izango dira. Maila ezberdinetarako harriekin prestatuta egongo dira, baina pilotuek hainbat oztopo gainditu beharko dituzte; zuhaitz enborrak, adibidez.

Lehian, gainera, bi motor mota ezberdin arituko dira, enduroko motorrak eta moto-kroseko motorrak. Moto-kros kategoriako motorrek abantaila izango dute zirkuitu barnean eta endurokoek, berriz, mendian. Beraz, motor mota bi batera lehiatzen ikusteko aukera ona egongo da.

AUTO LASTERKETA

# Aitor Zabaleta, Euskadiko txapeldun, Jaizkibelgo Igoera irabazita

## Bergarako pilotuak Fombona gainditu zuen lehenengo txanda erabakigarrian

J.B. | BERGARA

Lehia polita eta oso estua bizi izan zuten Jaizkibelgo 37. Igoeran Aitor Zabaleta bergararrak (Lola BMW) eta hainbatetan Espainiako txapeldun izan den Jose Antonio Fombona asturiarrak (Audi Quattro DTM). Indarrak pare-parean egon ostean, Fombona errepidetik irten zen –ondorio barik– bigarren txandan, eta lehenengo txandako denborei esker Aitor Zabaletak eskuratu zuen eserleku bakarreko ibilgailu kategoriako garaipena.

Bergarako pilotuak 2 minutu eta 30 segundoko denbora egin zuen eta Fombonak, 2 minutu eta 33 segundokoa. Hirugarren Joseba Iraola bizkaitarra (Demoncar) izan zen, 2 minutu eta 35 segundoko denborarekin.

Jaizkibelgo Igoeran lortutako puntuekin, Aitor Zabaletak erabakita utzi du Mendiko Sariko Euskadiko Txapelketa. Denboraldiko azkeneko proba Urrakiko Igoera izango da, urriaren 17-18an, eta pilotu bergararra txapelketa eskuetan duela irtengo da lehiatzera. 2015eko denboraldi bikaina garaipen batekin itxi nahiko du Zabaletak.

### Corcuera ere garaile

Ander Corcuerak ere (VW Golf) Formula Libre mailan garaipena eskuratu zuen. Arrasatearrak txapelketa erabakita utzi zuen Reinetako Igoeran, eta Jaizkibelen ere aise gailendu zen.

Turismoetan Xabier Lujua (Porsche 997 GT3) nagusitu zen Jaizkibelen, eta bizkaitarrak Euskadiko Txapelketa eskuratu du.




Aitor Zabaleta, Jaizkibelgo Igoeran. | JAVI ALONSO

JIU-JITSU

# Espainiako Kopan lehiatuko da Nico Ferrer

MAITE TXINTXURRETA | ARRASATE

Arrasate Judo Taldeko Nico Ferrer jiu-jitsuko maisuak datorren asteko zapatuan, irailaren 26an, Eibarko kiroldegian jokatuko den Espainiako Kopan hartuko du parte. Eibar Hiria izena jarri diote txapelketari, eta bertako Kalamua klubak antolatu du, aurten lehenengoz.

Ehun lehiakide baino gehiago batuko dira txapelketa horretan, emakumezkoen zein gizonezkoen kategorietan.

Goizeko hamarretatik aurrera izango dira saioak. Lehenbizi, goizez, borroka modalitatea landuko dute lehiakideek. Arratsaldez, berriz, Ne-Waza edo lurreko modalitatearen txanda izango da.



Nico Ferrer, gimnasioan. | ARRASATE JUDO TALDEA

**Gerriko beltza**

Arrasateko Judo Taldetik Espainiako Kopan parte hartuko duen kide bakarra da Ferrer. Gerriko beltza darama eta Julio Gallegoren ikaslea da.

Datorren zapatuan 77 kiloko kategorian hartuko du parte.

TXIRRINDULARITZA

## Afizionatu mailako 28. Oñati saria jokatuko dute bihar

M. T. | OÑATI

23 urtez azpiko txirrindulariek Lehendakari Txapelketako 28. Oñati saria jokatuko dute bihar. Lasterketa goizeko hamarretan irtengo da Unibertsitateko hiribidetik, eta bi ordu eta erdi inguruko iraupena izango du. Elorregi aldera joango dira lehenik, eta, handik, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzara. Ibilbidearen zatirik handiena Debagoienean zehar izango da, baita Goierri aldean ere –Zerain, Mutiloa, Gabiria...–. Udana, Aztiria eta Atagoiti portuak igo beharko dituzte txirrindulariek bihar.

PARAPENTEA

## Aristondo eta Alvarez faborito asteburuan

M.T. | DEBAGOIENA

Asteburu honetan jokatuko dute Euskadiko parapente txapelketa, eta hainbat debagoiendar izango dira bertan parte hartzen. Horien artean, faboritoetako bi dira Andoni Aristondo aretxabaletarra –liderra da sailkapenean– eta Jose Javier Alvarez –bigarrena da–. Bihar eta etzi izango dira probak, Arangoitin. Aristondo eta Alvarezez gain, ibarreko Amillena parapente taldeko Jon Iriartek, Andoni Ruiz de Azuak, Aritz Oiangurenek, Iñigo Diazek eta Konrado Kortabarriak ere hartuko dute parte txapelketan.

SASKIBALOIA

## Goi mailako saskibaloia Labegaraietan

Bergarako kiroldegia leporaino bete zen ACB mailako Retabet.es Gipuzkoa Basket eta Laboral Kutxa Baskonia taldeen arteko lagunartekoa ikusteko. Partidu parekatua jokatuta, donostiarrek irabazi zuten (74-78).



JULEN IRIONDO



GBC LUIS GARCIA



# KULTURA

# 'Amama': Maskorra Debagoienera hurbiltzeko aurtengo aitzakia

- Asier Altuna 'Kixi' bergarararraren euskarazko filma Sail Ofizialean lehiatuko da
- Goienak Zinemaldiaren jarraipena egingo du, Imanol Gallego izango da berriemailea

**A. ARANBURUZABALA** | BERGARA

220 film erakutsiko dituzte gaur, egubakoitza, hasi eta irailaren 26ra bitartean izango den Donostiako 63. Zinemaldian. Film batzuetarako aurre-salmentako sarrerak 24 ordu eskasean amaitu ziren; horien artean, Bergarako Asier Altuna *Kixi*-ren *Amama* (Txintxua Films) filmarenak. "Zinemagintzan krisia dagoen arren, Zinemaldian, berriz, alderantziz". Lan guztiak eginda dituzte; azken hilabeteetan lanpetuta ibili dira. Pelikula erakusteko gogoarekin eta lasai eta pozik daudela dio Bergarako zuzendariak. Astelehenean erakutsiko dute (09:00, Kursaal 1 aretoa). Sarreren %10 egunerako gordetzen dituzte, eta *Sansebastianfestival.com* atarian eros daitezke.

Mireia Gabilondo aktore eta zuzendari bergararrak eta Cayetana Guillen-Cuervo aktore eta aurkezleak jardungo dute gaurko inaugurazio-gala zuzentzen, 21:00etan, Kursaal auditoriumean.



*Amama* filmaren fotograma bat. | TXINTXUA FILMS

### Hirugarrenean, Ofizialean lehian

*Aupa, Etxebeste* (2005) eta *Bertsolari* (2011) ere Zinemaldian erakutsi zituen; oraingoan, baina, Sail Ofizialean lehiatuko da Altuna. "Une honetan daukadan sentsazioa aurrekoetan nuen bera da. Konfiantza daukat pelikularekin, eta lasai noa. Eginda dagoen zerbait da eta ezin da aldatu. Ea jendeak nola hartzen duen, baina uste dut gustagarria izango dela".

"Baserri giroan dago kokatuta. Bi generazioren arteko talka da. Aitaren eta alabaren arteko elkar ezin ulertua eta inkomunikazioa da gai printzipala". Kandido Uranga, Klara Badiola, Iraia Elias, Anparo Badiola, Ander Lipus, Manu Uranga eta Nagore Aranburu dira aukeratu dituzten aktoreak, eta batere damurik ez dutela dio. Klara Badiola eta Kandido Uranga gidoia idazten zebilela bazituen. Irailean, istorioaren pertsonaien ezaugarrien arabera aukeratu zituen gainontzekoak. Aurpegi berrien ausardia nabarmendu du Kixik.

Bi zatitan filmatuta dago: iaz, uztailean eta urrian, Errezilen, Nafarroako Aldatz herrian, Azpeitian eta Donostian, hain zuzen ere. "Bi zatitan errodatzea konplikatua da, baina oso interesgarria ere bai. Filmatze batetik bestera moldaketak egin nizkion gidoiari, eta aktoreei ere ondo etorri zitzaiela uste dut".

**ESANAK**

**"Irabazteko aukera hor dago, baina faboritoak beste batzuk dira, nire ustez"**



**ASIER ALTUNA** | ZINEMA ZUZENDARIA

### Maskorra etxera?

Izen propio handiak daudela eta maila oso altua dela dio Altunak. "Ez dut bat ere ikusi. Terence Davisen *Sunset Song*-ek itxura ona dauka, haren zinema ezagutzen dut eta interesatzen zait. *Bakemono no ko / The boy and the beast* (Mamuro Hosoda) animaziozko filmak ere kuriositatea pizten dit. Villarongaren *El rey de la Habana* ere ederra izango da, seguru. Liburu on baten oinarrituta dago, gainera".

Irabazteko aukera beti dagoela dio, baina faboritoak beste batzuk direla gaineratuta. Gustura dago pelikula han aurkeztearekin. "Txintxua Films-entzako oso garrantzitsua da han egotea, bultzada handia emango digu, seguru. *Amama* sarritan entzungo da... Urriaren 16ko estreinaldirako tranpolin ederra da Zinemaldia. Sariak etortzen badira gero, ba, ongietorriak izango dira, noski.



Moral, *Lejos del mar* filmean. | V. M.

### Veronika Moralek bi film

Bergaran haurtzaroan bizi izan zen Veronika Moral aktoreak parte hartu duen *Lejos del Mar* (Imanol Uribe) filma ere, lehiaketaz kanpo bada ere, Sail Ofizialean erakutsiko dute. Horrez gainera, Paula Ortizek zuzendutako *La Novia*-n ere Zinemaldiko pantaila handian erakutsiko dute. Gaurko *Puntua* aldizkarian dago Morali egindako elkarrizketa.

### Negozioetarako plaza ona

Ikusleak eta kritikariak asetzeaz gainera, Europako banatzaileekin akordioak lotzea du Kixiren taldeak helburu. Lanik gustukoena ez badute ere, jaiak eta bilerak ere badituzte agendan jasota.

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA
09:00-14:00 Seber Altube Plaza
HILEKO 3. ZAPATUAN
2015
irailak 19
urriak 17
azaroak 21
Antolatzailea: ARRASATEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea: ibai-arte Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.



# Eguenetako Kooltur ekimena bueltan izango da laster Arrasateko gaztetxean

▶ Priscilla Band Bilboko deep–funk taldeak irekiko du seigarren edizioa urriaren batean

▶ Ostegunero kontzertu bana izango da gaztetxean, gaueko hamarretan hasita, bost euroren truke

MAITE TXINTXURRETA | ARRASATE

Hasi berri den ikasturtean, seigarren edizioa izango du Kooltur ekimenak. Hortaz, urrian hasita, eguenero kontzertuak edota bestelako ikuskizunak izango dira ikusgai Arrasateko gaztetxeko agertokian. Emanaldi guztiak 22:00etan izango dira eta sarrera bost euro izango da.

Bilboko Priscilla Band taldeak emango dio hasiera aro berri honi, Maritxu Kajoi bezperan, hain justu ere, urriaren 1ean.

Bederatzi pertsonaz osatutako taldea da eta funk musika eta soula uztartzen ditu. Hamar urteko ibilbidea daukate jada, eta *crowdfounding*-ari esker ekoitzitako *Xalala Kale* izeneko disko berria aurkezten dihardute orain, haien bigarren LPa, hain zuzen. Kooltur taldeko antolatzaile Iker Barandiaranek adierazi duenez, taldea ekimenaren hastapenetan Arrasaten izan zen, eta, gustuko izan zutenez, bueltan ekartzea erabaki dute.



Bederatzi pertsonak osatzen dute Priscilla Band taldea. | LAURENT LEGER ADAME

Urriaren 1ean festa eta dantza egiteko aukera paregabea izango da, horrenbestez, Arrasateko gaztetxean.

**Urriko kontzertuak**

Datorren astean ere hitzordu potoloa izango da Kooltur-en;. izan ere, Señor No talde beteranoak diskoa atera berri du, eta aurkezpen birako lehen kontzertua izango da Arrasatekoa.

Urriaren 15ean, berriz, Australiatik datorren rock talde bat izango da taula gainean, Midnight Scavengers, hain zuzen.

Hilaren 22an, Porco Bravo bizkaitarrak eta haien "rocka eta izerdia" izango dira ikusgai. Kooltur-era datozen bigarren aldia izango da aurtengoa.

Bukatzeko, Glaukoma eta Bad Sound System taldeetako kideak bat eginda ikusteko aukera izango da, Glaukoma Ta Bad Sound izenpean. Talde biek elkarlanean burututako proiektu berriaren aurkezpen biraren baitan egingo dute kontzertua. Urriaren 29an izango da hori.

**Ikasturterako helburuak**

Barandiaranek azaldu du iazko edizioko eskema bera mantendu dutela aurtengo edizioan, eta helburua ere berbera izango dela; hau da, "Arrasaten kultura eskaintza handitzea" eta astero-astero kalitatezko ikuskizunak antolatzea prezio onean.

Barandiaranek nabarmendu du kontzertuak aste barruan direnez eta hurrengo egunean jende askok lanera joan behar duenez, puntualitatea errespetatzen saiatuko direla, orain arte bezala.

EGITARAUA

**Urriak 1**: Priscilla Band. Bilbo. Funk-soul musika

**Urriak 8:** Señor No (disko berriaren aurkezpena). Donostia. Rocka

**Urriak 15:** Midnight Scavengers. Australia. Rocka.

**Urriak 22:** Porco Bravo. Barakaldo. Rocka

**Urriak 29:** Glaukoma Ta Bad Sound. Tolosa, Bonberenea. Reggaea, rapa.

Emanaldi guztiak 22:00etan izango dira eta sarrera bost euro izango da.

UDAKO ARGAZKIEN XI. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: *blogak.goiena.eus/argazkiak*

Baita hemen ere: *udakoargazkiak* *udakoargazkiak*

Argazkiak bidaltzeko azken eguna: irailak 20!

Oinarriak*

**Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
**- Egilearen izen-abizenak eta herria.**
**- Harremanetarako telefonoa.**
**- Argazkia noiz eta non ateratakoa den.**
**- Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.**

- **Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 10etik irailaren 20ra arte (biak barne).**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- **Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.**
- **Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.**

- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: *argazkiak@goiena.eus* helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, Arrrasate
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 9an jakingo dugu, Goiena paperean.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela: **Twitter bidez**, @udakoargazkiak helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda. **Facebook bidez**, facebook.com/UdakoArgazkiak orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitaterik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

* Oinarri guztiak: *ttiki.com/70956*

Sariak

**1. saria:** Nikon D3200 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Aretxabaletako Begira argazki-dendaren eskutik.
24 megapixel / Full HD bideo-grabazioa / 3 hazbeteko pantaila / Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa / ISO 100-12.800 sentsibilitatea / Integratutako edizio funtzio ugari.







**2. saria:** Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
**3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
**Herritarren saria:** Amazon Kindle liburu irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.
**Boto emaileentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA: goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK: Begira argazkilaritza; ARRASATE BIDAIAK; GURE AMETSA JATETXEA; EROSKI ARRASATE; karibu munduko zaporeak karibumundukosaporeak.com

# Brontzezko eta egurrezko formetan bildutako ideiak

Bost pieza berri aurkeztuko ditu Jose Ramon Anda eskultoreak Aroztegin

**MAIALEN TORRES** | BERGARA

Hiru urtez bakarkako erakusketarik antolatu gabe egon ostean, Jose Ramon Anda eskultore nafarrak Bergaran erakutsiko ditu lanak. Iaz jaso zuen erakusketa egiteko gonbidapena, eta, hain zuzen, Aroztegi aretoa ikustearekin bat erabaki zuen aurrera egitea. "Herriak berak txunditu-ta utzi ninduen", dio.

Hogei pieza ekarri ditu Bergarara, baina erakusketaren inaugurazio unera arte ezingo da jakin horietako zenbat izango diren ikusgai. Izan ere, eskultoreak erakusketa aurrez planoaren gainean antolatu arren, aretoaren arabera antolatu ohi ditu obrak. "Espazioak asko baldintzatzen du obra baten pertzepzioa", dio, eta, horregatik, Aroztegin bertan erabaki du zein pieza eta nola erakutsi. Horrela, obrak erlazionatu nahi izan ditu Andak, erakusketari osotasuna emanda.



Jose Ramon Anda, tailerrean lanean. | JOSE RAMON ANDA

**3 urtez itzalean, baina lanean**

Bilboko Artes Ederren Museoan azken bakarkako agerraldia egin zuenetik, lanean jarraitu du artistak; izan ere, eskulturgintzari dagokionez, gaztetan hasi zenean zuen interes eta ilusio bera gordetzen dituela aitortu du. "Burutik pasatzen zaizkidan ideiak erronka gisa hartu, eta obra bihurtzen ditut", azaldu du.

Filosofia horri jarraituz, azken urteetan bost pieza sortu ditu. Gaurko erakusketan, ordea, horietako bat da bereziki deigarria.

"Duela 22 urte inguru hasi, eta tailerrean ahaztuta nuen obra batez oroitu nintzen Aroztegiko ateei begiratzean", dio Andak. Hain zuzen, ahaztutako obra hura ere ate bat da, eta oroitzapen une hark motibatuta bukatu ondoren, gaur erakutsiko du lehen aldiz, nahiz eta erakusketak daraman ildotik irteten den.

**Egurrezko eta brontzezko ideiak**

Erakusketa 18:00etan irekiko dute, eta bertan izango da Anda, "gerturatzen direnen galderak erantzuteko prest". Aretoa bisitatzen dutenek bere urtetako lanaren hautaketa topatuko dute bertan. Artistaren hitzetan, "obra batzuetan analisi geometrikoa da nagusi, eta beste batzuetan, berriz, alderdi organikoak garrantzi handiagoa hartzen du".

Egurrezko eta brontzezko piezak bildu ditu, eta, tamainari dagokionez, denetarik pixka bat aukeratzen saiatu dela esan du Andak. Urriaren 11ra arte egongo dira obrak ikusgai: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era. Zapatuetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara ere bai, eta domeketan eguerdiko ordu horietan bakarrik.



Irailaren 27an izango du bere lehen saioa Arregik. | IMANOL SORIANO

# Maider Arregi bertsolariak irailaren 27an debutatuko du Gipuzkoako txapelketan

Arrasaten eta Eskoriatzan kanporaketako saio bana egingo da, bata urrian eta bestea azaroan

**M. T.** | DEBAGOIENA

Maider Arregi oñatiarrak 2015eko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan hartuko du parte. Bertan arituko diren 43 bertsolarietatik debagoiendar bakarra izango da gazte hori. Irailaren 20an hasiko da kanporaketa eta abenduaren 20an izango da finala, Donostiako Ilunben.

Datorren asteko domekan, irailaren 27an, Lasarte-Orian egingo den final-zortzirenetako kanporaketan egingo du oñatiarrak debuta txapelketa horretan. Bertan, Aitor Irastortza, Beñat Lizaso, Gorka Azkarate, Mikel Artola eta Xabier Sukia izango ditu aurrez aurre.

Maiatza eta ekaina bitartean jokatutako *Gipuzkoa bertsotan* sailkapen fasean lortu zuen Arregik txapelketa nagusirako pasea. Bertan, hogeita hamar bertsolari sailkatu ziren, guztira, eta horiei, duela lau urteko txapelketako finalaurrekoetara iritsi izanagatik sailkapen zuzena lortu zuten beste hamahiru batuko zaizkie orain.

**Bi saio Debagoienean**

Ibarrean Gipuzkoako txapelketako bi saio ikusteko aukera izango da, bata Arrasaten eta bestea Eskoriatzan.

Arrasatekoa urriaren 10ean izango da, 17:30ean, Amaia antzokian. Bertan arituko dira Aratz Igartzabal *Potto*, Egoitz Eizagirre, Eneritz Artetxe, Felix Zubia, Haritz Casabal eta Iñaki Gurrutxaga. Final-zortzirenetako saioa izango da hori, lehen fasekoa, alegia.

Eskoriatzako saioari dagokionez, azaroaren 8an jokatuko da, kiroldegian, hori ere 17:30ean. Final-laurdenetan kokatzen da saio hori, eta bertan, aurrez sailkatuta dagoen Unai Agirre Goia hernaniarra izango da, txapelketaren azken edizioaren finalista. Final-zortzirenak bukatzean jakingo da zeintzuk izango diren berarekin batera arituko diren gainontzeko bertsolariak.

Sarrerak eskuragarri daude jada bertsozale elkartearen *Bertsosarrerak.eus* webgunean.

# Udasoinu Jazz taldeak kontzertua eskainiko du bihar Arkupen

Claude Bollingek txirula eta jazz hirukotearentzat egindako suitea joko dute

**M.T.** | ARETXABALETA

Arkupe kultura etxean kontzertua eskainiko du bihar Udasoinu Jazz taldeak. 20:00etan hasiko dute emanaldia –iraileko kultura programan argitaratutako eguna eta ordua okerrak dira–, ordubete inguru iraungo du eta ez da tartean atsedenik izango.

Gehienbat musika klasikoa jorratzen duen ganbera taldea da Udasoinu Jazz. Dena den, bihar jazz doinuetara gerturatzen den programa eskainiko du laukoteak Arkupeko kontzertuan.

**Txirula eta jazz hirukotea**

Estilo klasikoa eta jazza nahasten dituen zortzi mugimenduko suitea taularatuko dute. Oholtza gainean, Alberto Itoitz izango da zeharkako txirularekin, Jon Boloisek pianoa joko du, Marcelo Escrichek kontrabaxua eta Jose Ramon Elkoro aretxabaletarrak, berriz, bateria.

Kontzerturako aukeratu duten pieza Claude Bolling piano-jotzaile eta konposatzaile frantsesaren *Txirula eta piano jazz hirukotearentzako bigarren suitea* da, eta zortzi mugimendu biltzen ditu bere baitan: *Espiegle, Amoureuse, Entr'amis, Vagabonde, Pastorale, Affectueuse, Intime* eta *Jazzy*.

Bihar Arkupera gerturatzen direnek Itoitzen hitzetan "entzuteko oso erraza eta atsegina den obra" topatuko dute. Ez da jazz kontzertu bat izango, nahiz eta jazzaren ukitua obra guztian zehar musikaren oinarrian suma daitekeen, bateriari eta kontrabaxuari esker. Itoitzek azaldu duenez, ez dago musikan aditua izan beharrik emanaldiaz gozatzeko. Uda osoan zehar, hainbat lekutan jo dute pieza bera, eta "harrera oso ona" izan duela aitortu du Itoitzek. "Programa ezezaguna da, desberdina –bi estilo nahasten ditu, eta, hain zuzen, horregatik izan ohi du arrakasta", dio.

Horrez gain, musika ikasten ari diren gazteentzat ere erakargarria izan daitekeela uste du Itoitzek, batez ere zeharkako txirula ikasleentzat.

**Claude Bolling**

2015eko apirilean 85 urte bete zituen musikari frantsesak, baina umetan ekin zion konposatzeari. Besteak beste, 1984ko *Lucky Luke* filmeko soinu banda konposatzeagatik da ezaguna, baina, batez ere, 1975ean txirula eta piano jazz hirukotearentzat egindako lehen suiteagatik. Mundu mailan arrakasta handia izan zuen, batez ere AEBetan, eta musika barrokoaren dotorezia swing modernoarekin nahasten zituen.

Arrakasta haren ondoren, 12 urte geroago konposatu zuen formazio berarentzako bigarren suitea.



Alberto Itoitz. | SONIA SENOSIAIN

# Erabili Goiena Klubeko txartela komertzio eta zerbitzu hauetan:




**ALZU SL. EHIZA ETA ARRANTZA**
Arantzazuko Ama 2. Oñati. 943 78 30 67
• Arropetan %10eko deskontua

**NAREN. FISIOTERAPIA ETA OSTEOPATIA ZENTROA**
Belorrieta 5, behea. Aretxabaleta. RPS: 289/13 / 943 08 21 89
• %15eko deskontua zerbitzu guztietan (errehabilitazioan izan ezik).

**ESKO SPORT. KIROL DENDA**
Intxaurtxueta 5. Eskoriatza. 943 71 52 96
• Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.

**ESTACION SERVICIO ARRASATE. GASOLINDEGIA**
San Andres 7. Arrasate. 943 71 24 72
• % 2ko gasolindegian erregaia erosita.
• % 2ko dendako produktuetan.

**NINIKA. LORADENDA**
Ramon Maria Lili 8. Bergara. 943 76 10 01
• %10eko deskontua artikulu guztietan.

**GAES. ENTZUMEN ZENTROA**
Otalora 18. Arrasate. RPS: 56/10 / 943 71 27 93
Zurradero 10. Bergara. RPS: 45/10 / 943 76 94 55
•%10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

**MO MULTIOPTICAS. OPTIKA**
Juan Carlos Gerra 1, behea. Arrasate. RPS: 149/10 / 943 79 29 95
Ibargarai 16. Bergara. RPS: 149/10 / 943 76 15 75
• %15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan)

**KUTTUNA. ESTETIKA ZENTROA**
Aranburuzabala 19, behea. Eskoriatza. RPS: 285/13 / 943 71 51 20
• %5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik)

**OÑATI GARAJEA. AUTOEN GARAJEA. KONPONKETAK**
Goribar Auzoa 9 .Oñati. 943 78 13 50
• %5eko beherapena egiten diren konponketetan

**JAUJA KIROLAK. KIROL DENDA**
Irizar pasealekua 1 behea, BERGARA. 943 76 14 95
• Produktu guztietan %10eko deskontua

**GRACIAN MERTZERIA. MERTZERIA**
Bidekurutzeta kalea 6, Bergara. 943 76 10 25
• 25 eurotik goragoko erosketetan %20ko deskontua.

**INSTITUTO OPTIKOA. OPTIKA**
Erdiko kalea 22, Arrasate — RPS: 115/13. / 943 79 71 68
• %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan eta aparatu audifonoetan.

**LONBIDE OINETAKOAK. OINETAKO DENDA**
Bidekurutzeta kalea 5, Bergara. 943 76 10 57
• Produktu guztietan %10eko deskontua.

**MARKIEGI. JANTZI DENDA**
Olarte kalea 2, Arrasate. 943 79 15 32
• Produktu guztietan %10eko deskontua.

**MIREN GARAI ESTETIKA ETXEA. ESTETIKA ZENTROA**
Zarugalde kalea 23, 2 ezk. Arrasate. 943 79 96 90
• Aurpegia garbitzeko tratamenduarekin, eskuetako tratamendua doan.

**ML ILE APAINDEGIA. ILE APAINDEGIA**
Alfonso X Jakintsua plaza 1 behea, Arrasate. / 943 79 79 65
• "Nanokeratin sistem" proteina tratamenduan %20ko deskontua.
• Beste edozein zerbitzuetan %5eko deskontua.

**PORTALOI OPTIKA. OPTIKA**
Erdiko kalea 10, Arrasate. RPS: 262/13 / 943 79 65 56
• %15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan).

**P. MANSO OPTIKA. OPTIKA**
Irizar pasealekua 2, Bergara. RPS: 56/11- 943 76 27 86
• Produktu guztietan, %15eko deskontua (beste promozio batzuekin ez metagarria).

**IZADI BELAR DENDA. BELAR DENDA**
Sebero Altube plaza 8. Arrasate. 943 79 75 79.
Kontzezino 8. Arrasate. 943 79 03 56.
• %5eko deskontua kosmetika naturaleko produktuetan. (Eskaintza ez metagarria)

**AKER TATTOO&PIERCING**
Ferrerias 44 behea 20500 Arrasate, 943 79 92 84.
• %10eko deskontua 2.tatuajean (2.tatuajea 4 hilabeteko gehienezko epean egin beharko da).
• Pertsona berak 2 piercing egun batean eginez gero, 2.piercing-ak %20ko deskontua.

**HAURTXOA UME DENDA**
Erdiko kalea 16 Arrasate , 943 79 14 90
• %10eko deskontua produktu guztietan ( ez metagarria beste eskaintza batzuekin).

**ZURICH ASEGURUAK**
Motxon, 5-behea Oñati, 943 78 30 09
• Auto asegurua Zurich-era ekarriz gero, %25eko deskontua zure polizan.
• %20eko deskontua etxeko aseguruan.

**JUANITOSA**
Atzeko kalea 11 Oñati, 943 78 04 62
• %10eko deskontua denboraldiko poltsotan.

**AZUL ILE APAINDEGIA**
Otalora Lizentziaduna kalea 24 Arrasate, 943 79 83 66
• %10eko deskontua betile-luzapenean.
• %5eko deskontua zerbitzu guztietan.

**ARKAUZ OPTIKA**
Lazarraga kalea 2, behea Oñati, 943 71 60 63
• %15eko deskontua audifonoetan.
• %15eko deskontua produktu guztietan (eskaintza ez metagarria).

**RESUSTA-KARRIKIRI**
Erdiko kalea 38 Arrasate, 943 79 01 07
• %10eko deskontua produktu guztietan (eskaintza ez metagarria).

**COT ILE APAINDEGIA**
Sagasti auzoa 1 Antzuola, 943 78 71 37
• %5eko deskontua lan teknikoetan (permanentea, metxak eta tindatzea).

**AMUEBLADORA MONDRAGONESA ALTZARIAK**
Zigarrola kalea 1 (5. pabilioia) Arrasate, 943 71 10 12
• %5eko deskontua CENTRO HOGAR MUEBLES dendan (ez metagarria beste eskaintza batzuekin).

**IMPRESPAL INPRIMATEGIAK / INPRIMATZE DIGITALA**
Komenio kalea 2 Bergara, 943 76 00 01
• %5eko deskontua produktu guztietan

**ETXEBERRIA ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**
Bidekurutzeta kalea 16 Bergara, 943 76 23 94
• %5eko deskontua bitxietan

**ADATS ILE APAINDEGIA**
Herrilagunak kalea 4 Bergara, 943 76 49 51
• Keratina tratamendua Prezioa:175 Goiena klubeko bazkideek 75.
• %10eko deskontua 21 urte azpiko bazkideentzat.

**ESKAINTZA GEHIAGO IKUSTEKO:** ***http://goienakluba.com***

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Bergara.** Baserria saltzen da kale ondoan eta prezio onean. 607 63 48 23

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erdialdean apartamentu berria ematen da errentan. Logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Trastelekua ere bai. Pertsona batendako nahiz bikoteendako apartekoa. Hilean 530 euro. Kontratuarekin. 639 17 49 52

**Eskoriatza.** Eduardo Gorosarri enparantzan etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. 605 77 51 65

**Oñati.** Erdialdean lau logelako etxebizitza ematen da errentan. Igogailurik ez. 696 40 38 82

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan San Lorentzo auzoan. Jantzia. Harremanetarako deitu telefono honetara: 605 74 43 96

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Datorren ikasturtean Aretxabaletan ikasiko dut. Etxebizitza bila nabil. Xabier. 616 96 61 46

**Arrasate erdialdean.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan, Arrasate erdialdean. Jantzi gabe badago hobeto, etxetresnak eta altzariak baditugu-eta. 675 70 24 17

**Arrasate.** Etxebizitza jantzia behar dut errentan, erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. Presazkoa da. 627 60 49 99

**Arrasate.** Familia batek etxebizitza behar du errentan. Gutxienez bi logelakoa. 610 67 45 15

**Baserri bila.** Baserria errentan hartuko genuke urtarriletik aurrera. Bailaran edota Durangaldean izan daiteke. 653 71 78 82 (Amaia)

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Erdigunean logela ematen da errentan. Telebistarekin eta sarrailarekin 603 14 28 89

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Cordoba y Oro kalean, San Andresen. Pertsona ez erretzailea eta arduratsua izatea eskatzen da. 648 00 86 55

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Grupo San Juanen. Pertsona bakarra bada, hobeto. 691 28 53 25 edo 627 24 62 76

**Arrasate.** Logela ematen da errentan partekatutako etxebizitza batean, Arrasate erdigunean. 608 49 89 93 (Iñaki)

**Logela bila.** Debagoienean edo Debabarrenean pertsona batendako logela behar dut errentan. Errolda agiriarekin. 631 29 77 31

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** 20 metroko garaje itxia salgai, Ibargarai 39 kalean, prezio onean. 607 63 48 23

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garajea hartuko nuke errentan. 669 90 95 95

## 3. LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Neska koadrilla batek lokala hartuko luke errentan. 680 29 99 79 (Amaia)

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**ARRASATE**
Esperientziadun zerbitzaria behar da.
635 73 27 74

**ETXE AGENTZIARAKO LANGILEA**
Debagoieneko etxe agentzia batek pertsona bat behar du, egun erdiz, bezeroen arretan eta ofimatikan lan egiteko.
Bidali CV: *inmodebagoiena@gmail.com*

**Arrasate.** Neska euskalduna behar da bi ume zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 649 32 47 39 edo 609 48 38 46

**Bergara.** Asteburuetan, etxean bertan bizi izanda, emakume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko neska bat behar dugu. 669 5397 03

### 402. ESKAERAK

**Arrasate, Bergara eta Oñati.** Gizonezko erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

**Arrasate.** Arrasateko neska euskalduna umeak zaintzeko prest. 667 90 50 49

**Arrasate.** Emakume arduratsua gertu nagusiak zaintzeko. Urte askotako esperientzia dut laguntza lanetan. Orduka, astelehenetik ostiralera lan egingo nuke. 607 72 75 61 (Bego)

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan, bertako jendearekin. Kontratuarekin. 647 28 92 34 (Fausto)

**Arrasate.** Mutila gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. Bestela, eraikuntzan ere lan egingo nuke. 678 25 95 46

**Arrasate.** Orduka lan egingo nuke garbitzen, tabernan eta abarretan. 691 28 53 25

**Bergara edo Arrasate.** Haur Hezkuntzako ikaslea, esperientziaduna, arratsaldez ume bat zaintzeko gertu. Informazio gehiagorako deitu zenbaki honetara: 645 70 23 37

**Bergara.** 46 urteko emakume bergararra etxeko lanak egiteko prest. Deitu telefono honetara: 647 51 52 80

**Bergara.** Bergarako emakumea arratsaldetan nagusiak paseatzera ateratzeko gertu. Bost euro orduko. 628 54 02 41

**Bergara.** Bergarako neska bat naiz. Haur hezkuntzako ikaslea. Aurtengo ikasturtean arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. 618 36 80 60 (Ane)

**Bergara.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 631 33 83 75 (Hilda)

**Bergara.** Ume eta nagusiak zainduko nituzke egunean zehar. Baita garbiketa lanak egin ere. Deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 631 53 76 74

**Debagoiena.** Arrasateko neska euskalduna prest etxeko lanak egiteko eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 634 81 54 93

**Debagoiena.** Arrasaten bizi den neska pertsona nagusiak zaintzeko, umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. 631 09 50 90

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko egunez, orduka zein gauetan. 645 58 71 61

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile ikasketak dituen gizona gertu nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanetan jarduteko. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. Erabateko prestutasuna. 631 17 16 35

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea gertu nagusiak orduka zaintzeko. Esperientziaduna. 620 23 58 15

**Debagoiena.** Esperientzia handia eta erreferentzia onak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. Etxeko lanak egiten eta janaria prestatzen ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Orduka ere lan egin dezaket. 662 43 08 54

**Debagoiena.** Garbiketan edo ume eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka. Telefonoa: 634 26 10 92

**Debagoiena.** Gertu nago garbiketa lanetan jarduteko: etxe, atari, lantegi eta abarrak. Banaketa lanak ere egingo nituzke. Autoa daukat. 632 77 35 38 edo 645 72 92 87

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Soldatzen eta tailerretan ere aritutakoa naiz. Autoa daukat. Telefonoa: 697 98 31 30 (Victor)

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Autoa daukat. 632 12 65 40

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan arituko nintzateke. 602 34 04 13

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukalde laguntzaile arituko nintzateke. Esperientzia dut arrandegi eta harategian. 675 58 75 21

**Debagoiena.** Neska arduratsu eta esperientziaduna nagusi eta umeak zaintzeko gertu. 609 18 87 32 (Paola)

**Debagoiena.** Neska arduratsua lan bila umeak edo nagusiak zaintzen zein bestelako lanetan. Esperientzia eta paperak ditut. 671 64 35 10

**Debagoiena.** Neska arduratsua, lege paperak dituena, gertu nagusiak zaindu, garbiketak egin zein sukaldean aritzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Autoa daukat. Deitu ezazu telefono honetara: 697 20 00 86

**Debagoiena.** Neska arduratsua, lege paperak eta gida baimena dauzkana, gertu zaintza lanak egiteko. Etxean bertan bizi izaten, egunez eta baita ordezkapenak egiten ere. Ile-apaintzaile eta sukaldean ere aritu naiteke. 631 78 42 27

**Debagoiena.** Neska gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Autoa daukat. 666 26 75 08

**Debagoiena.** Neska gertu orduka lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketak, sukaldari zein tabernari. 610 99 70 46

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu. Geriatria tituluduna. Autoduna. Eskarmentua lanean. Ospitalean gaixoak zaintzeko gertu. 600 00 51 60

**Debagoiena.** Neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izanda zein orduka. 697 86 49 00

**Debagoiena.** Pertsona nagusiei laguntzen lan egingo nuke: bazkari-afariak gertatu, etxeko lanak egin, enkargu edo medikuarengana lagundu, paseatzera eta abar. Bertako bazkaria egiten badakit. Sukaldaria naiz. Esperientziaduna. 635 28 38 11

**Debagoiena.** Zerbitzari lanetan edota nagusiak zaindu eta garbiketa lanetan arituko nintzateke. Leonarda Arandia. 629 29 11 23

**Emakume euskalduna.** Emakume euskalduna atariak, lokalak, tabernak , etxeak eta abarrak garbitzeko prest. Baita partikularrei etxea txukundu eta janaria prestatzeko gertu. 605 74 03 00 edo 943 76 06 10

**Lan bila.** 27 urteko neska lan bila. Hiru urteko esperientzia zerbitzari lanetan. Umeak zaintzen, dendari, edota etxe zein atariak garbitzen lan egingo nuke baita ere. Debagoienean edo Eibarren. Mila esker. 676 44 85 58

**Lan bila.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko Antzuolan, Bergaran, Arrasaten zein Elgetan. Autoa daukat. 642 88 07 31

**Oñati.** Emakume euskalduna gertu arratsaldetan umeak zaintzeko. 645 00 72 03

**Oñati.** Hezkuntza bereziko alorretik, lehen hezkuntzako ikasketak HUHEZIn burutzen ari naizen Oñatiko neska bat naiz. Aurtengo ikasturtean zehar arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Haurrekin esperientziaduna. 664 65 12 15

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** DBH 3. mailako matematika eskolak jasoko genituzke, astean bi egunetan, ordubetez. 688 65 73 49 edo 943 79 92 15

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu DBH 3. mailako eskola partikularrak emateko. Batez ere matematikan. 605 71 50 14

**Ingeniaritzako eskola partikularrak.** Ingeniaritzako 2. mailako eskola partikularrak jasoko nituzke Bergaran. Batez ere ikasgai hauetan laguntza beharko nuke: mekanika, estatistika eta matematika III. 638 86 82 53

**Oñati.** Bi neskari batxilergoko lehenengo eta bigarren mailako eskola partikularrak emango dizkien norbait behar dugu. Batez ere matematikan eta fisikan. 627 91 23 21

### 502. EMAN

**Arrasate.** Umeendako yoga eskolak ematen dira. 615 72 51 70 (Ana)

**Bergara.** Kimika, fisika eta matematika eskola partikularrak ematen ditut. Batxilergo eta DBH mailatan. 669 51 08 46

**DBH eta Batxilergorako eskola partikularrak.** Euskara, gaztelania, ingelesa eta orohar giza zientziak irakasteko esperientziadun irakasle oñatiarra, Debagoienean eskola partikularrak emateko gertu. 695 71 21 95

**Eskola partikularrak.** 23 urteko gazte bergararra eskola partikularrak emateko prest. Kazetaritzan graduatua. DBH 4. mailara arte emango nituzke klaseak, eta Batxilegora arte Euskara, Gaztelera, Frantsesa edota Ingeleseko klaseak balira. 628 52 43 72

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Motoarendako karroa.** Motoa eramateko karroa salgai, prezio oso onean. 665 73 37 75

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Katakumeak opari.** Abuztuan jaiotako katakumeak ematen dira opari. Deitu ezazu telefono honetara: 629 09 63 46 edo 660 92 70 71

**Txakurkumeak opari.** Lau txakurkume ematen dira opari. Ama artzai txakurra eta aita ezezaguna. Konpromiso gabe ikusteko aukera. Deitu ezazu telefono honetara: 658 75 97 55

## 8. DENETARIK

### 808. BESTELAKOAK

**Eskoriatza-Bergara.** Astelehenetik ostiralera Eskoriatzatik, Aretxabaletatik edo Arrasatetik Bergarara joan-etorria autoz egiten baduzu, bidaia gastuak konpartitu ditzakegu. Goizez joan eta arratsaldez bueltatzen naiz. Interesatuta bazaude, deitu telefono zenbaki honetara. Eskerrik asko. Deitu ezazu telefono honetara: 627 08 84 62

**Segura-Aretxabaleta.** Aretxabaletan ikasten hasiko naiz aurtengo ikasturtean eta Seguran bizi naiz. Norbait balego joan-etorri hori egingo duena egunero, autoko gastuetan lagunduko nioke. Xabier. Deitu ezazu telefono honetara: 616 96 61 46

---

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Aranerreka 79m², 3 logela, trasteroa, garajea aukeran. PREZIO JAITSIERA. 159.850€.
- Aranerreka 87m², 3 logela, trasteroa. Garajea aukeran. PREZIO JAITSIERA. 110.000€.
- Aranerreka 90m², 3 logela, trasteroa. PREZIO JAITSIERA. 129.000€
- Koldo Eleizalde, 76m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000€ NEGOZIAGARRIA.
- Bolun 129 m²ko Elkartea salgai. Ekipatua. 95.000€. PREZIO JAITSIERA.
- Koldo Elelizalde 87m², 3 logela, oso ondo apaindua. Fatxada berriztua. 210.000€
- San Antón Abad 71 m², 3 logela. 2 aparkaleku eta txokoarekin. 85.000€
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garaje aeta trastelekuarekin. 150.000€
- Espoloia 95 m², 3 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. 225.000€ PREZIO JAITSIERA.
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m²ko terrazarekin. 132.600€
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m²ko terrazarekin. 107.100€
